




# LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL PLANA 2004-2007



«Tradiziotik berrikuntzara»











# LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL PLANA 2004-2007

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
Lanbide Heziketako eta Etengabeko  
Ikaskuntzako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN  
Viceconsejería de Formación Profesional  
y Aprendizaje Permanente

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

**Lanbide** heziketako euskal plana 2004-2007 / [koordinazioa, Jasone Vicandi Enbeita]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

p. ; cm.

ISBN 84-457-2261-1

1. Formación profesional-Euskadi-Planificación. I. Vicandi Enbeita, Jasone.II. Euskadi. Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente.  
377.014.5(460.15)

**ARGITARALDIA:**

1.a, 2005eko otsaila

**ALE-KOPURUA:**

1.500 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

**INTERNET:**

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**ARGITARATZAILEA:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**KOORDINAZIOA:**

Jasone Vicandi Enbeita

**ITZULPENA:**

IVAP/HAEeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

**DISEINU:**

Canaldirecto

**INPRIMATZEA:**

RGM, S.A.

**ISBN:**

84-457-2261-1

**L.G.:**

BI-396/05



QZ  
1

ABC  
2

DEF  
3

CANCEL  
ANNULLER

GHI  
4

JKL  
5

MNO  
6

TC

OK

0

DECIMAL  
POINT •  
DECIMAL

Blank button

The image features a solid dark blue background. In the upper-left quadrant, there is a complex network of thin, light blue lines that intersect to form various geometric shapes, including triangles and polygons. The lines extend across the top and left portions of the frame.

AURKIBIDEA\_



08. ORRIALDEA

AURKEZPENA

12. ORRIALDEA

15

SARRERA

1. Lanbide Heziketa Euskal Autonomia Erkidegoan: egokitze eta aldatzeko esperientziak plangintza estrategikoaren oinarri
2. Lanbide Heziketaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Ezaugarriak
3. Lanbide Heziketak egun duen eszenatokia: ingurune sozioekonomikoaren bilakaera eta prestakuntza prozesuen erronkak
4. Lanbide Heziketako Euskal Plana eguneratzea eta hobetzea. Esparru estrategikoak

18

25

29

32. ORRIALDEA

35

I. ATALA: 1. ESPARRU ESTRATEGIKOA

1. Kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren sistema integratua eguneratzea eta hobetzea
2. Helburu estrategikoak

44

58. ORRIALDEA

61

II. ATALA: 2. ESPARRU ESTRATEGIKOA

1. Kalitatea Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan
2. Helburu estrategikoak

68

76. ORRIALDEA

79

III. ATALA: 3. ESPARRU ESTRATEGIKOA

1. Berrikuntza sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan, etengabe hobetzeko prozesu gisa
2. Helburu estrategikoak

87

102. ORRIALDEA

105

IV. ATALA: 4. ESPARRU ESTRATEGIKOA

1. IKTbak Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan
2. Helburu estrategikoak

110

122. ORRIALDEA

125

V. ATALA: 5. ESPARRU

Finantziarioa

128. ORRIALDEA

131

ERANSKINA

Lanbide Heziketari buruzko araudia  
— Estatukoa  
— Euskal Autonomia Erkidegokoa



LANBIDE HEZIKETA GERO ETA GARRANTZI ESTRATEGIKO  
HANDIAGOA ARI DA HARTZEN GURE ENPRESEN LEHIAKOR-  
TASUNA ETA AURRERAPENA AREAGOTZEKO, ETA GURE PRO-  
FESIONALEN EZAGUTZAK ETA GAITASUNAK HOBETZEKO.

# AURKEZP

Nazioarteko merkatuetan arrakasta osoz lehiatzen diren herrialdeen oparotasuna, beren ekonomien lehiakortasuna, eta beren produkzio-egituren eraginkortasuna, gero eta gehiago dago beren giza baliabideen prestakuntza-mailaren eta kualifikazio-mailaren mende, baita horien etengabeko eguneratzearen mende ere. Adierazpen hori are garrantzitsuagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, giza baliabideak baitira, segur aski, baliabide natural bakarra eta funtsezkoa.

Berariazko Lanbide Heziketak ezinbesteko funtzioa betetzen du, hezkuntza-sistemaren eta produkzio-sektoreen arteko lotura baita. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu duten ikasleentzako erdi-mailako heziketa zikloek eta Batxilergoa amaitu duten ikasleentzako goi-mailako heziketa zikloek oso lanpostu-kopuru handia eskuratzeko beharrezko ezagutzak eta gaitasunak eskaintzen dituzte.

Gaur egungo zenbait produkzio-sektoretan eskulan kualifikatua falta da, eta arazo hori gero eta larriagoa izango denez gero, nahitaez aurkitu beharko dugu guztion artean irtenbidea. Horretarako, ezinbestekoa izango da orain arte hautatu ez duten prestakuntza horretan sartzea neskek; izatez, neskek prestakuntza-ibilbide hori ez jarraitzeko bi arrazoi egon zitekeen: batetik, neskei ez zitzairen, orain arte, prestakuntza hori beraientzat egokia iruditzen, eta, bestetik, batzuen iritziz, prestakuntza-espezialitate jakin batzuk mutilentzat soilik ziren.

# ENA



ANJELES IZTUETA AZKUE  
Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa Sailburua



Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketaren plangintzan, lan handia ari da egiten gure enpresetako giza baliabideek kualifikazio-maila egokia izan dezaten, eta etengabe prestatzen jarraitu ahal izateko beharrezko heziketa izan dezaten. Tradizioaren eta berrikuntzaren artean eta eraginkortasunaren eta malgutasunaren artean kokatu da, eta oso kalitate-maila handia lortu du. Gainera, eta garrantzitsuena dena, enpresaren eta gizartearen aldean kokatu da.


Aurrera egin behar dugu etengabeko hobekuntzaren bidean; izan ere, aldaketak gero eta abiadura handiagoan ari dira gertatzen, gure enpresek gero eta lehia handiagoa dute, eta lanpostu bat eskuratu behar duten pertsonen prestakuntzak gero eta hobea behar du izan.

1997. urtean Lanbide Heziketako Euskal Plana onartzearekin, Eusko Jaurlaritzak bultzada erabakigarria eman zion Lanbide-Heziketari, garai hartan jada funtsezkotzat eta lehentasunekatizat jotzen baitzen Lanbide-Heziketa gure ekonomiari eta gure enpresek aurrera egiteko, enplegua hobetzeko, eta, azken finean, gure gizartearen ongizaterako. Lanbide Heziketako Plan hori abiapuntu izanik, hiru ardatz nagusitan egin dugu lan: kalitatean, berrikuntzan, eta lanbide-kualifikazioen sistema integratuan. Ildo horretan, gaur egun Lanbide Heziketako 2 ikastetxek lortu dute Urrezko Qa –hau da, EFQMren 500 puntuak lortu dituzte–, 19 ikastetxek Zilarrezko Qa erdietsi dute –hau da, EFQMren 400 puntuak lortu dituzte–, Lanbide Heziketako beste 38 ikastetxek ISO 9002 ziurtagiria lortu dute, eta beste 14 ikastetxek EFQMren 300 puntuak lortu dituzte. Horrenbestez, Europako buruan gaude ziurtagiriak lortu dituzten Lanbide Heziketaren arloko ikastetxeei dagokienez, eta ikasle-kopurua eta hedadura kontuan izanik. Halaber, berrikuntza ari gara jorratzen; gure ikasleen artean kultura ekintzailea ari gara irakasten, eta, horretarako, Lanbide-Heziketako zentroetan bertan, enpresa txikiak sortzeko enpresa-proiektuak diseinatzen dira, edo kudeaketa-eredu berriak aplikatzen dira, betiere gure ikastetxeen antolamendua, funtzionamendua eta eraginkortasuna nabarmen hobetuz. Lanbide Kualifikazioen Sistema abian jarrita, Lanbide Heziketa –hasierakoa zein etengabekoa– osotasun integratu gisa proiektatzen da, helburu komuna duen eta erreferente profesional bera duen osotasun gisa. Bertan, enpresetan zer profesional behar den eta zein behar izango den identifikatu ahal izango da, eta profesionaltasun hori nola lor daitekeen hauteman ahal izango da, ikuspegi berri baten laguntza eta askoz ere eredu malguago bati esker. Izatez, eredu horretan ikaskuntza formalak, ez-formalak, eta informalak hartuko dira kontuan eta ziurtatuko dira, eta, eredu horren bitartez, hain zuzen ere, pertsonen prestakuntza sustatzea eta hobetzea lortuko da, beren bilakaera profesionala orientatuko da, Lanbide-Heziketaren kalitatea areagotuko da, eta enpresen premiak beren langileen gaitasunarekin lotuko dira. Enpresa-garapen baten barruan pertsona batek zer egin behar duen, zer ikasi behar duen eta hori egiteko modurik onena eta azkarrena zein den ezarri nahi dugu adostasunez, produkzio-sektoreek aurrera egiten duten abiaduran bilakatzeko gai izan gaitzen.

Aurretik aditzera emandakoaren ildotik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren gaur egungo egoera aldaketa sakon baten ondorioa da. Aldaketa horretan antolamenduaren eta ekonomiaren alorreko ahalegin handiak egin dira, eta, horri esker, etengabe aldatzen ari den gizartearen esparruan Lanbide Heziketa hobe finka dadin lortu da. Gainera, helburu jakin batzuk eguneratzeko eta helburu horiek zabaltzeko lanari egonkortasunetik ekiteko beharrezko esperientzia lortu da. Hori dela eta, dagoeneko abian dauden jarduerak eta egiturak antzemandako aldaketetara egokitzeko zeregin estrategikoa da 2004-2007ko Lanbide Heziketako Euskal Plana.

Izatez, Plan honen bitartez, abian dauden planak eta prozesuak teknologien, merkatuen, lehia-tzaileen eta balioen aldatetara egokituko dira, eta, beste tresna batzuen laguntzaz, sortu berriak diren beste esparru batzuetan sartzen saiatuko da.

Lanbide Heziketaren esparruan, duela hamabi urte abian jarri zen ibilbideak maila handiko aldaketa-proposamena abiarazi zuen, prestakuntzaren ikuskera moderno eta eraginkorrean oinarrituta. Prestakuntzaren ikuskera horrek, bere tradizioa eta historia ahaztu gabe, eskema berritzaileak garatu ditu, eta Europako Lanbide Heziketarik onenen artean kokatu du gure Lanbide Heziketa.




ANJELES IZTUETA AZKUE  
Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa Sailburua



A blue-tinted photograph of a group of people in a meeting, with the word 'SARRERA' overlaid in white serif font. The background shows several individuals, some with their hands raised, suggesting an active discussion or presentation. The text is centered horizontally and has a small orange underline at the end.

SARRERA







# SARRERA

## 1. LANBIDE HEZIKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN: EGOKITZEKO ETA ALDATZEKO ESPERIENTZIAK PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN OINARRI

Ezagutzaren gizartean erabakitzailea da baliabide materialen eta giza baliabideen erabilera eta eguneratze intentsiboa, lehiakortasun- eta enplegarritasun-maila nahikoak lortzeko. Gainera, maila horiek etengabe berrikusi eta egiaztatu behar dira. Azkeneko hamarkada hauetan hezkuntza eta prestakuntza ulertzeko beste modu bat sortu da, etengabeko aldaketa sozial eta ekonomikoen ondorioz, neurri handi batean. Horien ezaugarri garrantzitsuenen artean, honakoa da bereziki azpimarratzekoa: emaitzei eta arrakastari begira gauzatzen zen prestatzeko eta ikasteko prozesutik gaitasunez jabetzean eta kualifikazioak areagotzean oinarritutako prozesurako urratsa. Halaber, beste ezaugarri garrantzitsu bat da ikasteko mekanismo formalek formal ez diren edo informal diren beste mekanismo batzuk izatea osagarri, baita zenbaitetan horiek ordezkatzea ere.

Lanbide-Heziketak ere izan ditu gisa honetako aldaketak. Esparru horretan, gainera, bereziki izan behar dira aintzat sortzen ari diren ezagutza kudeatzeko eta transmititzeko modu berriak eta horiek antolaketaren inguruan izan ditzaketen ondorioak, izan ere, Lanbide-Heziketak inplikazio handia du enpresen munduan eta, azken finean, merkatuaren ekonomian.

Lanbide-Heziketa, berezitasun eta ezaugarri propio eta guzti, hezkuntzaren eta ikaskuntzaren esparru zabalean kokatzen da. Esparru horri dagokionez, azkeneko urteetan joera orokorra izan da hobetzeko prozesuak eta planak garatzea, honakoak xede hartuta: kudeatzeko metodoak eguneratzea, zerbitzua hobetzea eta, laburbilduz, bertako prozedurak gero eta gehiago eskatzen duen errealitate sozial eta ekonomikora, oso bilakaera azkarra duen eszenatokiari erantzun berriak eskatzen dizkionera, egokitzea.

Erantzun horien dimentsioa eta intentsitatea kasuan kasu finkatutako helburuen araberakoak izango dira funtsean. Gainera, helburu horiek finkatzeko garaian sektorearen egoera eta gure esku-hartzearen xede izango den esparrua izan behar ditugu kontuan. Zenbaitetan, narriatutako





egoerak hauteman daitezke, gauzen egoerari men egiten dioten inertzien eraginez edo ingurune sozioekonomikoan zedarritzen hasten diren joerak ez aurreikustearen edo horiei aurrea ez hartzearen ondorioz. Eta narriatutako egoera horiek ikusita, ezinbestekoa da aldaketa sakonei heltzea, hain zuzen ere, ikasketo zereginaren inguruko kontzeptuen, egituren, prozeduren eta edukien gaineko alderdian eragingo duten aldaketei heltzea.

Horrelako kasuetan osoko aldaketak egin ohi dira eta horiei «erreforma» deitu ohi zaie hezkuntzaren esparruan. Alabaina, azken finean, horrek prestakuntzaren diseinuan, edukietan eta metodo pedagogikoetan aldaketa sakona egitea du xede. Baina, aldaketa horiekin batera, beste hainbat jarduera garrantzitsu ere jar daitezke abian, kudeatzeko, finantzatzeko eta azpiegiturak eta ekipamenduak berritzeko moduekin zerikusia dutenak, hain justu. Horrek guztiak eskakizun du Lanbide-Heziketa bere osotasunean benetan estrategikoa izango den maila batean kokatzea.

Haatik, eszenatokia bestelakoa ere izan liteke, indarrean dauden egiturak eta jardunak berrikusteko asmorik ez bada, hori ez delako beharrezkotzat jotzen nahiz gure jardunaren xede izango den sektoreak eraginkortasuna eta finkatuta egotea dituelako ezaugarri jarduera-esparru gehienetan (hori dela eta, ez da beharrezkoa eta, are gehiago, kalterako ere izan daiteke egoki denaren mailak gaindituko dituzten xedeak izango dituzten aldaketak proposatzea). Bigarren kasu horretan, sektore batean egoera nahikoa sendoa denean, bertan esku hartu nahi duenaren interesa gehiago bideratu behar da hobetzeko eta berritzeko prozesuak zedarrituko dituzten ekimenak sustatzera.

Oro har, beraz, eragin handiko erreformak edo aldaketak eta izaera mugatu eta berariaz-

koagoa duten planak edo proposamenak bereiz ditzakegu. Plan edo proposamen horiek ez dira sektore jakin baten egoera zalantzan jartzetik abiatzen. Aitzitik, berorretan oinarritzen dira eta aurrez ezarritako prozedurak eta helburuak hobetzen, aldatzen edo zabaltzen lagundu behar duten mekanismoen gisakoak dira.

Zati jakin batean eta modu zehatzagoan eragiteko xedea duten plan edo proposamen horiek azkar batean aldatzen ari den errealitatearen eskakizunei erantzun nahi diete, betiere hausnarketatik abiatuta. Hausnartzeak jarrera horrek, gainera, aukera eskainiko digu neurri batean aurrea hartzeko etorkizun hurbilagoan nahiz urrunxeagoan hezkuntz-ingurunean izan litezkeen eraginei —eta kasu batzuetan jada izan diren eraginei ere bai— erantzuteko zereginari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak dinamismo nabarmena izan du azkeneko bosturteko honetan, batez ere elkarrekiko lotura duten bi faktoreri dagokionez. Hona bi horiek: hezkuntza-erreformaren ondorioz LHko prestakuntza arautuak izan duen aldaketa eta Lanbide Heziketako Euskal Plana abian jartzea. Aipatutako plana Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren baitan sortu zen, gizarteragileen parte-hartzearekin, eta 1997ko apirilean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Lehenengo alderdiari dagokionez, oso lagungarria izan da Berariazko Lanbide Heziketa heziketa-zikloen arabera antolatzea eta horiek lanbide-erlora bereiztea, baita lanbideko gaitasun-atalei lotutako modululakoko egitura izatea ere, prestakuntza-edukiak eta produkzio-sistemak gaur egun dituen eskakizunak hobeto egokitzeko. Baina, horrezaz gain, lagungarri izan da prestakuntza gehiago profesionalizatzeko eta lan-merkatura gehiago bideratzeko. Bigarren onura horri begira,

proposatutako helburuen erakusgarri bikain da heziketa-ziklo guztietan sartzea lan-prestakuntza eta -orientabidea izeneko modulua eta lantokiko prestakuntza (LP) izenekoa.

Izaera arautuko irakaskuntza hau aldatzearekin batera, Lanbide Heziketa Euskal Plana Lanbide-Heziketako hiru azpisisistemak –berariazko Lanbide-Heziketa, etengabeko lanbide-prestakuntza eta lanerako lanbide-prestakuntza– bateratzeko orientazio estrategikoa ere bada, ikuspegi zabal eta globalagotik begiratuta. Hori dela eta, Lanbide Heziketako Euskal Planak lanbide-prestakuntza eta -gaitasuna garatzera bideratzen ditu bere helburu eta edukiak, betiere berriz kualifikatzeko, ikasteko eta gaitasun, ezagutza eta trebetasunak eguneratzeko prozesuen onuradun izan daitekeen eta horietan parte har dezakeen giza kapital osoa aintzat hartuz.

Aipatu berri dugun fokotzearekin bat, Lanbide Heziketako Euskal Planak nabarmen eten du lanbide-arloaren berezko helburu eta prestakuntza-prozeduren ikusmolde iragazgaitzarekin eta, aitzitik, prestakuntza-eskaintza eta -jarduerak bateratzea eta lotzea du xede, gure giza baliabideen kualifikazio-premia antizak asetze aldera. Hori, halaber, bete-betean dator bat prestakuntza-premiak hautemateko lehenetasunarekin, prestakuntza- eta produkzio-esparruetan biltzen diren eragileen ekin-tza koordinatua erekin eta hainbat mailatan egindako ahaleginak koordinatzeko eta integratzeko gai izango diren egitura malgu eta antizak sortzearekin.

Azaldu berri duguna aintzat hartuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak egun duen egoera aldaketa sakon baten ondorio da. Gainera, aldaketa horretara aha-lerin handia bideratu da, bai antolaketari begira, bai alderdi ekonomikoari begira, eta horrek aukera eskaini digu Lanbide-Heziketa hobeto kokatzeko etengabe aldatzen ari den

gizartearen esparruan. Horrek helburu jakin batzuk eguneratzeko eta lehendik zeuden beste batzuk zabaltzeko lanari egonkortasunez aurre egin ahal izateko beharrezkoa den esperientzia ere eskaini digu. Hori dela eta, Lanbide Heziketako Euskal Plan hau, 2004-2007 aldiari dagokiona, jada abian ziren egiturak eta jarduerak egokitzeko / zeregin estrategikoa da, egitura eta jarduera horiek hautemandako aldaketa berrietara egokitzeko zeregina, hain zuzen ere. Horretarako, lehendik genituen planak eta prozesuak teknologia, merkatu, lehiatzaile eta balioek izandako aldaketetara egokitzeko ditugu eta beste tresna batzuen laguntzaz sortzen ari diren bestelako esparruetan barneratzen saiatuko gara. Bestalde, garrantzitsua da EAEko Lanbide Heziketan gizarte-eragileek gehiago hartzea parte eta horien koordinazioa eta lankidetzazko zabalagoa izatea, plangintza estrategikoa gisa eta lan-munduarekin izan behar dituen harremanei begira.

Helburu estrategiko horrek ezinbestean izan behar du abiapuntu Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak gaur egun duen egoera. Horrez gain, gaur egungo eszenatokiari buruzko gogoeta egin behar du nahitaez. Nahitaezko erreferentzia horiek hartu dira aintzat 2004-2007 aldirako plan hau garatzeko garaian, lehenetasunezko xedetat hartuta EAEko Lanbide Heziketari produkzio-sektoreetan gertatzen diren aldaketei arin erantzutea ahalbidetuko dioten esparru estrategikoak identifikatzea eta garatzea.

LANBIDE HEZIKETAKO  
EUSKAL PLANAK  
NABARMEN ETEN DU  
LANBIDE-ARLOAREN  
BEREZKO HELBURU  
ETA PRESTAKUNTZA-  
PROZEDUREN IKUSMOLDE  
IRAGAZGAITZAREKIN



## 2. LANBIDE HEZIKETAREN EGOERA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN. EZAUGARRIAK

Lanbide-Heziketak egun Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoera gizarte-eragileen, administrazioen, ikastetxeen baterako ekin-tzaren eta horiek ardatz nagusi baten, hots, adostasunaren, inguruan egindako jarduna-ren elkarreaginaren eta osagarritasunaren emaitza da. Edozein jarduera-motatan ekarri ohi du aldaketak berekin gizabanakoen eta taldeen portaeraren aldaketa. Baina hori are nabarmenagoa da Lanbide-Heziketa bezalako esparru konplexu eta zabalean. Hori dela eta, nahitaezkoa da interesak, jarrerak eta bera-riazko helburuak bateratzea, horiek zabal adostea, hain zuzen ere, enpresaburu- en, sindikatuen, ikastetxeen eta Jaurlaritzaren artean, lortutako emaitzak guztiak ase ditzan.

Orain dela zazpi urte Lanbide-Heziketaren esparruan hasitako ibilbideak aldatzeko, sakon aldatzeko, proposamena izan zuen abiapuntu. Proposamen hori Lanbide-Heziketa ulertzeko beste modu batean oinarritu zen, eta ikusmolde horren arabera, ezinbestekoa zen aipatu berri ditugun eragile eta erakun- deen arteko elkarlana. Alabaina, ezin dugu ahaztu honakoa zela Lanbide-Heziketaren egoera lauogeita hamarrekota hamarkadaren hasieran: gizarte-irudi ahuldua, errepikatzen edo porrot egiten zutenen kopuru kezka-ga- rriak, ikasketak merkatutako eskakizunetara ez egokitzea eta prestakuntza-eskaintzen eta sektorean esku hartzen zuten eragileen arte- ko koordinazio urria. Nolanahi ere, ezin dugu gutxietsi irakasleek eta ikastetxeek egindako ahalegina.

Erakutsitako aldatzeko ahalmen hori aipatu berri dugun baterako ekinga horri zor zaio,

hain zuzen ere. Interesgarria litzateke hori xeheago ikustea. Horretarako aukera ezin hobe izango da aldatzeko prozesu horretan lehenetsuneko parte-hartzea izan duten lau eragileen ekarriak aztertzea.

### Eusko Jaurlaritzaren erakunde-ekintza

Eusko Jaurlaritzak eta gizarte-eragileek Lan- bide-Heziketa sustatzearen alde egindako apus- tu irmoa Lanbide Heziketako Euskal Plana prestatzearen eta ondoren –1999ko apiri- lean– hori onartzearen bidez gauzatu zen batez ere. Lanbide Heziketako Euskal Planak Lanbide-Heziketako hiru azpizistemen egoe- rari buruzko diagnostikoa hartu zuen barne, baita erakundeek (erakunde publikoek, enpresa-elkarteek, sindikatuek, enpresek, ikastetxeek eta abar) esparru honetan izan beharreko eginkizuna ere. Hori abiapuntutzat hartuta, helburu orokorrak finkatu ziren, jar- duteko ardatz nagusiak zedarritu ziren eta hezkuntzaren, antolaketa-aren nahiz gizarte-aren inguruko alderdiei zegozkien helburuak zehaztu ziren.

Plan hori garatzeko zereginaren ingurukoa izan da batez ere Eusko Jaurlaritzaren erakun- de-jarduna. Bereziki aipatzekoak dira horren inguruan eratu diren erakundeak. Horietako batzuk plana bera onartu baino lehen sortu ziren eta izugarri lagundu dute Lanbide-He- ziketaren presentzia sustatzen. Horien artean honakoak nabarmen ditzakegu, ordena kro- nologikoari jarraiki:

BERRIKUNTZATIK  
LANBIDE  
KUALIFIKAZIOTARA

1. LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL KONTSEILUA, 1994AN SORTU ZENA.
2. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA KUDEATU ETA GARATZEKO FUNDAZIOA, HOBETUZ, 1995EKO LANBIDEARTEKO ETA HIRUKO AKORDIOAREN ONDOREN ERATUA ETA 1996AN SORTUA.
3. LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL SISTEMAREN BEHATOKIA, 1998AN SORTU ZENA.
4. KUALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA, 1998AN SORTU ZENA.
5. LANBIDE HEZIKETAKO IKASTEGI INTEGRALEN SAREA, 1998AN SORTU ZENA.
6. LANBIDE HEZIKETAKO KALITATEA ETA GAITASUNA EBALUATZEKO EUSKAL AGENTZIA, 2000N SORTUTAKOA.
7. LANBIDE HEZIKETA ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO SAILBURUORDETZA, 2001EAN SORTU ZENA.



Berariazko alderdi horiez gain, Lanbide Heziketako Euskal Plana helburu ugari eta anitzak zituzten lau programaren arabera egituratu zen. Horiek bete direnez, nabarmen egin dugu aurrera, 2002an egin zen horren inguruko ebaluazioan bertan adierazi zen bezala.

Hori guztia hain burokratikoa izan ez den eta autonomoagoa, malguagoa eta eraginkorragoa izan den Lanbide-Heziketaren ikusmoldean oinarritu da, bere metodoak enpresen eta pertsonen premietara ezin hobeto hurbiltzea ahalbidetzen dion eredu berrira bideratu dituen Lanbide-Heziketan, hain zuzen ere.

Ildo horretan, eta Eusko Jaurlaritzak kalitatearen inguruan daraman politikaren barruan, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak –Lanbide Heziketa Zuzendaritza, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza, Kualifikazioen Euskal Institutua eta Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia hartzen dituenak– ISO 9001:2000 kalitate-egiaztagiria lortu du eta, horri esker, urrats nabarmena egin du.

Horrek bestelako pentsamoldea ekarri du berekin eta gisa horretan gainditu egin dira Lanbide-Heziketaren jarduerari eta gizarte-irudiari enbarazu egin dioten baldintzatzaile eta arrasto historikoak, baita berori geldiarazten zuten eta neurri handi batean gertatzen ziren aldaketei behar bezala aurre egitea eta, horrenbestez, ingurune ekonomikoaren (zehatzago esateko, enpresa-ehunaren) eskakizunetara egokitzea eragozten zioten muge-tako asko ere.

## Lanbide-Heziketako ikastetxeen jarduera

Badago Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren gaurko egoeran erabakitzailea izan den bigarren faktore bat, Euskal Planetik datorren ikuspegi berriaren alde argi eta garbi apustu egitean Lanbide-Heziketako ikastetxeek eman duten erantzun bikaina, alegia. Horren ondorioz, nabarmen aldatu dira kudeaketa-egiturak, giza kapitala berriz kualifikatu da, ekipamenduak modernizatu dira eta etengabeko Lanbide-Heziketaren aldeko apustua egin da. Era berean, azkar egin da prestakuntza-eskaintza arautua aldatzeko urratsa, irakaskuntza zaharretatik berrietara.

1. taulan ikus daitekeenez, lau ikasturte baino ez dira behar izan Lanbide-Heziketako ikastetxeek beren prestakuntza-eskaintza modernizatzeke eta 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorrak diseinatutako Lanbide-Heziketaren ereduari zegokiona ordezkatzeko.

Beste adierazle nabarmen bat da Lanbide-Heziketako ikastetxeek kalitate eta bikaintasunari lotutako zenbait jarduera garatzearen alde izan duten jarrera eta norabide horretan emandako bultzada.

Gertakari horren ondorioz, 2004aren hasieran:

- 2 ikastetxek 500 EFQM puntuak lortu dituzte (Urrezko Q).
- 19 ikastetxek 400 EFQM puntuak gainditu dituzte (Zilarrezko Q).
- Lanbide-Heziketako 38 ikastetxek ISO 9000 ziurtagiria lortu dute.
- 14 ikastetxek 300 EFQM puntuak lortu dituzte.
- Ikastetxe batek ISO 14000 lortu du.
- 10 ikastetxe auditoretza-fasean daude, ISO 14000 lortzeko.

**1. TAULA**  
**LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASKUNTZEN BARNE-BILAKAERA.**  
**1993/94-2002/03 ALDIARI DAGOZKION EHUNEKOAK**

Ikasturteak	LH I	LH II	Moduluak	Erdi-mailako LH	Goi-mailako LH
1993/94	%31	%65	%4		
1994/95	%29	%65	%6		
1995/96	%29	%62	%9		
1996/97	%28	%59	%11		%2
1997/98	%21	%50	%6	%10	%13
1998/99	%6	%36	%2	%26	%30
1999/00	%2	%14		%34	%50
2000/01		%5		%36	%59
2001/02				%37	%63
2002/03				%37,4	%62,6

*Iturria:* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Bertan landutakoa.



**ETENGABEKO  
LANBIDE-PRESTAKUNTZA  
\* MODULU-KATALOGO INTEGRATUA**

Urtea	Parte-hartzaileak
2001	6.980
2002	8.383
2003	15.399

**ETENGABEKO  
LANBIDE-PRESTAKUNTZA  
EGUNERATZEKO PRESTAKUNTZA**

Urtea	Parte-hartzaileak
2000	2.621
2001	12.518
2002	9.487
2003	24.235

**LANERAKO  
LANBIDE-PRESTAKUNTZA**

Urtea	Parte-hartzaileak
2003	1.849

\* EAeko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako prestakuntza

Lorpen horiek eskakizun duten diziplina dela eta, ikastetxeek beren prozedurak idatzi egin behar izan dituzte, baita helburuak aldatu, zerbitzuak arrazionalizatu eta lehentasunak zehaztu ere. Horretarako, aldaketa handiak egin behar izan dituzte antolakuntzaren kulturaren, eta horrek agerian utzi du aldaketaren premia eta hobetu egin ditu aurretiko lehiakortasun-mailak.

Lanbide-Heziketako ikastetxeek gero eta konpromiso handiagoa dute etengabeko eta lanerako lanbide-prestakuntza garatzearekin, eta hori aipatzeko moduko hirugarren elementu bat da, Lanbide-Heziketako ikastetxe horiek sektore horrek euskal gizartean duen egoerari dagokionez egindako ekarpenari begira. Izan ere, etengabeko eta lanerako lanbide-prestakuntza funtsezko gaia da, Lanbide-Heziketako hiru azpisisistemak uztartzearen alde Euskal Planak egin duen apustu estrategikoa kontuan hartuta.

## Familien eta ikasleen erantzuna

Familien eta ikasleen erantzuna ere funtsezko elementu da sektorea garatzeko. Hori kontuan izanik, baieztatu dezakegu eskatzaileek pixkanaka ulertu dutela aldaketaren norabidea eta, zehatzago esateko, Lanbide-Heziketako ikasketak aldatzetik eratorritako abantailaz ohartu direla. Asko dira horri buruzko datu adierazgarriak ematen dituzten adierazleak baina, laburpen gisa, horietako bi aipatuko ditugu, eskatzaileen konpromisoaren erakusgarri.

Alde batetik, ezinbestekoa da araututako esparruan erdi- nahiz goi-mailako heziketa-zikloak egitea erabaki duten Lanbide-Heziketako ikasleen kopuruak izan duen gorakada iraunkorra aipatzea. 2. taulan ikus daitekeenez, nabarmena izan da aktiboaren kopuruaren gorakada, batez ere goi-mailako prestakuntza-eskaintzari dagokionez.

**2. TAULA.**  
**EHEZIKETA-ZIKLOETAKO LANBIDE-HEZIKETAKO IKASLEEN BILAKAERA.**  
**1997/98-2002/03 ALDIARI DAGOZKION GUZTIZKOAK**

Ikasturtea	Erdi-mailako LH	Goi-mailako LH	GUZTIRA
1997/98	3.967	6.654	<b>10.621</b>
1998/99	8.422	10.967	<b>19.389</b>
1999/00	10.569	15.454	<b>26.023</b>
2000/01	10.898	18.091	<b>28.989</b>
2001/02	11.048	18.298	<b>29.344</b>
2002/03	11.203	18.626	<b>29.829</b>



2. taulan deskribatutako bilakaerak Lanbide-Heziketako ikasketek prestakuntza aratuaren esparruan duten pisua areagotzea ahalbidetu du. Izan ere, 2002/03 ikasturtean %47 baino zertxobait gehiago ziren Lanbide-Heziketan matrikulatutako ikasleak, derrigorrezkoak ez diren mailetan matrikulatutako ikasleen artean. Berorren maila erlatiboa 10 puntu igo da, 1996/97 ikasturtea erreferentzia gisa hartuta. Lanbide-Heziketan irakaskuntza berriak ezarri direnez, irudi hobea helarazi zaie eskatzaileei, prestakuntza-esparru honen edukien eta lanbide-aukeren inguruan.

Badago, bestalde, inolako zalantzarik gabe aurrekoari lotuta dagoen beste faktore bat, Lanbide-Heziketako ikasleen emaitza akademikoak hobetu egin direla adierazten duena. Adierazle horrek arrakastaren maila ematen du aditzera eta, aldi berean, ikasketa hauek eskatzen dituztenak gero eta gusturago daukela erakusten du. 3. taulan agertzen diren datuek aldaketa zenbaterainokoa izan den islatzen dute, erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetan matrikulatutako ikasleek lortu dituzten eskola-emaitzak Lanbide-Heziketako irakaskuntza zaharrak egiten zituzten ikasleek lortzen zituztenekin alderatuta.

### 3. TAULA. ESKOLA-EMAITZAK. ARRAKASTA-TASAK. EHUNEKOAK. 1995/96-2002/03

Ikasturteak	LH II	MODULUAK	Erdi-mailako LH	Goi-mailako LH
1995/96	%65	%78		
1996/97	%65	%82		
1997/98	%67	%83		
1998/99			%79	%88
1999/00			%80	%87
2000/01			%81	%88
2001/02			%79	%86
2002/03			%81	%86

*Iturria:* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Bertan landutakoa.

### Enpresa-sektorearen portaera

Amaizteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak gaur egun duen egoera argitzen duten eta elkarrekin lotuta dauden faktoreen artean, enpresa-sektorearen por-

taerak, Lanbide-Heziketako eredu berriaren inguruan eta Lanbide Heziketako Euskal Planetik eratorritako norabideen inguruan duenak, berresten du dagoeneko aipatu ditugun eragileek egindako ahalegina, eta berorrek ematen dio zentzua. Hori dela eta, euskal



enpresaburuen portaera aztertzeko modurik onena Lanbide-Heziketako tituludunen enplegu-mailei, horien inguruko asetahun-mailari eta lanean ari diren langileen ezagutza eta prestakuntza hobetzerantz bideratutako berriz kualifikatzeko prozesuak sustatzeko jarrerari erreparatzea izango da.

Lehen gaiari dagokionez, 4. taulak aditzera ematen du lau urteko aldi batean Lanbide-Heziketako tituludunen promozioek izandako

enplegu-tasa. Aipatutako taulan ikus daitekeenez, bereziki nabarmena da lan-munduan sartu diren tituludunen kopurua, % 80 baino gehiagokoa baita kontuan hartutako espezialitateen erdian. Horrek esan nahi du ikasketak jarraitzen ez dituzten hamar tituludunetatik zortzi lan-mundura sartzen direla. Bestalde, datuen fidagarritasuna hartu behar da kontuan, aztertutako urte bakoitzean ikasketak bukatu zituzten ikasleek %100i egindako inkesta.

**4. TAULA.**  
**LANBIDE-HEZIKETAKO TITULUDUNEN ENPLEGU-TASA. 1998, 1999, 2000, 2001 ETA 2002-KO PROMOZIOAK.**  
**EHUNEKOAK. EAE OSOA. URTERO IKASKETAK AMAITU DITUZTEN IKASLEEN %100-I EGINDAKO INKESTA**

ADAR AKADEMIKOA	Enplegu-tasa				
	1998	1999	2000	2001	2002
Metala	%92	%93	%95	%92	%88
Automozioa	%84	%94	%91	%90	%88
Elektrizitatea eta elektronika	%88	%86	%90	%88	%81
Delineazioa	%86	%80	%88	%87	-
Egurra	%90	%83	%87	%83	%84
Eraikuntza	%96	%100	%87	%87	%88
Informatika	-	%81	%84	%82	%72
Ostalaritza eta turismoa	%86	%76	%81	%83	%86
Ehungintza	-	%67	%80	%69	%73
Nekazaritza	%64	%88	%75	%77	%63
Ile-apainketa eta Estetika	%80	%82	%73	%79	%85
Komunitate Zerbitzuak	%63	%79	%73	%75	%81
Gorputz eta Kirol Jarduerak	%71	-	%72	%85	%90
Administrazioa eta Merkataritza	%70	%70	%71	%75	%77
Irudia eta Soinua	%42	%66	%71	%74	%64
Osasuna	%62	%57	%66	%71	%69
Kimika	%77	%67	%66	%70	%75
Arte Grafikoak	%64	%69	%65	%75	%71
<b>PROMOZIOA GUZTIRA</b>	<b>%78</b>	<b>%79</b>	<b>%81</b>	<b>%83</b>	<b>%81</b>

4. taulako emaitzak nahikoa adierazgarri ez balira ere, 2002an Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak enpresek Lanbide-Heziketako tituludunen inguruan duten asetahun-mailari buruz egindako inkestak ere datu argigarriak eskaintzen ditu enpresa-sektoreek Lanbide-Heziketaren inguruan duten asetahunari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoko 861 enpresatan egindako lan horrek adierazten duenez, bertan LHko tituludun ugari kontratatu dira (batez beste %97). Baina ez hori bakarrik: kontratatutako tituludunek oro har oso ongi ase dituzte enpresen eskakizunak (7,5eko batez bestekoa). Alabaina, agian enpresaburuak etorkizunean ere Lanbide-Heziketako tituludunak kontratatzearen alde adierazitako jarrera izan liteke daturik garrantzitsuena. Izan ere, kontsultatutako

enpresaburuak %96ek baino gehiagok adierazi dute etorkizunean ere gisa honetako profesionalak kontratatzearen alde daudela.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak egun duen egoera Lanbide Heziketako Euskal Planean lehentasunezko tresna gisa finkatu zen plangintza estrategikoaren emaitza da, izan ere, horrek ahalbidetu du Lanbide-Heziketako sistema integratua eraikitzea bideratutako ekintza-katea garrantzua. Sarrera honetan barne hartu diren adierazleek ongi adierazten dute esparru honetan esku hartzen duten sektoreek egoki erantzun dutela. Hori dela eta, lortutako emaitza ona izan dela baieztatu dezakegu, eta horixe izango dugu berehala heldu beharreko ekintzaren abiapuntu.

## KONTSULTATUTAKO ENPRESABURUEN %96-EK BAINO GEHIAGOK ADIERAZI DUTE ETORKIZUNEAN ERE GISA HONETAKO PROFESIONALAK KONTRATATZEAREN ALDE DAUDELA

### 3. LANBIDE HEZIKETAK EGUN DUEN ESZENATOKIA: INGURUNE SOZIOEKONOMIKOAREN BILAKAERA ETA PRESTAKUNTZA PROZESUEN ERRONKAK

Gaur egun Lanbide-Heziketak dituen ezaugarriak zehaztu ahal izateko, gure inguruneari buruz modu antolatuan hausnartzeaz gain, kontuan izan behar dugu garatu ahala gure errealitatean, irakasteko eta antolatutako moduan, kudeatzeko eran eta Lanbide-Hezi-

keta ulertzeko moduan eragin nabarmenak dituzten joerak daudela.

Lanbide-Heziketaren esparruan bereziki eragiten ari diren joeren artean ondorengo lau hauek azpimarra ditzakegu.

## GERO ETA OHIKOAGOAK IZANGO DIRA GAITASUN DESBERDINAK DITUZTEN LANGILEEN KONBINAZIO MALGUAK

### Ezagutza, prestakuntza eta merkatuaren arteko erlazio garaikidea

Lanbide-Heziketaren mundua enpresa-jarduerari lotzen saiatzen da egun, inoiz baino gehiago gainera, eta horrexegatik eragiten dute bertan gero eta gehiago merkatuaren legeek. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan egun Lanbide-Heziketa garatzeko ereduak ahalbidetu du gizartearen eta ekonomiaren arloko beste eragile batzuek gehiago parte-hartzea prestakuntza horren egitekoaren edukia kudeatzeko, arautzeko eta zehazteko garaian. Baina horrezaz gain, eredu horri jarraiki, Lanbide-Heziketako ikastetxe bakoitza bere inguru-neari lotuta dagoen eta berriazko hezkuntza-eta lanbide-proiektua garatzeko gai den kudeaketa-unitate gisa garatzen lagunduko duten deszentralizatzeko prozesuak sustatu dira. Bi gertakari horiek direla eta, gure Lanbide-Heziketako berezko eta ohiko lexikoan benetan hartu dira barne berrikuntza, lehiakortasuna, kalitate eta etengabeko hobekuntza ziurtatzea eta gisako beste termino batzuk, epe laburrean barne hartu ere.

Hortaz, ukaezina da merkatuari eta berorren eskakizunei eskainitako arreta. Baina horrezaz gain, kontuan izan behar dugu gaur egun egiturak aldatzen ari direla sektoreen baitan, eta aldaketa horiek ondorengo premietara bideratutakoak direla: espezializazio malguak, kualifikazio handia, merkatuko aldaketen aurrean azkar erreakzionatzeko gaitasuna, zerbitzuaren fidagarritasuna, berrikuntza eta marketing-a.

Esan berri dugunaren ondorioz, gero eta ohikoagoak izango dira gaitasun desberdinak dituzten langileen konbinazio malguak. Gainera, gero eta garrantzitsuagoa izango da bezeroekiko komunikazio arina, eta gero eta ohiz kanpokoagoak izango dira epe luzera begira definitutako langileen posizioak eta funtzioak.

Deskribatu duguna bezalako eszenatoki batek eskatzen duen ezagutza- eta prestakuntza-mota eskari eta premia desberdinetara egokitu beharko da, eskari eta premia horiek sortu ahala, bai pertsoneri dagokienez, bai enpresei dagokienez.

### Ikastetxea nukleo estrategiko gisa

Lanbide-Heziketako ikastetxeak kudeatzeko, antolatzeko eta zabaltzeko unitate giltzari bilakatzen ari dira. Hots, prestakuntza autonomiaz garatzeko unitate giltzari. Lanbide-Heziketako ikastetxe bakoitza muga mugikorak, etengabe berriz definitzen diren helburuak eta etengabe berreraikitzen diren harremanak dituen erakundea da eta, hortaz, jada ezin da makurtu geldiarazten zuen forma burokratiko orokorrera. Hori dela eta, ikastetxeen eta administrazioen arteko harremanak ere bestelakoak izango dira eta harreman horiek eskaintzaren kantitatea eta kalitatea areagotzea ahalbidetu behar dute.

Gainera, horien bidez zurrunejak diren antolaketa-ereduek berekin dakartzaten egituraren inguruko zailtasunak gainditzeko ahalegina egin behar da.

Ikastetxeek pixkanaka berriazko eta espezializatutako prestakuntza-eskaintzara mugatzeko joera izango dute, eta aldi berean beste prestakuntza-esparru batzuk osatzeko gai izango diren sareetan hartuko dute parte. Sare horien bidez lortutako aliantzei esker, espazio hurbila gainditu ahal izango dute, pixkanaka nazioarteko izaera beretzeko. Horrek eskatzaileei aukera emango die prestakuntza-eskaintza zabalago eta nazioartekotuagoa izateko, eta bezeroek lankidetzako hainbat programatan parte hartzeko egokiera izango dute. Horrenbestez, Lanbide-Heziketako ikastetxeek gero eta gehiago hartuko dute parte kanpoko proiektuetan, eta hori dela eta, informazioa emateko ahalegin gehigarria egin beharko dute, eskainitako zerbitzuak ezagutzeko eta horietarako sarbidea errazteko.

### Ezagutza etengabe eguneratzeko ohiturarantz

Prestakuntza ikuspegi finalista eta mugatutik ulertzetik prestakuntza etengabeko jarduera eta gaitasun mugaezinak dituen jarduera gisa ulertzera iragaiteko, ezinbestekoa da etengabe eguneratzea eta berrikustea banakako nahiz taldeko ezagutza eta trebetasunak. Horrek, gainera, lotura zuzena du iraultza teknologikoaren eraginarekin eta ezagutzaren gizartearen eskakizunekin. Hori dela eta, nahitaezkoa izan da «prestakuntza» kontzeptuaren mugak zabalitzea eta ezagutzak etengabe (neurri batean zein bestean) berrikustea ahalbidetuko duten mekanismoak ezartzea. Hori dela bide, giza baliabideen kudeaketa funtsezko helburu bilakatu da eta, beraz, halabeharrezkoa da ezagutza eta etengabeko



eguneratzea sustatzea langileen artean, baita berrikuntzaren aldeko apustua egitea ere, berriazko zenbait esparrutan.

Irakasleek espezializatu egin beharko dute. Irakasleetako batzuek ikasteko prozesua kudeatzeari eskaini beharko diete arreta, eta beste batzuek, berriz, berrikuntzari. Gero eta ohikoagoa izango da kanpoko adituen presentzia, eta oro har, irakasle gisa jarduteko, gero eta garrantzitsuagoa izango da hezkuntzaren esparruaz haraindiko esperientzia praktikoa izatea.

Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemek gizarte osoari eskaini beharko dizkiete aukerak, ikuspegi oso batetik gainera. Testuinguru horretan, diplomak, egiaztagirak, kualifikazioak eta tituluak erreferentzia garrantzitsu izango dira, baina ez bakarrik pertsonentzat, baita ikastetxe eta enpresetarako ere.

Lan egiteko modua askoz banakakoagoa izango da. Lana ez da lantoki finko batera mugatuko, ezta aurrez ezarritako aldiatar ere, eta erreferentziako taldea edo erakundea ez da bakarra izango. Banakako jarduna gehiago lotuko da sareetara eta, hortaz, langileak autonomoagoak izango dira eta beren buruak arautzeko bestelako gaitasunak landu beharko dituzte.

# PRESTATZEKO ETA IKASTEKO SISTEMAK BESTE ESZENATOKI BATERA EGOKITU BEHARKO DIRA, ESZENATOKI HORRETAN ASKOZ UGARIAGOAK IZANGO DIRELAKO EZAGUTZA LORTZEKO MODUAK

## Berrikuntza eta ingurune teknologikoa

Komunikazioaren eta prestakuntzaren inguruko aukera berriak izatea gaur egun «sareko gizartea» deitzen dugunaren ondorio da. Horrek aukera eskaintzen digu teknologia berriak hezkuntzaren inguruko xedeetarako erabiltzeko, baina, halaber, prestatzaile berrien presentziaren berri ematen digu. Horiei «prestatzaile informal» dei diezaiekegu, eta hezkuntza formalaren lehiakide sendo dira. Bestela esan, «hezkuntza formalari» dagozkion modu klasikoak bereziki berrikusi behar dira Lanbide-Heziketaren esparruan. Izan ere, gainera, teknologia berriek aukera eskaintzen dute erakunde-egiturak Lanbide-Heziketako ikastetxeen eta beren inguruneen arteko harreman ugari eta anitzetarako bistako abantailak dakartzaten bitartekoak erabiliz eguneratzeko.

Teknologia berriek nabarmen baldintzatuko dituzte ikasteko metodoak eta prozesuak. Horiei esker, errealitate bihurtu da testuaren, irudiaren eta soinuaren arteko bat-egitea. Horrek berekin ekarri dituen aldaketak ez dira erraz iragartzeko modukoak eta aurrea hartzeko ahalegin handia eskatuko digute. Ikasteko esperientzietako asko zeharka edo birtualki garatuko dira. Gizabanakoek testuinguru

ugari eta anitzetan barrena ibiltzeko gaitasuna izango dute eta horrek komunikatzeko gaitasun handia eskatuko die prestatzaileei.

## Ondorio modura

Aurrez zerrendatu ditugun askotariko alderdi horiekin bat etorritik, prestatzeko eta ikasteko sistemak beste eszenatoki batera egokitu beharko dute, eszenatoki horretan askoz ugariagoak izango direlako ezagutza lortzeko moduak eta zabaldu egingo delako interesa duten pertsonen tipologia. Hezitzaileak eta prestatzaileak gero eta gehiago izango dira orientatzaile, bitartekari eta ikasteko prozesuko gidari. Beren lana batez ere bezeroei ikasteko laguntza eskaintzea izango da. Ikaskuntza aktiboak ikasteko aukera desberdinak ezagutzeko trebetasuna hartu beharko du barne, motibazioaz eta pentsamolde kritikoz gain.

Ikastetxeen eskaria ez da antolaketa- eta espezializazio-mailaren araberakoa bakarrik izango, horiek sare zabalagoetan parte hartzeko duten gaitasunak ere izango baitu zerkusirik, horiek izango direlako pertsonen beren eskariak ase ahal izateko moduaren inguruko orientabidea eskaintzeko bide. Zerbitzuek hurbilerrazak izan behar dute eta kalitate-estandar zorrotzei erantzun behar diete.

Amaitzeko, Lanbide-Heziketako ikastetxeek erro sendoak izan behar dituzte beren toki-ingurunean, baita beren ingurunearekiko lotura ugari ere, aldi berean beraiei dagozkien beste ikaskuntza-komunitate batzuekiko loturari eusten dioten eta hori ahalbidetzen duten bitartean. Tokiko harremanek konfiantza eskainiko diote, eta sare zabalagoetan parte-hartzea, aldiz, ezinbestekoa izango da banakoen eta taldeen jarduna eta ezagutza orientatzeko.



## 4. LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL PLANA EGUNERATZEA ETA HOBETZEA. ESPARRU ESTRATEGIKOAK

Ezinbestekoa da prestakuntza-eskaintza eten-gabe eguneratzea, berorren kalitatea eta eraginkortasuna bermatu ahal izateko. Horrez gain, nahitaezkoa da Euskal Autonomia Erki-degoko Lanbide Heziketaren garapena azkeneko urteetan bideratu duten helburu estrategikoak berrikustea. Horretarako, ordea, Lanbide Heziketako Euskal Planaren helburuak eta edukiak egokitu eta eguneratu behar dira, orain arte egindakoa berrikusi eta baloratu ondoren. Gainera, helburu, eduki, jarduera eta ebaluazio-irizpide berriak eskatuko dituzten esparru berrietan sartu behar du Lanbide-Heziketak.

2004-2007 aldian egin beharreko ekintzak 1997ko Lanbide Heziketako Euskal Planean aurreikusitako helburu estrategikoetako batzuen norabide berekoak izango dira, eta indartu egingo dira hobetzeko eta eguneratzeko politikak, Lanbide-Heziketarako jada interes berezikotzat jotako esparruetan. Alabaina, eredu horretan oinarrituta, beste ekintza batzuei heldu beharko zaie, sustatzeko ageriko premia duten beste hainbat esparru edo arlotan, horiei esker berritu ahal izango direlako aldizka kudeatzeko metodoak, eza-

gutaz jabetzeko sistemak eta, bereziki, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko modua.

Horrenbestez, Lanbide Heziketako Euskal Plana eguneratzeko zeregina ondorengo lerroetan garatuko ditugun lau esparru estrategiko hauetan oinarrituko da.

### Kualifikazioen eta Lanbide- Heziketaren Sistema Integratua eguneratzea eta hobetzea

Gaitasun-estandar jakin batzuk oinarritzat hartuta, Lanbide Kualifikazioen Katalogoaren bidez lan handia egin da hainbat produkzio-sektoretako kualifikazioak definitzeko. Lan hori eska daitezkeen gaitasunak eta horiek lortu nahi dituzten pertsonak ebaluatzeko aplikatu daitezkeen sistemak zehazteko zereginen oinarritutakoa izan da, zehatz esateko. Bi ekintza horien ondorio gisa, gaitasunak aitortzera eta ebaluatzera bideratutako sistema zedarritu da. Aipatutako sistema hori





abian jartzea garrantzi handiko helburu estrategikoa da Lanbide-Heziketako sistema integratua garatu ahal izateko. Horrexegatik da hori berariazko ekintza-programen bidez zehaztu behar den eguneratu beharreko esparruetako bat.

### **Kalitatea garatzea eta bermatzea sustatuko duten jarduerak eta helburuak zabaltea**

Lanbide-Heziketaren esparruan kalitatearen inguruan izan diren askotariko esperientziei esker, kalitate-ziurtagiriak lortu ahal izan dira, baina, horrezaz gain, talde-hausnarketa sustatu ahal izan da, hobekuntzak bultzatu dira eta kalitatearen kultura zabaldu da. Kalitatea ziurtatzeko prozesuetatik eratorritako hobetzeko proposamenetako askok hautemandako ahultasunak zuzendu ahal izateko egin beharreko ekintzak definitzea ahalbidetu dute. Halaber, alderdi positibo ugari identifikatu eta frogatu dira, eta komenigarria da horiek ezagutzea eta hedatzea, alderdi horiek indartzeko eta sustatzeko.

Horrenbestez, kalitatearen esparru zabalean izandako lehen esperientzien argitara, bistakoa da premiazkoa dela kalitatea garatzea sustatuko duten jarduerak eta helburuak zabaltea. Egiaz, metodologia hurbilerrazagoak eta konplexutasun txikiagokoak ezarri dira eta horrek berekin ekarri du ikastetxe gehiagok eta anitzagoek egitea bat prozesu horrekin. Beraz, Lanbide Heziketako Euskal Plana eguneratzerakoan kalitatea izango da esparru giltzarrietako bat. Horren baitan bereziki garrantzitsu izango dira hobetzeko planen jarraipena, eredu berritzaileak aplikatzea eta aldatzen ari diren premietara etengabe egokitutako eta eguneratutako helburuak sustatzea.

### **Berrikuntzari lotutako kultura dinamizatzea**

Lanbide-Heziketaren inguruko jarduna eten-gabe eguneratzeko premia dela eta, ez da nahikoa izango berrikuntza ekintza puntualen eta izaera finalista duten ekintzen multzotzat jotzea. Izan ere, berrikuntzak ez du mugatu behar Lanbide-Heziketa ekonomiaren eta produktzioaren mailan izandako aldaketen erri-moaren arabera egokitzera. Aitzitik, horien eragile izan behar du, hein handi batean.

Berrikuntza terminoa hainbat eragile eta esparruri dagokio eta estrategiak erakundearen nahiz prestakuntzaren mailan finkatzeko eskatzen du. Bestetik, berrikuntzak eskakizun du eskura dauden bitartekoen erabilera arraizko eta neurgarriari adierazten den hainbat eragileren gogoia eta jarrera aldatzea. Laburbilduz, askotarikoak izan daitezkeen ekintzen bidez identifikatzen da (ekintza horietan teknologiak eskainitako gaitasuna ez da ekintza horiena bakarrik izango, baina bai funtsezko faktore).

### **Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) erabilera sustatzea eta dibertsifikatzea**

Teknologia berriak ikasteko prozesuetan nahiz antolaketaren eta kudeaketaren inguruko prozesuetan aplikatzeko potentzialtasun handiak dituzten tresnak dira, eta potentzialtasun horiek arakatu egin behar ditugu. Horrezaz gain, oso erabilgarri izan daitezke giza kapitala, oro har, eta irakasleak, bereziki, prestatzeko, koordinatzeko eta elkartzeko, baita ikastetxeen, enpresen eta, oro har, gizartearen arteko harremanen kalitatea hobetzeko ere.



Edonola ere den, esan berri dugun hori guztia ezingo da gauzatu lortu nahi diren helburuak zehaztuko dituen, teknologia berriak dagokion esparrura egokitzeke ahalegina egingo duen eta, azken finean, tresna besterik ez direnak egoki erabili ahal izateko beharrezko diren trebetasunak garatzea ahalbidetuko duen esparru-planik ezean.

Aipatu berri ditugun lau esparru estrategiko horiek aintzat hartuta, 2004-2007 aldiari dagokion Lanbide Heziketako Euskal Plana hainbat programa, esparru eta helbururen arabera antolatuta da, betiere hiru urteko epean, 2004-2007 urteen artean, garatzeko xedearekin. Programa horiek, ahal dela, definitutako esparru estrategiko horietako bakoitzari lotutakoak izango dira eta Lanbide-Heziketaren eremuan elkarrengaitzen duten eragileen arteko lankidetzaz sustatuko dute.

Lanbide Heziketako Euskal Planaren eguneratzea programen arabera antolatzea ekin-tzen multzo koherente bakoitza berori identifikatuko duen izenaren baitan biltzeko printzipioari zor zaio. Gisa horretan ongi baino hobeto definitutako jarduera-nukleoak sortu dira eta horietara bideratu beharko da Lanbide-Heziketaren esparrua osatzen duten eragileen ekintza.

Programa horien bidez erraz identifikatzeko moduan eguneratu nahi dira Lanbide Heziketako Euskal Planaren helburuak, denboraren arabera antolatuta eta ebaluatzeko moduan adierazita. Programak jada definitu diren esparru estrategikoetan banatuko dira eta programa horiek memoria ekonomikoa izango dute osagarri, berori gauzatzeak ekarriko duen kostua gutxi gorabehera zenbatetsi ahal izateko.

The background features a solid blue color with several thin, white, intersecting lines in the upper-left quadrant, creating a geometric pattern of triangles and polygons.

# 1. ESPARRU





# I. ESTRATEGIKOA



# 1. ESPARRU ESTRATEGIKOA

## 1. KUALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE-HEZIKETAREN SISTEMA INTEGRATUA EGUNERATZEA ETA HOBETZEA

### Kualifikazioetako eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua

Euskal Autonomia Erkidegoko Kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren Sistema Integratua garatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoa gizarte kualifikatuan eta etengabeko ikaskuntzan murgiltzearen ondorioz izango ditugun zeregin berriei heltzeko, ezinbestekoa izango da aipatutako sistemaren inguruko erabakiak hartzerakoan dagokien ardura hartzea beren gain erakundeek, enpresaburuek, sindikatuek eta ikastetxeek, hori dagoeneko ezin baita lortu gaur egun parte hartzeko ditugun erakundeen bidez.

Hortaz, nahitaezkoa izango da Kualifikazioetako eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseilu berria sortzea, izaera publikoa izango duena, prestakuntza-politikak finkatzeko eta diseinatzeko eskumena izango duena eta Eusko Jaurlaritzaren Lanbide-Kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren inguruko politika zehazten lagunduko duena. Horrezaz gain, erakunde horren ardura izango da politika hori produkzio-sistemaren garapenak eta enpleguen premiek eskatzen duten kualifikazio- eta prestakuntza-premietara egokitzen dela ziurtatzea.

Bide beretik, gaur egun badira gizarte-eragileen ardura ere (erakundeen bidezkoa) eskatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko Kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren Sistemaren hainbat funtzio, sistema hori garatzen dela bermatzeko, hain zuzen ere. Hori gertatzen da produkzio-sektoreetako prestakuntzaren eta kualifikazioen inguruko proposamenak eta eskaerak sektore eta lurraldeen arabera bideratzeko garaian edo Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-kualifikazioetan barne hartu behar diren lanbide-gaitasunen estandarrak identifikatzeko eta formulatzeko garaian.





Kualifikazioak eta Lanbide-Heziketa garatzeko eta kualifikazioen, prestakuntzaren eta lanbide-orientazioaren inguruko premiak asetzeko, nahitaezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak dituen helburu, xede eta emaitzen berri emango duen eta horiek euskal gizarteari helaraziko dizkion tresna izatea eskura.

Halaber, biztanleria aktiboaren lanbide-kualifikazioen mailen plangintza egiteko eta lanbide-prestakuntza eta -orientabidearen inguruko premiak asetzeko, aurretiko ezinbesteko urratsa izango da egun ez ditugun zenbait datu izatea eskura, egun ditugun datuetako asko ez baitaude osatuta eta ez baitira sistematikoki jaso.

Amaitzeko, ezinbestekoa izango da informazioa eta datuak sistematikoki argitaratzea (datu horiek ez ditugu gaur egun), erakunde politiko eta sozialek Euskal Plana zentzuzko aplikatzen duten jarraitu eta kontrolatu ahal izateko eta gizarte osoari emateko prestakuntzaren eta kualifikazioen inguruko eskaintza eta zerbitzuen oinarritzko alderdien berri.

### Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokia

Honakoak izan dira behatokiaren zeregin nagusiak: batetik, merkatuan gehien eskatzen diren lanbideei eta lanei buruzko informazioa ematea, batez ere informazio kuantitatiboa, eta bestetik, prestakuntza-premien inguruko zenbait azterlan egitea.

Haatik, enplegu-politika aktiboa ezartzeko nahiz gazteen lanbide-prestakuntza produktzioaren eta lan-merkatuaren eskakizunetara gehiago egokitzeko, nahitaezkoa da behatokiaren behaketak eta azterlanek izaera estra-

tegikoagoa izatea. Horiek, gainera, honakoak hartu behar dituzte barne: batetik, lanbide-figura mota jakin batzuek merkatuan duten portaera behatzea, batez ere ikuspegi kuantitatibotik, eta bestetik, lanbide-kualifikazioak finkatzeko garaian erabakitzaileen diren produktio-sektoreen alderdiak aztertzea.

Amaitzeko, behaketa gazteak lan-munduratzeko prozesuetara ere zabaldu behar da, hasierako prestakuntzak (arautuak nahiz arautu gabek) eskaintzen dituen kualifikazioak aipatutako eskakizunetara zentzuzko egokitzen diren ikusi ahal izateko.

### Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua

Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioak eta kualifikazioei lotutako prestakuntza-katalogoa prestatu ditu, gizarte-eragileekin lankidetzan eta 1998-2002 aldiko Euskal Planean ezarritakoari jarraiki, euskal ekonomian esanguratsuak diren sektoreen multzo batean.

Kualifikazioak prestatzeko gaur egun erabiltzen den metodoa egonkortu ostean (metodo hori produktio adituen esku-hartzearen bidez gaitasun-estandarrik identifikatzean/zehaztean oinarritzen da), ikerketa-ildo estrategikoagoa proposatzeko unea iritsi da, enpresetan produzitzeko moduek izan duten bilakaera eta, horrenbestez, lanbide-kualifikazioak aldatzeko bektoreak zehaztu ahal izateko. Gaur egungo metodoa osatzearekin batera, kualifikazioen bilakaera-ildoak zehaztea ahalbidetu behar du I+G+B horrek, gisa horretan neurri batean behintzat aurrea hartu ahal izateko aldaketek eta horien iraunaldia luzeagoa izan dadin. Horrek, gainera, aukera eskainiko digu sistematikoki hartzeko barne

gaur egun kualifikazioak prestatzeko metodoaren bidez nekez hauteman daitezkeen lanbide-alderdiak.

Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak Behatokiaren laguntza izango du merkatuak eskatzen dituen kualifikazioen aldaketa kualitatiboak zehazteko garaian (produktzio-moduen aldaketen antzera, horiek ere eragina dute kualifikazioen bilakaeran), baita hasierako prestakuntza (arautua nahiz arautu gabea) enpresen eta enpleguaren eskakizunetara hobeto egokitze-ko garaian ere.

### Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia

Lanbide Heziketako Euskal Planak hiru lan-esparru egozten zizkion agentziari. Hona hiru horiek: Lanbide-Heziketaren kalitatea, gaitasuna aitortzea eta ebaluatzea eta berori egiaztatzea.

Hiru esparru horiek beren zereginak gauzatu dituzte eta hainbat ekintza, mekanismo eta proiektu jarri dituzte abian zenbait kasutan eta prestatu beste hainbatetan, hain zuzen ere, ondorengo helburuekin: batetik, Lanbide-Heziketaren zati diren prozesu guztien kalitatea sendotzeko eta, bestetik, Europako herrialderik aurreratuenetan proposatutako proiektu garrantzitsuenetako bat jartzeko abian. Ikaskuntza ez formalak edo informalak aitortzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemaz ari gara.

Euskal Autonomia Erkidegoan sistema hori abian jartzea da aldi honetarako lehentasunetako bat, izan ere, prestakuntzaren malgutasuna eta hurbiltasuna eta aipatutako



ikaskuntza ez formal edo informal horien garrantzia eta protagonismoa funtsezkoak izango dira honako helburu nagusia lortzeko: lana, ikaskuntza, familiarako bizitza eta aisia uztartzea. Helburu hori da, hain justu, ezagutzaren gizarte berrian pertsonen protagonismoa sustatzeko xedearekin Europako Batzordeak definitu duen zutabe funtsezkoetako bat. Helburu hori lortzeko, halabeharrezkoa izango da gizarte-eragileen parte-hartzea eta lankidetzak, Lanbide-Heziketako lan-munduekin dituen lotura eta harremanak kontuan izanik.

### Lanbide-Heziketako ikastetxe integralak

Ikastetxe integralen funtzionamenduari dagokion esperientzia oso positiboa denez, egokia litzateke ikastetxe horien kopurua handitzea eta horiek gehiago garatzea. Ikastetxe horien lehentasunezko funtzioa –prestakuntza-egitura beraren baitan eskaintzea Lanbide-Heziketako modalitate guztiak– oso lagungarria izan da Lanbide-Heziketako azpisistemaren arteko iragazkortasuna, koordinazioa eta integrazioa ahalik eta errealean eta lortzen errazena izan dadin. Gainera, helburu horrek are oinarri sendoagoa du, kontuan hartzen badugu kualifikazioei lotutako prestakuntza bakarra ezartzeko ikuspegia. Horri dagokionez, aipatzeko modukoa da gisa horretako ikastetxeetan gertatzen den giza baliabideen eta baliabide didaktiko eta teknologikoen

LANBIDE  
HEZIKETAKO  
MODALITATE  
GUZTIAK ESKAINTZEA  
OSO LAGUNGARRIA  
IZAN DA LANBIDE  
HEZIKETAKO  
AZPISISTEMEN ARTEKO  
IRAGAZKORTASUNA,  
KOORDINAZIOAREN  
HELBURUA  
LORTZEN





LANBIDE HEZIKETAKO  
EUSKAL PLANA  
2004-2007

IKASTETXE INTEGRAL HORIEK  
LEKU APROPOSASAK DIRA IRAKATSI  
ETA IKASTEKO PROZESUEN,  
KUDEAKETA-EREDUEN,  
TEKNOLOGIA BERRIEN  
APLIKAZIOEN EDO FABRIKAZIO  
AURRERATUAREN INGURUKO

# I+G+Bko

PROIEKTUAK GARATZEKO



kontzentrazio pribilegiatua dela hainbat prestakuntza-eskaintza integratzearen ondorio nagusia. Hori dela eta, ikastetxe horiek prestatuta egongo dira kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren sistemari begira zalantzan jarri ezineko garrantzia duten bestelako funtzioak ere hartzeko beren gain.

Horrezaz gain, ikastetxe integratuak eszenatoki ezin hobekak dira Lanbide-Heziketaren esparruko esperientzia-trukea aberatsa izan dadin. Prestakuntza-eritmo eta -premia desberdinak dituzten taldeei bideratutako prestakuntza-modalitateak eskaintzen dituztenez, ezinbestekoa da Lanbide-Heziketako hainbat ekintza bateratzea ikastetxe horietan. Eta horietan nahitaezkoa da ekintza horiek egiaztatzea eta ebaluatzea. Horri dagokionez, ikastetxe integral horiek leku aproposak dira irakatsi eta ikasteko prozesuen, kudeaketa-ereduen, teknologia berrien aplikazioen edo fabrikazio aurreratuaren inguruko I+G+Bko proiektuak garatzeko.

Gainera, aurreko planak berak zioenez, ikastetxe integralak ezinbesteko euskarri ditugu kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren sistema integratu batek eskatzen dituen Lanbide-Heziketako irakasleak prestatzeko eta kualifikatzeko egitura egonkorra ezartzeko. Funtzio erabakitzaile hori lanbide-arlo bakoitzerako erreferentziako ikastetxe gisa hautatutako ikastetxe integralei egotziko zaie ahal dela.

Aipatzekoa da ikastetxe horiek erreferentziako ikastetxe gisa duten funtzioa, Lanbide-Heziketako ikastetxeek enprekin eta dagozkien espezialitateetako lantokiekin izan behar dituzten harremanei dagokienez.

Bestalde, Lanbide-Heziketak izan duen garapenaren eta aurrerabidearen argitara eta dagoeneko aurreikusten diren premiak kon-tuan izanik, nahitaezkoa da ikastetxe horiek



gaur egungo eta etorkizuneko eskakizunen arabera antolatzeko eta funtzionatzeko esparrua sortzea. Horrek berekin dakar une oro proposatzen diren plan estrategikoak aurrera ateratzeko funtzionamendu ona, antolaketa eta kudeaketa malgua eta eraginkorra eta finantziario egokia bermatuko dituen ezinbesteko araudia sortzeko premia, berehala ase beharreko premia.

Halaber, garrantzitsua da arau horrek berak argi eta garbi adieraztea zein garrantzizkoa den ikastetxe integral horien funtzionamendua gardena izatea. Horretarako, ikastetxe horietan parte hartzeko organoa sortu behar da. Bertan gizarte-eragileek hartu ahal izango dute parte eta, gainera, ikastetxe integralekin batera esku hartu ahal izango dute horietako bakoitzean ezarritako plan estrategikoak garatzeko, aplikatzeko, horien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko zereginetan.

### Lanbide-Heziketa irakasten duten ikastetxeak

Lanbide-Heziketa Euskal Autonomia Erkidegoan izaten ari den gorakada ikusita, nahitaezkoa da eskaintza zabala, anitza eta malgua bermatuko duten ezinbesteko bideak ezartzea eta une oro erantzutea gure produktio-sektoreen premiei, horien lehiakortasunari begira, baita pertsonen premiei begira ere, kasu honetan enplegua lortzeko aukerari erreparatuta.

Horrek esan nahi du izan daitezkeela Lanbide-Heziketa irakasten duten ikastetxeak, hezkuntza-sistemaren mendekoak direnak, baina ez daudenak ikastetxe integralen sarearen baitan. Garrantzitsua da ikastetxe horien eta eskualde bakoitzeko ikastetxe integralen arteko harremanak ziurtatzea, zonalde bakoitzean eskaintza zabala eta plangintza egokia

eduki ahal izateko eta baliabideak behar bezala erabili ahal izateko. Hori eginez gero, ikastetxerik indartsuenek gainerako ikastetxei lagundu ahal izango diete hainbat ekintzatan. Gainera, horiek funtzionamenduari zerikusia duten kanpoko nahiz barneko alderdiak hobetu ahal izango dituzte. Horretarako, ordea, beharrezkoa da Lanbide-Heziketaren esparruan proposatzen diren erronkei aurre egin ahal izateko ezinbesteko baliabideak bermatzea.

### Lanbide Kualifikazioen Katalogoa garatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioen Sistema 1997-2003 aldiko Euskal Planean ezarri zen. Orduetik hainbat produktio-sektoretako lanbide-kualifikazioak prestatu ditu Kualifikazioen Euskal Institutuak, gizarte-eragileen lankidetzarekin betiere. Dagoeneko definitutako Lanbide-Kualifikazioek gizartearen izan duten onarpena ikusita, 2004-2007 aldirako Euskal Plan berriak Kualifikazioen Katalogoa garatuko du. Hori egiterakoan izandako esperientziak erakutsitako zenbait hobekuntza egingo dira.

Sistema garatzeko, lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko produktio- eta ekonomia-jarduerari lotutako gainerako sektoreetara zabalduko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioen Sistema ezartzetik eratorritako hobekuntzak, pertsonentzat nahiz produktio-sistemarako lortutako hobekuntzak, hain zuzen ere. Horrez gain, benetan garrantzitsua da oso kontuan izatea 1. mailako kualifikazioak garatzeko bidean aurrera egiteko premia, eta ez ahaztea kualifikazio horri lotutako prestakuntza, horrek ahalbidetuko baitu teknikari erdi-kualifikatuaren ziurtagiria lortzea. Hori eginez gero, pertsona askori eskaini ahal izango



diegu arreta eta horiek beren gaitasun eta lanbide-kualifikazioen maila hobetu ahal izango dute. Gainera, bide beretik, premia bereziak izan ditzaketan taldeei ere eskaini ahal izango diegu arreta.

Bigarrenik, jakin badakigunez, gaitasuna produkzio-testuinguru anitzetara zabaltzeko ahalmena eta produkzio-prozesuetan gertatzen ari diren aldaketan ondorioz gaitasun hori gero eta maizago eguneratzeko premia direla eta, gero eta garrantzi handiagoa du etengabe ikasteko gaitasunak eta oinarriko ezagutza eta gaitasunak izateak. Hortaz, nahitaez hartu behar dira barne Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-kualifikazioen baitan aipatutako prestakuntza hori zehaztuko duten gaitasun-atalak.

### Prestakuntzako Modulu-Katalogo Integratua

Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua Kualifikazioen Sistemari lotutako prestakuntzako modulu-katalogo integratua ari da prestatzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Kualifikazioek zehazten duten lanbide-gaitasuna lortzeko prestakuntza diseinatzeko orientabidea zehazteko eta, aldi berean, Lanbide-Heziketako azpisistemen esparruan irakasten diren prestakuntza-eskaintzen arteko koordinazioa hobetzeko xedearrekin.



Lanbide-kualifikazioen sistemarekin gertatzen den modu berean, dagoeneko modulu-katalogoa osatzen duten moduluak prestatzeko garaian lortutako esperientzian oinarrituta, ezinbestekoa da sisteman barne hartuko diren kualifikazio berriei lotutako prestakuntza hartzea barne katalogoan, oraingoan 2004-2007 aldirako Euskal Planaren baitan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioen Sistemari sartu diren zeharkako gaitasun-atal berriei bat etorritik, modulu-katalogoaren prestakuntza-eremuak jakintzarik berrietara zabaltzeko behar dira, arlo horietan produkzio-moduak etengabe aldatzea eta etengabe ikasteko gaitasunak jabetzea eskatzen baitute gaur egun.

### Gaitasuna aitortzea eta ebaluatzea

Produktio eta enpleguaren premietan oinarritutako lanbide-kualifikazioak ezartzea eta langileen gaitasunak kualifikazio horiek osatzen dituzten gaitasun-atalen arabera aitortzea oso lagungarri izan daitezke lan-merkatuaren garrantzutasuna areagotzeko eta enpresek informazio gehiago izateko beren giza baliabideen potentzialtasunari buruz.

Baina, ziurrenik, aipatutako prozesua ezartzearen bidez biztanleria aktiboaren kualifikazioa hobetzea izango da biztanleria aktibo horren gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeko prozesua sustatzeko eta horiek Kualifikazioen Sistemaren ziurtagiriaren bidez gauzatzeko justifikaziorik garbiena. Langileek dagoeneko baduten lanbide-ondarea aitortuz eta kreditatuz nahiz langileek prestakuntza-prozesu formalen zein ez formalen bidez –prestakuntza hori dagokion titulua edo ziurtagiri lortzea bideratutakoa izango da eta merkatuan entzutetsu diren lanbide-kualifikazioen arabera zehaztuko da– lortuko duten lanbide-gaitasuna egiaztatuz,

kualifikazioa hobetzeko eskakizunik erabakitzaileena lortuko genuke: biztanleria aktiboa motibatzea lanbide-prestakuntzaren maila handiagoaz eta hobez jabetzeko.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria aktibo osoaren lanbide-gaitasuna aitortzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko plana ezartzeko premia lehen mailakoa izango da, horrek hobekuntza handiak ekarriko dituelako berekin, hain zuzen ere, langileen lanbide-kualifikaziorako, lan-merkatuan lan-egonkortasuna eta -eskaria egokitzeko, enpresetan giza baliabideen kudeaketa hobetzeko eta, bereziki, langileek aspalditik duten gizarte-xedea lortzeko.

### Gaitasuna Aitortzeko eta Ebaluatzeko Sistema

Gaur egun honakoien bidez aitor eta ebalua daiteke biztanleria aktiboaren gaitasuna: batetik, titulu edo egiaztagiria akademikoaren nahiz langileek lortzen dituzten laneko administrazioaren tituluen bidez, eta bestetik, kualifikazioen sistemaren prestakuntzako modulu-katalogoari lotutako ikastaroetako aprobetxamendua dela eta egiten diren ziurtagirien bidez. Hori dela eta, gaur egun oraindik ez dugu prozedura egokirik biztanleria aktiboari ofizialki eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kualifikazioen Sistemaren esparruan aitortzeko lanean edo/eta ikasteko eta prestatzeko beste edozein prozesutan lortutako gaitasuna.

Haatik, lanaren eskaintza eta eskaria bat ez etortzearen ondorioz lan-merkatuak garrantzitsun ez izateak eragindako arazoak eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna etengabe hobetzeko eskatzen duten biztanleria aktiboaren kualifikazioa planifikatzeko eta hobetzeko xedek direla eta, ezinbestekoa da

gaitasunak aitortzeko eta ebaluatzeko zereginak aipatutako biztanleria horren ikaskuntza guztietara zabaltzea, formaletara nahiz ez formal edo informal diren etara, alegia.

### Sistema Integratuaren jarraipena eta ebaluazioa

Kualifikazioaren, Prestakuntzaren eta Lanbide-Orientazioaren Sistema baten kalitatea hobetu ahal izateko, ezinbestekoa da sistemaren osagai guztiak –Lanbide-Heziketako sistema, kualifikazioen sistema eta lanbide-informazio eta -orientabiderako sistema– ebaluatzeko planak ezartzea. Gaur egun Lanbide-Heziketako ikasketxeak etengabe hobetzeko prozesuan daude murgilduta, ISO eta EFQM arauetan oinarritutako erabateko kalitateko kudeaketa-sistemak pixkana ezartzearen bidez. Hori dela eta, behar bezala ari dira egiten irakatsi eta ikasteko prozesuen eta horien funtzionamenduaren eta kudeaketaren inguruko kalitate-faktoreak egokiak direla ziurtatzen dizkiguten ezinbesteko autoebaluazioak nahiz kanpoko kontrolak.

Horrez gain, nahitaezkoa da kualifikazioen sistemaren kalitate-faktoreak ezagutzea (kualifikazioen katalogoa identifikatzeko eta formulatzeko prozesua, modulu-katalogoa prestatzeko prozesua eta abar). Hortaz, horiek guztiak ebaluatu behar dira ezinbestean. Gainera, beste horrenbeste egin behar da lanbide-informazio eta -orientabiderako sistemaren kalitate-faktoreen kasuan ere.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren sistema integratuak zein garapen-maila erdietsi duen ikusita, nahitaezkoa da kalitate-mailen inguruko berri emango diguten faktore guztiak ebaluatzea. Ebaluazio hori hiru hilean behin egingo da. Hala ere, Jaurlaritzak beste zeinahi ekintza ere egin ahal izango du horren

KUALIFIKAZIOAREN,  
PRESTAKUNTZAREN ETA  
LANBIDE-ORIENTAZIOAREN  
SISTEMA BATEN  
KALITATEA HOBETU  
AHAL IZATEKO,  
EZINBESTEKOA DA  
SISTEMAREN OSAGAI  
GUZTIAK EBALUATZEKO  
PLANAK EZARTZEA

HORREK GUZTIAK  
ESKAKIZUN DU  
IRAKASLEEN  
EZAGUTZA ETA  
GAITASUNA ETENGABE  
HOBETZEA ETA  
EGUNERATZEA

inguruan. Zeregin horretan Kualifikazioetako eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua izango da buru.

### Irakasleen prestakuntza

Lanbide-Heziketako irakasleen prestakuntzari eraginkortasunez heltzeko eta, bereziki, irakasleen prestakuntza etengabeko prestakuntzaren bidez eguneratzeko premiari erantzun ahal izateko, ezinbestekoa da prestakuntza-egitura irmoetan oinarritzea bere osotasunean Lanbide-Heziketako irakasleak prestatzeko eta kualifikatzeko sistema (hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza). Hori dela eta, zentzuzkoa litzateke irakasleak prestatzeko egitura edo ikastetxe horiek nolabaiteko espezializazio-mailaren arabera garatzea, lanbide-arloen arabera, alegia. Gisa horretan, gainera, dagokion produkzio-sektoreko puntako teknologiako enpresekiko etengabeko harremanak eta lankidetzak bermatuko dira, baita espezialitatearekin zerikusia duten unibertsitate-zentrotan eta institutu teknologikoekikoa ere.

Produkzio-sektoreen aurrerapena, horien bila-kaera azkarra eta kualifikazio-maila handiko giza baliabideen premia gero eta beharrezko-agoa direla eta, Lanbide-Heziketako ikasleen prestakuntza aldarokorra izango da, egiturari, formei eta edukiei dagokienez. Horrek guztiak eskakizun du, ordea, etengabe hobetzea eta eguneratzea irakasleen ezagutza eta gaitasuna, eta horretarako hainbat prestakuntza-mota diseinatu beharko dira, horien premia eta iguripenei egokituta, betiere horien gaitasuna hobetuko dela bermatu ahal izateko.

Bestalde, kualifikazioei lotutako prestakuntza –hori, bistan denez, Lanbide-Heziketako azpisis-temetako hainbat prestakuntza-eskaintzaren bidez irakatsiko da– ezartzeko eta garatzeko esparruari dagokionez, logikoa li-

tzateke eskura dauden prestakuntza-baliabi-deak (hasierako prestakuntzarekin zerikusia dutenak nahiz etengabeko prestakuntzari lotutakoak) gehitzea edo hartzea barne, horien errendimendua eta eraginkortasuna optimizatze aldera.

Horrez gain, tradizioz hasierako prestakuntzari eskaini izan zaion arreta alde batera (horrek beste prestakuntza-jarduera batzuk izaten zituen osagarri), Lanbide-Heziketako irakasleen prestakuntzak eta kualifikazioak helburu egonkor eta iraunkorra izan behar du, hasierako prestakuntzaren eskakizunak baino harantzago. Egonkortasun hori Lanbide-Heziketako irakasleak prestatzeko eta kualifikatzeko sistema integratuaren beste ezaugarri bat da, garrantzitsua gainera.

Hortaz, irakasleak prestatzeko eta kualifikatzeko sistema integralak prestakuntza-egituraren sare irmoa baino zerbait gehiago izan behar du. Ez dirudi inor etengabe eguneratzea eta prestatzea behar daitekeenik. Aitzitik, badirudi jendea horretara bideratu behar dela edo horretarako motibatu behar dela, eraginkor izan nahi badu behintzat. Horretarako, garrantzitsua litzateke sistemak Lanbide-Heziketako irakasleak etengabe ikasteko prozesuan sartzea ahalbidetuko duten pizgarriak izatea. Garrantzizkoa izango da irakasleen prestakuntza hori ez izatea, ahal den neurrian behintzat, lanari gehitutako zeregina. Hori dela eta, arrazionalizatzeko mekanismoak ezarriko dira, lana eta prestakuntza bateragarri izan daitezten.

### Etengabeko prestakuntza

Europar Batasunak biztanleria aktibo osoa etengabeko prestakuntzan murgiltzeko xedea ezarri zuen. Alabaina, helburu horrek berekin dakar hori egin ahal izateko beharrezkoak diren prestakuntza-baliabideei

ezinbestean erreparatzea. Horri dagokionez, ia ezinezkoa da tradiziozko prestakuntza-tresnekin (bertaratzea eskatzen duten metodoetan oinarritutakoekin) erantzutea etengabeko prestakuntzari lotutako prestakuntza-eskaintza potentzialei, nahiz eta nabarmen areagotu gaur egun eskura ditugun baliabideak.

Bestalde, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia zenbateraino berri diren ikusita eta horiek gero eta gizarte-sektore gehiagotan sartzen ari direla kontuan izanik, urrutiko prestakuntza-metodologiak eta -tresnak ari dira garatzen, eta horiei esker bideragarri eta egingarria izan liteke etengabeko prestakuntzaren helburua.

Haatik, gaur egun, urrutiko unibertsitatearen kasu berezi batzuk salbu, oraindik urriak dira «urrutiko» metodo eta didaktiketan oinarritutako prestakuntza-eskaintzak eta -programak, eta horiek, gainera, esperimentalak izaten dira kasu gehienetan. Hori gertatzen da prestakuntzan oro har, eta zer esanik ez Lanbide-Heziketaren kasuan.

Eztabaidagarria izan liteke urrutiko irakaskuntza ote den irakatsi eta ikasteko prozesuak garatzeko eszenatoki didaktikorik onena. Baina, edonola ere den, hori da bideragarrietako bat, biztanleria aktiboaren zati handi batek dituen ordutegi-aukera eta ezaugarriak kontuan hartuta. Gaur arte urrutiko prestakuntzak metodo didaktiko gisa nahikoa balio eta eraginkortasun dituela egiaztatu du ia prestakuntza-esparru guztietan, baita Lanbide-Heziketaren esparruan ere. Eta ziurrenik, Lanbide-Heziketa arautuaren esparruan izango dira bateragarri kalitatezko urrutiko prestakuntzak izan behar dituen zorrotasuna eta malgutasuna. Hori lanean ari direnek egin ditzaketen murriztutako prestakuntza-modulu bidez gauza liteke.

Hori dela eta, nahitaezkoa da erakundeek bultzada ausarta ematea urrutiko Lanbide-Heziketa arautua aplikatu eta zabaldu ahal izateko metodologia, material eta ekipamendu didaktikoak garatzeko eta prestatzeko lanari. Horretarako, ongi diseinatutako e-Learning materialak behar dira, prestakuntzaren premia errealak egokitu direnak eta kalitateko prestakuntza-mota berritzailea bermatuko dutenak.

## 2. HELBURU ESTRATEGIKOAK

### 1.1. Helburu Estrategikoa

#### BIZTANLERIA AKTIBOAREN GAITASUNA AITORTZEKO ETA EBALUATZEKO SISTEMA EZARTZEA

##### Helburuak

1. Lan-merkatuaren gardentasuna hobetzea eta lan-eskaintza eta -eskaria hobeto egokitzea.
2. Enpresetako giza baliabideen lanbide-gaitasunaren potentziala hobeto ezagutzen laguntzea.
3. Biztanleria aktiboaren kualifikazio-mailak ezagutzea eta horien plangintza egitea ahalbidetzea.
4. Ikasteko edozein prozesu formal, ez formal edo informalen bidez (Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleria aktiboak titulu edo egiaztagiriren bat lortzera bideratutakoen bidez) lortutako lanbide-gaitasuna aitortzea eta ebaluatzea.
5. Biztanleria aktiboaren gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeko prozesu baliagarri eta fidagarria lortzea.
6. Sistema hau ahalik eta gehien egokitzea, ezintasunen bat dutenek inolako eragozpenik gabe har dezaten parte bertan.

##### Neurriak

1. Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak honakoak prestatu beharko ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko Gaitasuna Aitortzeko eta Ebaluatzeko Sistemari buruzko oinarritzko agiria. Agiri horrek proposamen-izaera izango du eta baliagarri izango da euskarri gisa sistema hori definitzeko eta ezartzeko moduari buruz Kualifikazioetako eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan egingo den eztabaidarako. Honakoak hartuko ditu barne, gutxienez, aipatutako agiri horrek:
  - a) Gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeko prozesuaren eta sistemaren oinarritzko printzipioak (prozesuaren izaera eta funtsezko ezaugarriak, lortzeko metodoak, gaitasuna egiaztatzeko iturriak eta abar).
  - b) Euskal Autonomia Erkidegoko Gaitasuna Aitortzeko eta Ebaluatzeko Sistema osatuko duten eskakizunak eta elementuak.
  - c) Aitortzeko eta ebaluatzeko sistemaren azpiegitura eta giza baliabideak.
  - d) Homologatzeko prozesua eta aitortzeko eta ebaluatzeko zentroak onartzeko prozedurak.
  - e) Sistemaren parte hartuko duten giza baliabideak hautatzeko, prestatzeko eta kreditatzeko prozesuaren ekintza giltzarriak eta deskribapena.
  - f) Gizarte-eragileek eta prestakuntza-eragileek sistemaren izango duten zeregina.
  - g) Euskal Autonomia Erkidegoko Gaitasuna Aitortzeko eta Ebaluatzeko Sistemaren finantziarioa.



2. Lanbide-gaitasunaren ebaluatzaileak eta egiaztatzaileak prestatzeko eta kreditatzeko programa prestatzea eta gauzatzea. Honakoak hartuko ditu barne:
  - a) Barneko ebaluatzailearen eta egiaztatzailearen gaitasun-atalak prestatzea (hau da, biztanleria aktiboaren gaitasuna ebaluatzeko eta egiaztatzeko kreditazio ofiziala jasoko duten pertsonak izan behar duten lanbide-gaitasunaren estandarrak).
  - b) Baimendutako ebaluatzaileen eta egiaztatzaileen kopurua eta atxikitzea.
  - c) Agentziak hautatutako ebaluatzaileak eta egiaztatzaileak prestatzeko plana prestatzea.
  - d) Agentziak aipatutako prestatzeko plana gauzatzea.
  
3. Gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeko zentroak homologatzeko prozedura diseinatzea. Honakoak hartuko ditu barne:
  - a) Biztanleria aktiboaren gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeko zentroek bete behar dituzten eskakizunak zehaztea.
  - b) Sisteman parte hartuko duten zentroyen kopurua eta mota.
  
4. Aurreikus daitekeenez gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeko beharrezko izango den agiri-euskarria prestatzea eta gauzatzea. Honakoak hartuko ditu barne, gutxienez:
  - a) Ebaluatzailearen eta egiaztatzailearen barne-eskuliburua prestatzea.
  - b) Biztanleria aktiboaren gaitasuna, ikasteko eta prestatzeko edozein prozesuren bidez lortutakoa (Kualifikazioen Sistemako egiaztatzea lortzeko hautagaiek aurrez izandako lorpenak), ebaluatzeko gida prestatzea.
  - c) Langileei «gaitasunen karpeta» prestatzen lagunduko dien gaitasun-atala prestatzea.
  - d) Ebaluazioaren agiri-euskarri osoa prestatzea (erereduzko probak, ebaluazioaren dokumentazio-sistema...).

## 1.2. Helburu Estrategikoa

### BIZTANLERIA AKTIBOAREN GAITASUNA AITORTZEA ETA EBALUATZEA

#### Helburuak

1. Biztanleria gehiago motibatzea lanbide-kualifikazioaren maila handiagoak lortzeko.
2. Biztanleria aktiboaren lanbide-kualifikazioa hobetzea.
3. Lan-merkatuaren gardentasuna hobetzea eta lan-eskaintza eta -eskaria hobeto egokitzea.
4. Enpresetako giza baliabideen lanbide-gaitasunaren potentziala hobeto ezagutzen laguntzea.
5. Biztanleria aktiboaren lanbide-gaitasuna ebaluatzea eta aitortzea.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeko sistema gizarteak onar dezan sustatzea eta bertan onartzen dela egiaztatzea.

#### Neurriak

1. Biztanleria aktiboaren gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeko ekintzak prestatzea eta gauzatzea.
2. Prozesuan parte hartuko duen biztanleria aktiboa hautatzea eta sailkatzea. Hautatzeko irizpideak (iraupen luzeko langabeak, lanik gabe dauden gazteak, ekonomiaren sektore estrategikoetan lan egiten duen biztanleria eta abar) gizarte-eragileen parte-hartzearekin eza-rriko dira.
3. Hautagai bakoitzari tutorea/orientatzailea esleitzea.
4. Tutoreak/orientatzaileak hautagaien kualifikazioan eta etengabe prestakuntzan aurrera egiteko ekintzak garatzea.
5. Biztanleria langabearen artean hautagaiak hautatzeko irizpideak ezartzeko eta atal honetan aurreikusitako jarduerak garatzeko garaian, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak hartzea parte eta berorrekin koordinatzea.
6. Hautagaiek beren tutore/orientatzailearen laguntzarekin prestatzea beren lanbide-gaitasuna kreditatzeko beharrezko dokumentazioa.
7. Gaitasunen karpeta ebaluatzea Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak baimendutako ebaluatzaileek. Hala badagokio, egoki irizten dituzten ebaluazio-probak egingo dituzte lanbide-gaitasuna aitortzeko eta Ebaluatzeko Sistemaren baitan homologatutako ebaluatzeko zentroetan.
8. Tutore/orientatzaileak prestakuntza-plana prestatzea hautagai bakoitzari, berorrek lortu nahi dituen eta lor ditzakeen lanbide-kreditazioko helburuak erdietsi ahal izateko.
9. Prestakuntza-planaren bidez lortutako gaitasuna ebaluatzea eta, hala badagokio, egiaztatzea Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak baimendutako zentroek.



### 1.3. Helburu Estrategikoa

## LANKIDETZARAKO ERAKUNDE ORGANOAK INDARTZEA. KUALIFIKAZIOETAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL KONTSEILUA

### Helburuak

1. Kualifikazioetako eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluari ahalmena ematea lanbide-kualifikazio eta -prestakuntzaren inguruko politikak eta helburuak (pertsonek, produkzio-sistemen eta lan-merkatuaren kualifikazio- eta prestakuntza-premiak aseko direla ziurtatuko dutenak) finkatzeko eta diseinatzeko.
2. Bere funtzioak betetzeko gaitasun teknikoaz hornitzea Euskal Kontseilua.
3. Gizarte-eragileek eta ikastetxeek lanbide-kualifikazioen eta -heziketaren inguruko politika zehazteko zereginean parte hartzen dutela bermatzea eta politika hori produkzio-prozesuen eta enpleguaren garapenak eskatzen dituen kualifikazio-premiei lotzea.
4. Gizarte-eragileek Lanbide Heziketa Euskal Planaren hurrengo bertsioak prestatzeko eta aplikazioaren jarraipena egiteko zereginetan parte hartzen dutela ziurtatzea.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Kualifikazio, Prestakuntza eta Lanbide-Orientazioko Sistema integratua garatzeko zereginean gizarte-eragileek duten erantzukizuna indartzea, etengabeko ikaskuntzaren bidez gizarte kualifikatua lortzeko xedeari begira.
6. Gizarte-eragileek Lanbide-Heziketako modalitate guztiak garatzeko zereginean eta, bereziki, etengabeko lanbide-prestakuntzaren azpi-sistema garatzeko eta etengabeko prestakuntza ezartzeko zereginean duten erantzukizuna lortzea guztiok batera.
7. Gizarte-eragileek ondorengo zereginetan duten erantzukizuna beren gain hartzen dutela ziurtatzea: langileen kualifikazioa sustatzean, gaitasuna aitoritzean, lanbide-prestakuntza eta -orientazioan, Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio-jardueraren sektore eta lurralde anitzetan eta unean-unean indarrean dagoen araudiaren esparruan.
8. Produkzio-moduak garatzeak eta enpleguaren bilakaerak berekin dakartzaten kualifikazio-premiak identifikatzeko zeregina sustatzea eta/edo zeregin hori gauzatzen dela ziurtatzea.

### Neurriak

1. Kualifikazioetako eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseilu berria sortzea dagokion araudiaren bidez.
2. Euskal Kontseiluaren mende egongo den kualifikazioetako eta Lanbide-Heziketako Sektore-Batzordea sortzea euskal ekonomiarako garrantzitsuen diren produkzio-sektoreetan. Hori izango da lanbide-prestakuntza eta -kualifikazioaren inguruko proposamenak eta eskariak bideratzeko eta kontseiluaren politika gauzatzeko organoa, dagokion sektorean betiere.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio-jardueraren sektore bakoitzean lanbide-gaitasunaren inguruko estandarren batzordea sortzea. Batzorde horiek kualifikazioetako eta Lanbide-Heziketako sektore-batzordeen mendekoak izango dira funtzioei dagokienez eta Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuaren mendekoak alderdi teknikoei dagokienez. Organo horiek arduratuko dira lanbide-kualifikazioetan barne hartuko diren gaitasun-estandarrak identifikatzeaz eta formulatzeaz.

## 1.4. Helburu Estrategikoa

### KUALIFIKAZIOEI ETA LANBIDE HEZIKETARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO HAINBAT BITARTEKO APLIKATZEA

#### Helburuak

1. Kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren sistemako eragile guztiak motibatzen laguntzea, beharrezko helburuak lortu ahal izateko. Horrez gain, gizarte kualifikatua eta etengabeko ikaskuntza lortzeko zereginean euskal gizarte osoaren parte-hartzea ahalbidetzea.
2. Lanbide-prestakuntza eta -kualifikazioaren inguruko politika planifikatzeko informazioa eskainiko duen tresna izatea eskura.
3. Premia guztiei erantzuteko eta horiek planifikatzeko, eta kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren garapena koordinatua izateko oinarriak finkatzea, betiere eskakizun teknologiko, ekonomiko eta sozialen arabera.
4. Beharrezko laguntza eskaintzea kualifikazioaren eta prestakuntzaren plangintzak, Kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren Helburuetan zehaztutakoak, ondoren aipatuko duguna ziurta dezan:
  - a) Biztanleria aktiboaren lanbide-kualifikazioaren mailak egokiak izatea, alderdi kualitatiboei nahiz alderdi kuantitatiboei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan ekonomia- eta gizarte-garapenaren inguruan finkatutako xedeak lortu ahal izateko.
  - b) Ikastetxe publikoen eta itunpekoen kopurua, tamaina eta kokalekua eta, oro har, prestakuntza-eskaintza eta lanbide-orientazioaren eskaintza nahikoak izatea kualifikazio-premiak eta gizarte-eskariak ase ahal izateko.
  - c) Biztanleria aktiboaren lanbide-gaitasuna ebaluatzeko eta egiaztatzeko eskariei erantzutea.
  - d) Kualifikazioek eta Lanbide-Heziketak garapen teknologiko, ekonomiko eta sozialaren premiei egokituta jarraitzea.

#### Neurriak

1. «Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko bi urtean behingo txostena» prestatzea eta argitaratzea.
2. «Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko bi urtean behingo estatistika» prestatzea eta argitaratzea.

Datu-bilketak eta horretarako prozesuak aukera eskaini behar dute bildutako datuak eta informazioa kualifikazioak eta Lanbide-Heziketa planifikatzeko, antolatzeko eta horien inguruko orientabidea eskaintzeko erabili ahal izateko, betiere ezarritako jarraibideak eta ardurak aintzat hartuz.

Kualifikazioei, prestakuntzari eta lanbide-orientazioari buruzko informazioak eta estatistikak honakoak hartuko dituzte barne ezinbestean:

  - a) Kualifikazioen Sistemari Buruzko datuak eta informazioa.
  - b) Kualifikazioen izaerari eta bilakaerari buruzko datuak eta informazioa.
  - c) Lanbide-Heziketari (berorren modalitate guztiei) buruzko datuak eta informazioa.
  - d) Lanbide-orientazioari buruzko datuak eta informazioa.
  - e) Prestakuntzaren eta enpleguaren arteko harremani buruzko datuak eta informazioa.

## 1.5. Helburu Estrategikoa

### LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEAK KUALIFIKATZEKO ETA ETENGABE PRESTATZEKO SISTEMA INTEGRALA EZARTZEA

#### Helburuak

1. Lanbide-Heziketako irakasleak prestatzeko eta hasieran eta etengabe kualifikatzeko sistema egonkorra ezartzea, kualifikazio hori lortzeko prestakuntza-eskakizunak formalki zehaztearen bidez eta prestakuntza-egitura egokiak sortzearen bidez.
2. Goi-mailako teknologiko enpresekiko harremanen bidez, Lanbide-Heziketako irakasleak prestatzeko egiturak etengabe eguneratzen direla bermatzea.
3. Lanbide-arloen arabera integratzea eta optimizatzea Lanbide-Heziketako irakasleak prestatzeko eta kualifikatzeko eskura dauden baliabideak.
4. Irakasleek gaitasunak hobetzea eta eguneratzea, gisa horretan ikasleei ezagutza egokia helarazteko, produkzio-sektoreetako jardueri dagokienez.
5. Pixkanaka ezartzea gaitasunen arabera kudeatzeko sistema, lanbide-profilak ezartzerakoan eta irakasleen prestakuntza diseinatu eta kudeatzerakoan orientabidea eskaintzeko.

#### Neurriak

1. Lanbide-Heziketako irakasleek enpresetan aldizkako egonaldiak egin ditzaten sustatzea.
2. Urtero ezagutza beren lanbide-profilarekin zerikusia duten enpresetan eguneratuko duten irakasleen kupoa ezartzea.
3. Enpresek egonaldiak kreditatzea eta ebaluatzea eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dagokion egiaztagiria ematea.
4. Lanbide-Heziketako irakasleen hasierako prestakuntza eratzeko eskakizunak formalki ezartzea, dagozkien gaitasun-atalak definitzearen bidez.
5. Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpen handiena duten lanbide-arloetako ikastetxe integral bana hautatzea lurraldeko. Hori izango da dagokion lanbide-arloko erreferentziako ikastetxe, irakasleak prestatzeari eta kualifikatzeari dagokienez.
6. Ikastetxe horiei nahikoa baliabide eskaintzea Lanbide-Heziketako irakasleak etengabe prestatzeko eta eguneratzeko zeregina egoki betetzeko.
7. Goi-mailako teknologiko enpresen, ikastetxe horiekin batera lan egiteko kreditatuta eta homologatuta egongo direnen, inbentarioa sortzea, eta enpresa eta ikastetxe horien arteko lankidetzak hitzarmenak sortzea.
8. Beharrezko gaitasunak, irakasleen profiletarako erreferente izango direnak eta beren lanbide-planak diseinatzeko eta kudeatzeko balioko dutenak, definitzea.

## 1.6. Helburu Estrategikoa

### LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRALAK GARATZEA

#### Helburuak

1. Lanbide-Heziketako azpisisitemen arteko iragazkortasuna areagotzea eta horiek egiaz integratzeko prozesuan aurrera egitea.
2. Prestakuntza-eskaintzaren egitura beretik erantzutea Lanbide-Heziketaren eskariaren modalitateei.
3. Parte hartzeko organo bat sortzea, gizarte-eragileek bertan parte hartzeko aukera izan dezaten eta ikastetxe integralekin batera esku har dezaten ikastetxe horietako bakoitzean ezarritako plan estrategikoak aplikatzeko, horien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko zereginen.
4. Lanbide-Heziketako irakatsi eta ikasteko prozesuen kalitatea hobetzea, esperientziak trukatzearen bidez. Horrezaz gain, I+G+Bko proiektuak gara daitezen sustatzea Lanbide-Heziketaren arloan.
5. Hala badagokio, Lanbide-Heziketako irakasleak prestatzeko eta kualifikatzeko egiturei euskarri sendo eta egonkorra eskaintzea, sistematik bere osotasunean dituen premiei erreparatuz.
6. Prestakuntza-sistemaren eta produkzio-sistemaren arteko harremanak sustatzea, dagokion produkzio-sektoreko enprekin lankidetzan.
7. Ikastetxe horiek harremanetan jartzea antzeko arloetako Lanbide-Heziketa irakasten duten eskualde bereko gainerako ikastetxeekin.
8. Lanbide-Heziketako sistema osoa motibatzea bikaintasun-mailak lortzeko prestakuntzari, antolaketzari eta funtzionamenduari dagozkien alderdi guztietan.

#### Neurriak

1. Ikastetxe integralak antolatzeko eta funtzionatzeko beharrezko araudia ezartzea.
2. Ikastetxe integralen kopurua handitzea prestakuntza-egitura horiek ez dituzten lanbide-arloetan.
3. Ikastetxe integral berriak sortzea Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpen handiena duten lanbide-arloetan.
4. Ikastetxe integralen arautzea garatzen duen araudia eguneratzea.
5. Ikastetxe horiei beraiei egotzitako funtzioak bete ahal izateko giza baliabideak eta baliabide materialak eskaintzea (funtzio horien artean ditugu Lanbide-Heziketako hainbat modalitate eskaintzea, irakasleak prestatzeko egitura izatea, Lanbide-Heziketako I+G+B, erreferentzia izatea enpresekiko eta, oro har, dagokion produkzio-sektorearekiko harremanetan...).

## 1.7. Helburu Estrategikoa

### KUALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA INDARTZEA

#### Helburuak

1. Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuari ematea produkzio-prozesuen eta enpresetako lanaren edukiaren ebaluazioa-ri buruzko I+G+Bari heltzeko ahalmena, kualifikazioek produkzio-moduen bilakaerari egokituta jarraitzen dutela ziurtatu ahal izateko.
2. Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuari ematea profesionaltasunaren edukien aldaketei –aldaketa horiek Behatokiak okupazioen aldaketaren inguruan emandako datuek adierazitakoak izango dira eta lan-eskaintzaren eta -eskariaren arteko trukeetan gauzatzen dira– buruzko I+G+Bari heltzeko ahalmena, kualifikazioek lan-merkatuaren bilakaerari egokituta jarraitzen dutela ziurtatu ahal izateko.
3. Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuaren eta Behatokiaren arteko lankidetzeta eta koordinazioa areagotzea kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren esparruan.

#### Neurriak

1. Institutua berari egotzitako I+G+Bko zereginak egin ahal izateko beharrezko giza baliabide eta baliabide materialez hornitzea.
2. Behatokiaren laguntzarekin, Institutuak urteko jardueren plana egitea. Bertan zeregin berriei heltzeko baliabideak eta epeak zehaztuko dira.
3. Institutuak berari egotzitako I+G+Bko jardueren jarraipena eta kontrola egiteko txostenak prestatzea eta Kualifikazioetako eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluari bidaltzea.
4. Gutxienez urtean 4 bilera egitea KEI eta Behatokiaren artean informazioa trukatzeko eta koordinatzeko.

## 1.8. Helburu Estrategikoa

### LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL SISTEMAREN BEHATOKIA INDARTZEA

#### Helburuak

1. Behatokiari ematea produkzio-sektoreak, lana, enplegua eta lanbideratzea behatzeko beharrezko I+G+Bko ahalmena eta, bereziki, ondorengoei buruzko datuak eta informazioa lortzeko ahalmena ematea:
  - a) Produkzio-prozesuei eta produkzio-sektoreak garatzeko estrategiei buruzkoak (horri dagokionez bereziki izango dira kontuan teknologia berrien sarrera eta sortzen ari diren azpisektoreak eta okupazioak).
  - b) Profesionaltasunaren bilakaera hautematea ahalbidetuko duten ereduak lanbide-figura merkatuan duten portaerari buruzkoak.
  - c) Gazteen lan-munduratzeari buruzkoak.
2. Behatokiari ematea kualifikazioaren, prestakuntzaren eta enpleguaren arteko harremanak ikertzeko ahalmena, hasierako prestakuntzak enpresen premiei eta lan-merkatuaren eskakizunei egokituta jarraitzen duela ziurtatu ahal izateko.
3. Behatokiaren eta Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuaren arteko lankidetzeta eta koordinazioa areagotzea kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren esparruan.

#### Neurriak

1. Behatokia berari egotzitako I+G+Bko zereginak egin ahal izateko beharrezko giza baliabide eta baliabide materialez hornitzea.
2. Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuaren laguntzarekin, Behatokiaren urteko jardueren plana egitea. Bertan zeregin berriei heltzeko baliabideak eta epeak zehaztuko dira.
3. Behatokiak berari egotzitako I+G+Bko jardueren jarraipena eta kontrola egiteko txostenak prestatzea eta Kualifikazioetako eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluari bidaltzea.
4. Gutxienez urtean 4 bilera egitea Behatokiaren eta KELren artean informazioa trukatzeko eta koordinatzeko.

## 1.9. Helburu Estrategikoa

### LANBIDE HEZIKETAKO KALITATEA ETA GAITASUNA EBALUATZEKO EUSKAL AGENTZIA INDARTZEA

#### Helburuak

Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeke Euskal Agentziari ematea honakoak kudeatzeko eta ikuskatzeko ahalmena:

1. Kualifikazio, Prestakuntza eta Lanbide-Orientazioko Sistema Integratu osoaren ebaluazioa.
2. Biztanleria aktiboaren gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeke prozesua.

#### Neurriak

1. Agentzia berari egotzitako Sistema Integratua ebaluatzeke zereginak kudeatzeko eta ikuskatzeko beharrezko giza baliabide eta baliabide materialez hornitzea.
2. Agentzia berari egotzitako gaitasuna aitortzeko eta ebaluatzeke zereginak kudeatzeko eta ikuskatzeko beharrezko giza baliabide eta baliabide materialez hornitzea.
3. Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeke Euskal Agentziak urteko jardueren plana egitea. Bertan zeregin berriei hel-tzeko baliabideak eta epeak zehaztuko dira.
4. Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeke Euskal Agentziak berari egotzitako jardueren jarraipena eta kontrola egiteko txostenak prestatzea eta horiek Kualifikazioetako eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluari bidaltzea.

## 1.10. Helburu Estrategikoa

### AURRERA EGITEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN KATALOGOA GARATZEKO BIDEAN

#### Helburuak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen eta ekonomiaren lehiakortasuna areagotzea sustatzea.
2. Enplegua lortzeko aukera eta langileen lanbide-mugikortasuna hobetzea lanbide-kualifikazioei lotutako lan-esparruetan.
3. Langileen prestakuntza areagotzea, produkzio-moduen aldaketei aurre egiteko eta etengabe ikasten jarraitzeko.

#### Neurriak

1. Lanbide-Kualifikazioak prestatzea zehaztutako produkzio-sektoreetan.
2. Gaitasun-atalak prestatzea:
  - a) *Norberaren ikasteko eta prestatzeko prozesua kudeatzeko modua.*
  - b) *Lankidetzeta eta talde-lana.*
  - c) *Ekimena, espiritu ekintzailea eta sormena garatzea.*Gaitasun-atal horiek kualifikazio-mailen arabera zehaztuko dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kualifikazioen Sistemako Lanbide-Kualifikazio guztietan hartuko dira barne.



## 1.11. Helburu Estrategikoa

### AURRERA EGITEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KUALIFIKAZIOEN SISTEMARI LOTUTAKO PRESTAKUNTZA GARATZEKO BIDEAN

#### Helburuak

1. Prestakuntza-eskaintza gehiago egokitzea lanean ari den biztanleria aktiboaren premietara.
2. Lanbide-Heziketako azpisistemen arteko iragazkortasuna areagotzea (Lanbide-Kualifikazio berriei dagozkien prestakuntzako Modulu-katalogoan barne hartzearen bidez), baita horien esparruan egindako Lanbide-Heziketen arteko bat-etortzeak eta baliozkotzeak areagotzea ere.
3. Kalitate-jarraibideak eskaintzea prestakuntzako eragileei Kualifikazioen Sistemaren egiaztagiria xede duten prestakuntza-programa guztiak diseinatzeko.
4. Lanbide-Heziketako azpisistemen prestakuntza-eskaintza integratzea ahalbidetzea.

#### Neurriak

1. Zehaztutako lanbide-kualifikazioei dagozkien modulu-katalogoko moduluak prestatzea.
2. Honako gaitasun-atalei lotutako modulu-katalogoko prestakuntza-moduluak prestatzea:
  - a) *Norberaren ikasteko eta prestatzeko prozesua kudeatzeko modua.*
  - b) *Lankidetzeta eta talde-lana.*
  - c) *Ekimena, espiritu ekintzailea eta sormena garatzea.*

Modulu horiek kualifikazio-mailen arabera zehaztuko dira eta aipatutako gaitasun-atalak lortzea xede duten prestakuntza-programetan hartuko dira barne, baita, horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioen Sistemako lanbide-kualifikazio oso baten egiaztagiria lortu nahi duten programetan ere.

## 1.12. Helburu Estrategikoa

### GAUR EGUNGO PREMIETARA EGOKITUKO DEN BERARIAZKO LANBIDE HEZIKETA EZARTZEA

#### Helburuak

1. Biztanleria aktiboaren prestakuntza-eskari gero eta handiagoari erantzuteko eskura ditugun prestakuntza-bitartekoen potentziala areagotzea.
2. Biztanleria aktiboak Berariazko Lanbide Heziketako moduluak eska ditzan sustatzea, beren erritmoei, ordutegi-aukerari eta ikasteko benetako gaitasunei egokitutako prestakuntza-eskaintzaren bidez.
3. Ezintasunen bat dutenen taldeak Berariazko Lanbide Heziketan sartzea ahalbidetzea.
4. Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpen handiena duten lanbide-arloei dagozkien heziketa-zikloetako material didaktikoak prestatzeko zeregina zabaltzea eta orokortzea, hori urrutiko irakaskuntza-modalitatearen bidez eskaini ahal izateko.
5. Kalitate-maila ona bermatzea urrutiko irakaskuntza-modalitateko araututako Lanbide-Heziketako prestakuntza-programak ezartzeko garaian.
6. Ezintasunen bat duten pertsonen parte hartu ahal izateko beharrezko egokitzapenak bilatzea.

#### Neurriak

1. Urrutiko Berariazko Lanbide Heziketako programa esperimentalak prestatzea eta gauzatzea, honako neurriak hartuz:
  - a) Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloen kopuru mugatua hautatzea. Horiek eskari potentziala izango dute eta egokiak izango dira urrutiko irakaskuntza-modalitateari jarraituz eskaintzeko.
  - b) Urrutiko modalitateari jarraiki ziklo horiek irakasteko material didaktikoak diseinatzea eta prestatzea.
  - c) Urrutiko Berariazko Lanbide Heziketak izan behar duen formatu akademikoa eta prestakuntza-formatua prestatzea: urrutiko modalitateko heziketa-zikloa osatzen duten berariazko moduluak ezartzea.
  - d) Modalitate hori Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko modua arautzeko araudia prestatzea eta onartzea.
  - e) Plan esperimental hau gauzatzeko giza baliabide eta baliabide materialak izango dituzten ikastetxe integralen kopuru mugatua hautatzea.
  - f) Programa gauzatzeaz arduratuko diren giza baliabideak berariaz prestatzea.
2. Plan esperimentalak ebaluatzea.
3. Hala badagokio, urrutiko modalitateko Berariazko Lanbide Heziketa beste ziklo eta ikastetxe batzuetara zabaltzea.



The background is a solid blue color. Overlaid on this are several thin white lines that form a complex, abstract geometric pattern of overlapping triangles and polygons. A single, short, horizontal red line is positioned to the left of the text, underlining the number '2'.

# 2. ESPARRU



II.

ESTRATEGIKOA





# 2.

## ESPARRU ESTRATEGIKOA

### 1. KALITATEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE HEZIKETAN

#### Sarrera

1997an onartutako Lanbide Heziketako Euskal Planak hiru maila ezarri zituen kalitatea ebaluatzeko: Lanbide-Heziketako sistemaren beraren ebaluazioa, ikastetxeen ebaluazioa eta prestakuntzaren ebaluazioa. Plan horretan ebaluazioaz arduratzeko hiru eragile ezarri ziren: ikastetxeak berak, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia, eta sistematik kanpoko erakundeak.

- Lanbide-heziketako ikastetxeek beren kudeaketaren kalitatearen inguruko barneko ebaluazioak egiten dituzte, ikastaroen eta prozesuen emaitzak neurtzearen bidez, prestakuntzaren barne-auditoretzen bidez eta Bikaintasunaren EFQM Ereduari dagozkion kalitate-sistemaren eta autoebaluazioaren bidez.
- Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak, sistemaren barneko ebaluazio-eragile gisa jardun duenak, ebaluazioaren hiru mailerako –prestakuntzarako, ikastetxeen kudeaketarako eta Lanbide Heziketako sistemaren ebaluaziorako– eredu objektiboak eta ebaluazio-irizpideak ezartzeko zeregina du.
- Ikastetxeek eskainitako prestakuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Kualifikazioen Sistemari lotutako prestakuntzako ikastaroen aditoretza-planaren bidez ebaluatu da.
- Ikastetxeen kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko zeregina sistematik kanpo dauden erakundeen esku utzi da (AENOR, EUSKALIT), izan ere, Lanbide Heziketako Lehen Euskal Planak bereziki azpimarratu zuen Lanbide Heziketarekin lotura estua duten industria eta zerbitzuetan tradizioz erabili izan direnekin pareka daitezkeen kalitate-fokatzeak hartzeko beharra.





## Lanbide-Heziketako sistemaren kalitatea

Lanbide-Kualifikazioen Sistema batek Lanbide Heziketako azpisisetak (hasierako prestakuntza, lanerako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza) integratzea du xede, besteak beste, betiere horietako edozeinen bidez nahiz bide ez formaletatik (lanbide-esperientziaren bidez esate baterako) lanbide-gaitasuna lortzea eta egiaztatzea ahalbidetzen duen sistemaren baitan.

Horrenbestez, ezinbestekoa da ikuspegi orokor batetik abiatzea sistemaren egokitasuna eta kalitatea ebaluatzeko garaian, azpisisema horietako bakoitza ebaluatzeko ikuspegi mugatua gaindituz.

Lanbide-Heziketako sistemak bere osotasunean duen kalitatean eragin nabarmena dute ondorengo alderdiek: prestakuntza-eskaintzak, Lanbide-Kualifikazioen identifikazioak berak eta horien bilakaerak, Modulu-Katalogoa prestatzeak, gaitasuna aitortzeko sistemaren egiturak, gaitasun hori aitortzeko erabilitako metodoek eta informazioa eta lanbide-orientazioa eskaintzeko sistemak.

Haatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren Sistema Integratua ez da oraindik erabat finkatutako errealitatea. Aurrera doan proiektua dugu, baina oraindik gehiago garatu behar dira berorren osagai nagusietako batzuk.

Hori dela eta, sistema emaitzen adierazleen multzo baten bidez ebaluatzeaz gain, ezinbestekoa izango da aldizkako ebaluazio kualitatiboa egitea, sistemaren ikuspegi oso hori kontuan izanik.

Bestalde, ikastetxeak beren kudeaketarako kalitatezko eredu batekin hornitzen diren bezalaxe, Lanbide-Heziketako Sistema Lanbide

Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaritzek, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak eta Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak bideratuko dute, ISO 9001:2000 arauan oinarritutako sistema estandarizaturik aplikatuz bertako prozesuen kudeaketan eta Bikaintasunaren EFQM Eredua hartuz erreferentzia gisa Sistemaren kudeaketan.

## Kalitatea lanbide-heziketako ikastetxeetan

Gaur arte Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Euskal Plana ikastetxeen kudeaketaren kalitatea hobetzera bideratu da batez ere, eta horretan oinarritu da. Gainera, nagusiki ikastetxe Integralen Sareko ikastetxei eskaini zaie arreta, nahiz eta Lanbide-Heziketako gainerako ikastetxeak ere hartu diren kontuan, esparrua zabalduz. Ikastetxeek ahalgin bikaina egin dute kalitate-eredu horiek ezartzeko, eta emaitzak oso onak izan dira.

Ikastetxeetan erabili den erreferenteetako bat ISO 9001 araua izan da. Hori Lanbide-Heziketako ikastetxe askotan ari dira aplikatzen. Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak orientabidea eskaini die ikastetxeei eta gogo berotu egin ditu bertan kalitate-sistemak ezartzeko eta hori kalitateko ISO zigilua emateko baimendutako enpresen bidez egiaztatzeko.

Bestalde, 1997ko Lanbide Heziketako Euskal Planak proposatzen zuenaren bidetik, Bikaintasunaren EFQM Eredua da ikastetxeetako kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko erreferentzia komuna. ISO egiaztagiria duten ikastetxeek nahiz Lanbide-Heziketako gainerako ikastetxeek eredu hori dute erreferente komun gisa, autoebaluazioak egiteko eta



beren antolamendu osoa hobetzeko. Bikaintasunaren EFQM eredurako, kanpoko ebaluaziorako zerbitzu bat erabiltzen da, Euskalit (Kalitaterako Euskal Iraskundea). 1992an Eusko Jaurlaritzaren babesarekin sortu zen erakunde honek euskal gizartearen esparru guztietan erabateko Kalitatea sustatzea du helburu, EAren garapenean, lehiakortasunean eta ongizatean laguntzeko azken xedearekin. Euskalitek Eusko Jaurlaritzak erakundeei egiten dizkien aitopanak kudeatzen ditu aipatutako zerbitzuaren bidez: urrezko Q –Kudeaketako Kalitatearen Euskal Saria (500 EFQM puntu baino gehiago)– eta Zilarrezko Q (400 EFQM puntu baino gehiago).

Lanbide Heziketako Euskal Planak kalitatearen inguruko fokatzeko integratua hartu du eta ahalegina egin du alde batera uzteko apriorismoak eta ez gutxiesteko kalitatearen kontrolaren, kalitatea ziurtatzearen eta erabateko kalitatearen teoriak, hots, berorren garapen historikoa baldintzatu duten kalitatearen hiru ziklo nagusiek, egindako ekarpenak.

Bide horretatik, kalitatearen kontrolaren teoriak egindako ekarpenetako batzuk ikastetxeetan ezarritako kalitate-sistemek hartu dituzte kontuan. Hori da, esate baterako, zerbitzuaren eta prozesuaren zehaztapenen gaineko kontrolaren eta ikastaroak programatzerakoan eta ematerakoan, ikasleak kalifikatzerakoan eta irakasleak neurtzerakoan aplikatu diren prozesuen aldatetaren teoriaren kasua.

Ikastetxeek kalitatea ISO 9000 arauen arabera egiaztatzea bereziki erabilgarria eta egokia izan da giltzarri diren prozesuak identifikatzeko eta prozesuak kudeatzerakoan sistema estandarizatuak aplikatzeko. Sistema koherentea eskaini dute prestakuntza-zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko, baita eskainitako zerbitzuak eskatutako kalitatearekin bat ote datozen kontrolatzeko ere. Bistan denez, araua prozesuak estandarizatzeko baliagarria

## EFQM BIKAINASUN-EREDUAK KUDEATZEKO ESTRATEGIA INTEGRAL ETA KOHERENTEA HARTZEKO AUKERA ESKAINI DIE IKASTETXEEI, ETENGABEKO HOBEKUNTZAN OINARRITUTA

izan dadin, ezinbestekoa da eskainitako prestakuntza osoari aplikatzea, batez ere prestakuntza arautuari aplikatzea.

ISO 9000 araua berrikusteko eta, horrenbeste, ISO 9001:2000 arauaren estandarrik zorrotzenak gaintzeko, egokitzeko ahalegin handia egin behar izan dute berriz aurreko arauarekin egiaztatutako ikastetxeek.

EFQMren bikaintasun-ereduak aukera eskaini die ikastetxeei kudeatzeko estrategia integral eta koherentea hartzeko. Estrategia hori etengabeko hobekuntzan oinarritutakoa da, eta estrategia eta planen, prozesuen, pertsonen, baliabideen eta lidergoaren beraren kudeaketan hartzeko du barne emaitzen eta bere egindako fokatzeko errendimenduaren ebaluazioa. Aurreko planean jada adierazi zen EFQMren Bikaintasun-Eredua aplikatu beharra kudeaketa integralerako eta ikastetxeen ebaluaziorako erreferente gisa, eta horri eutsi egin behar zaio. Oraingo honetan bikaintasun-maila nahikoa lortu nahi da kudeaketan, eta maila hori lortu ondoren, horri eutsi nahi zaio, baita hobetu ere, autoebaluazioak eginez, hobetzeko planak diseinatuz eta kudeatuz eta barneko nahiz kanpoko auditoretzak eginez.

Aurreko planak hasitako kalitatearen aldeko apustu ausartak eta, zehatzago esateko, ISO 9000 arauak eta EFQMren Bikaintasun-Eredua bezalako estandarrik aplikatzeak emaitza bikainak izan dituzte ikastetxeen kudeaketa hobetzeko garaian. Hortaz, 2004-2007 aldirako Lanbide Heziketako Eus-



## 1997AN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN SISTEMARI LOTUTAKO PRESTAKUNTZA-İKASTAROEN AUDITORETZAK HASI ZIREN EGITEN

kal Plan honetan ere, lehengo bidetik jarraituko dugu eta berori sakonduko, kalitatearen estrategiari dagokionez.

### Kalitatea Lanbide-Heziketaren esparruan berritzen eta etengabe hobetzen jarraitzeko erreferente gisa

Berrikuntza da Lanbide Heziketako Euskal Plan honen ardatz estrategikoetako bat. Gainera, ikastaroak berritzea da, hain zuzen ere, estrategia horren baitako lanerako ildo nagusia, alegia, ikastaroak, horien diseinua, irakasteko metodoak eta ikasleen esku jarritako baliabideak berritzea. Horrek esan nahi du eskaintzen duen prestakuntza, eskaintzen dituen prestakuntza-ikastaroak direla Lanbide-Heziketako Sistemaren zerbitzurik garrantzitsuenetako bat, prestakuntza hori hasierakoa, lanerakoa nahiz etengabekoa izan. Prestakuntza-zerbitzu horiek jasotzen dituzten ikasleen asetasun-maila, jasotzen duten irakaskuntzaren balio erantsiari zor zaio neurri handi batean. Balio erantsi hori enplegatzaileek eskatzen duten gaitasunaz jabetzea edo

ikasleek eta irakasleek ikastetxeetako gela eta lantegietako prestakuntza-prozesuen eragin-kortasuna hautemateko duten modua izan liteke.

Irakatsi eta ikasteko prozesuak garatzeko modua, ikasleek egiten dituzten jardueren kalitatea, horien bidez lortutako gaitasuna eta ikasten dutena funtsezko dira, eta horrexegatik, hori ikastetxeek, sailek eta irakasleek berek kudeatu behar dute. Eta hori guztia taldearen ikuspegitik, eta ez banakoarenetik. Sistemaren emaitzan eragin handia dute programazioen diseinuak, gelako jardueren diseinuak, metodologia didaktikoak, ikasitako ebaluatzeko moduak berak eta gaitasunaz jabetzeko moduak. Hori dela eta, horiek ebaluatu eta kontrolatu beharko dira hobetzeko ildoak ezartzeko, baina batez ere bide berriak urratu behar dira, Lanbide-Heziketa etengabe hobetzea ahalbidetuko duten ideia eta prozesu berriak aplikatu ahal izateko.

Horrezaz gain, 1997ko planak adierazitako norabideari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako prestakuntza-ikastaroen auditoretzak egiten hasi ziren. Horretarako, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak ezarri zituen ikastaroen kalitatea kudeatzeko aintzat hartu behar ziren eta auditoretzak egiteko erreferentzia gisa erabiliko ziren eskakizunak. Auditoretzak 2000. urteaz geroztik egiten dira eta horiek etengabe hobetzeko politika aplikatzeko aukera eskaintzen diete ikastetxeei, onetsi ez diren alderdiak zuzentzeko neurriak ezartzearen bidez, hain zuzen ere.

Bestalde, auditoretzen sistema prestakuntza-jarduera guztietara eta ikasteko jardueren kalitatera ere zabaldu beharko da. Gainera, nahitaezkoa da ikastaroak eta zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko jardunbide egokien ildoak finkatzea, hasierako eta etengabeko

prestakuntza erraztuko duten eskaintza-mota berriak sustatzeko helburuarekin.

### Lanbide-Heziketako kudeaketaren kalitatera bideratutako fokatzea

1997ko Lanbide Heziketako Planaren fokatzeko nagusietako bat kalitatera bideratzea izan zen, 7. kapituluaren adierazi bezala. Bertan dioenari jarraiki, ezinbestekoa da, batetik, Lanbide-Heziketako Sistemaren kalitatearen ebaluazio globala egitea, sistema horrek egozten zaizkion helburu orokorrak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin (horien artean ditugu produkzioaren eta enpleguaren premietara egokitzea eta prestatzeko eta kualifikatzeko gizarte-eskarietara egokitzea) eta, bestetik, Sistemaren kalitatearen ebaluazioak ikastetxeetako bakoitzaren ebaluazioa hartzea barne, ikastetxe horiek ardurara daitezkeen beren kudeaketa hobetzeaz, kanpoko eskariari begira jarrita.

Lanbide-Heziketak kudeaketaren kalitatera bideratutako fokatzea hartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko industria- eta zerbitzu-ehunekoen enpresek garatutako kalitate-eredu nagusien interpretazio batean oinarrituz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan kalitate-ereduak interpretatzeko eta aplikatzeko ahalegina 90eko hamarkadaren erdialdean hasi zen, eta horrekin batera ikastetxe Integralen Sarea orokortzeko prozesuari ekin zitzaion. Prozesu horrek zalantzan jarri ezinezko arrakasta izan du, funtsezko hiru faktoreren ondorioz. Hona hiru horiek:

- 1997ko Euskal Planak adierazitako kalitatearen aldeko estrategia garbia eta hori garatzeko eskura izan ditugun baliabideak.
- Prozesu honetan aitzindari izan diren ikastetxeek garatutako metodologiek eta

aplikazio praktikoei ikastetxeetako zuzendariengan eragindako interesa.

- Ikastetxeen eta zuzendarien arteko lankidetzaren eta laguntza kalitate-planak ezartzeko eta hobetzeko garaian.

1997ko Lanbide Heziketako Euskal Planaren Bikaintasunaren EFQM Eredua hartu zen erreferentzia gisa ikastetxeen kudeaketa eta auto-ebaluazioa hobetzeko eta ISO 9001:2000 araua, aldiz, kalitate-sistema estandarizatu eta prozesuen kudeaketan aplikagarri dena garatu ahal izateko.

Azkeneko bost urteetan egindako lanaren emaitzak onak izan dira. Hori kontuan izanik eta kalitate-sistemei izandako garapenari begira, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketa estatuko aurreratuena eta Europako puntakoetako bat dela baieztatu dezakegu.

Honako zen 2004ko maiatzean Lanbide-Heziketaren kalitatearen kudeaketaren egoera:

- Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak ISO 9001:2000 lortu du (bertan hartzen dira barne Lanbide Heziketa Zuzendaritza, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua eta Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia).
- 2 ikastetxek 500 EFQM puntuak lortu dituzte (Urrezko Q).
- 19 ikastetxek 400 EFQM puntuak gainditu zituzten (Zilarrezko Q).
- Lanbide-Heziketako 38 ikastetxek ISO 9000 ziurtagiria lortu dute.
- 14 ikastetxek 300 EFQM puntuak lortu dituzte.
- Ikastetxe batek ISO 14000 lortu du.
- 10 ikastetxe auditoretza-fasean daude, ISO 14000 lortzeko.



Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ari den kalitate-eredua estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako zenbait ikastetxe ari da bere egiten. Hori guztia sustagarri da Lanbide-Heziketako eragileentzat eta horrek erakusten digu hasitako bidean aurrera egin behar dugula. Bereziki azpimarratu behar dugu ikastetxeen arteko sareko lana, baita lankidetzaren ere, hori izan baita Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren kalitatearen estrategiak izan duen arrakastaren oinarria.

2004-2007 aldiari dagokion planari erreparatuta, kalitatea lortzeko bidean aurrera egitea eta horretan sakontzea da Lanbide-Heziketa hobetzeko funtsezko ardatzetako bat.

Horretarako, ezinbestekoa izango da:

- Lanbide-Heziketako amaierako emaitzei eustea eta horiek hobetzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea hobetzea.
- Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren emaitzak eta bertako programa, jarduera eta planen errendimendua ebaluatzea.
- Ebaluazio eta auditoretzako programetan hautemandako hobetu beharreko esparruak garatzeko programak eta jarduerak sustatzea.
- Sistemaren lan egiten duten pertsonen kualifikazioan inbertitzea.
- Ikastetxe Integralen Sareak buru izaten jarraitzea kalitateari dagokionez, eta hori laguntzako zerbitzuetara ere hedatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketako Sistemaren adierazlearen taula garatzea.
- Proiektu-taldeak sortzea zerbitzu berriak diseinatzeko eta garatzeko eta jardunbide egokiak Sistemaren hautemandako hobetu beharreko esparruetara hedatzea.

- Nazioarteko estandar bat ezartzea gaitasuna ebaluatzeko eta pertsonak kudeatzeko.
- EFQM ereduaren arabera prestatzea ikastetxeen kudeaketa deskribatuko duten txostenak eta horien sistemak ISO 9001:2000 arauaren eskakizunetara egokitzea.

Lanbide-Heziketako ikastetxeen arteko sareko lana izan da ikastetxe horietan kalitatearen kudeaketa ezartzeko prozesuan eraginkorren izan den eta emaitzarik onena izan duen alderdietako bat.

Sareak proiektu-talde gisa antolatu dira eta, oro har, talde-lanaren metodologiari eta diziplinari jarraiki egin dute lan, horretarako ezarritako proiektu estrategikoetatik abiatuta.

### Emaitzak ebaluatzea, ezinbesteko erreferentzia

Lanbide-Heziketako Sistemaren ebaluazioak lanbide-Heziketako Sistemaren beraren eraginkortasuna hartu behar du kontuan, lortutako amaierako emaitzez gain, izan ere, emaitzak etengabe hobetzea ez ezik prozesuak ere etengabe hobetzea lortu nahi da. Bestela esan, Lanbide-Heziketako Sistemaren esku jarritako bitartekoan, baliabideen, inbertsioen eta, oro har, proiektu eta prozesuen errendimendua izan duen hobekuntza ebaluatu behar da.

Horri dagokionez, EFQMren REDER metodologia har dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako kudeaketaren erreferente gisa. Hortaz, laburbilduz, honako litzateke egitekoa:

- Hartuko ditugun fokatzak (proiektuak eta/edo prozesuak) ezartzea, lortu eta hobetu nahi diren emaitza zehaztatetik (panel adierazleak) abiatuta.

— Ondokoetarako beharrezkoak diren ekin-tzak erabakitzea:

- Proiektuak hedatzeko, hots, sistemaren esku jarriko diren baliabideak, pertsonen inplikazioa eta ekarpena eta horretarako beharrezkoak diren zerbitzuak eta prozesuak zehazteko.
- Proiektuen errendimendua eta eraginkortasuna hobetzeko. Horretarako errendimendua ebaluatzeko adierazleak zehaztu behar dira.

— Egindako neurketen eta gure esperientzian eta aplika daitezkeen jardunik onenetan oinarritutako ikaskuntzaren argitara hautatutako proiektuen ebaluazioa, berrikuspena eta eguneratzea egitea.

1997ko Euskal Planak aurreikusitako esparruetako bat sistemaren alderdi esanguratsuen inguruko berariazko ebaluazioa izan zen. Ebaluazio horren adibide dugu 2002an egindakoa, enpresek lanbide-heziketako tituludunak hautemateko moduaren inguruan egindakoa. Hori inkesta baten bidez egin zen eta oso emaitza baikorrak adierazi zituen.

Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia sortzeko 62/2001 Dekretuak erakunde horri egotzitako funtzioen artean dugu Lanbide-Heziketako Sistemaren garapena ebaluatzea. EFQM Bikaintasun-Ereduaren arabera, ebaluazio hori errendimenduaren eta emaitzen inguruko adierazleen taula baten bidez egingo litzateke.

Adierazleen taula horrek ebaluatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sistemak lortu nahi dituen emaitzak, bere zeregina aintzat hartuta. Gainera, abian jarritako programen eta proiektuen, garatutako prozesuen, Sistemaren esku jarritako baliabide eta langileen, kudeaketaren eta, oro har, epe luzera Sistemaren arrakastarako giltzarri izango diren faktore guztien errendimendua ebaluatu beharko du.

Agentziak taula diseinatzeko zereginari heldu beharko dio. Horretarako, lehenik eta behin, epe luzera begira Lanbide-Heziketako Sistemaren arrakastarako giltzarri izango diren faktoreak identifikatu behar ditu. Bigarrenik, faktore horien inguruko aurrerapena ebaluatzea ahalbidetuko duten kalitate-adierazleak diseinatuko ditu. Emaitzen arabera, sistemak bere helburuak edo lortu beharreko kalitate-mailak finkatuko ditu.

Sistemak erabiltzaileei eskainitako zerbitzuen, prestakuntza-ikastaroen, gaitasuna aitortzeko sistemaren eta ziurtapen eta erregistrorako sistemaren inguruan lortutako emaitzak ebaluatu beharko dira, baina baita barneko zerbitzuak eta prozesuak ere, halaxe eskatzen baitu horiek Lanbide-Heziketa garatzeko zereginen duten garrantzi estrategikoak.

Planak aurreikusi duenez, Lanbide-Heziketako Sistema garatzeko eta hobetzeko zereginen eragiten duten gai edo alderdi esanguratsuen inguruko analisiak eta ebaluazioak egingo dira une edo egoera jakinetan.

## 2. HELBURU ESTRATEGIKOAK

### 2.1. Helburu Estrategikoa

#### EMAITZAK EBALUATZEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE HEZIKETAKO SISTEMAREN KALITATEAREN ERREFERENTZIA GISA

##### Helburuak

1. Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren kalitatea, berorren emaitzak eta programen errendimendua ebaluatzea.
2. Prozesuak hobetzea, adierazleen eta helburuen identifikazioan eta kudeaketan eraginez.
3. Egiaztatutako eta gizarte-eragileek onartutako sistema izatea Lanbide-Heziketako Sistema ebaluatzeko.

##### Neurriak

1. Lanbide-Heziketaren arrakastan giltzarri diren faktoreak identifikatzea eta, horrenbestez, berorren garapena ebaluatzeko adierazlerik onenak hautatzea.
2. Lanbide-Heziketak epe ertainera izango dituen helburuak zehaztea.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren emaitzen bi urtean behingo txostena prestatzea.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako programen eta proiektuen errendimenduari buruzko hiru urtean behingo txostena prestatzea.
5. Sistemako programei eta alderdi garrantzitsuei buruzko berariazko urteko txostena prestatzea.
6. Ahal den neurrian, Europako Batasuneko beste herrialde eta eskualde batzuetako adierazleekin konparatzea.

## 2.2. Helburu Estrategikoa

### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN SISTEMA EBALUATZEA

#### Helburuak

1. Lanbide-Kualifikazioen, Prestakuntzaren eta Lanbide-Orientazioaren Sistemak bere osotasunean duen kalitatea hobetzea.
2. Sistemaren aldizkako ebaluazio kualitatiboa eta integratua izatea eskura.
3. Sistemaren kudeaketa autoebaluatzea, EFQM ereduaren arabera.

#### Neurriak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioen Sistemaren ebaluazioa kualitatiboa egitea, hiru urtean behin.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako prestakuntzaren ebaluazioa egitea.
3. Ahal den neurrian, Europako Batasuneko beste herrialde eta eskualde batzuetako adierazleekin konparatzea.



## 2.3. Helburu Estrategikoa

### AURRERA EGITEA IKASTETXEEN ETA SISTEMAKO ERAKUNDEEN KUDEAKETAREN KALITATEAN

#### Helburuak

1. Bikaintasun-maila aurreratuak, nazioartean onartutakoak, lortzea. European Quality Award esate baterako. Horiek Lanbide Heziketako Euskal Sistema bikaintasunarekin identifikatuko dute, sistema barnetik hobetzeaz gain.
2. Kalitatea kudeatzeko ISO 9001:2000 eta ISO 14000 sistemak izatea erreferentzia gisa. Horiek izango dira prozesuen kudeaketa hobetzeko tresna eta horiek lagungarri izango dira EFQM ereduaren helburuak lortzeko.
3. 400 EFQM puntuak lortzea Ikastetxe Integralen Sareko ikastetxe guztietan.
4. EFQM eredia hedatzea Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren programa eta proiektuen kudeaketara.

#### Neurriak

1. Ikastetxe guztietan kalitate-sistemak ezartzen laguntzea.
2. Ikastetxeetako kalitate-sistemak ISO 9001:2000 arauaren eskakizunetara egokitzea eta ikastetxe guztiak eta horiek eskaintzen duten prestakuntza osoa egiaztatzea, baita jarraipenerako auditoretzak egoki gainditzea ere.
3. Kalitate-programak garatzeko finantza-baliabideak eta langileak izatea eskura.
4. Zuzendaritza-funtzioa aitortzea kalitate-sistemak kudeatzeko arduradunei.
5. EFQM eredia hartzea Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren kudeaketa eta ebaluaziorako erreferente gisa.
6. EFQM ereduaren arabera prestatzea ikastetxeen kudeaketari buruzko memoria deskribatzaileak.
7. Gutxienez hiru urtean behin egitea kanpoko ebaluazioa, aurreikusitako helburuak garatzean ari direla eta aurrera doazela bermatzeko xedearekin.



## 2.4. Helburu Estrategikoa

### LANBIDE HEZIKETAKO IKASTAROEN KALITATEA HOBETZEA

#### Helburuak

1. Hasierako, etengabeko eta lanerako prestakuntzako ikastaroak kudeatzeko eskakizunak ezartzea eta eguneratzea.
2. Prestakuntza-eredu berriak diseinatzea, gaitasunez jabetzean oinarritutako gelako jardueretarako.
3. Prestakuntza-ekintzen diseinuaren eta kudeaketaren kalitatea ebaluatzea.
4. Prestakuntza-ikastaroen eta ikasteko prozesuen auditoretzak egitea.

#### Neurriak

1. Prestakuntza-ikastaroen eta gelako ikasteko prozesuen auditoretzak egitea.
2. Gelako jardueren eta gaitasunez jabetzean oinarritutako unitate didaktikoen diseinuari, garapenari eta horien errendimenduaren ebaluazioari buruzko gaitasun-atala prestatzea irakasleentzat.
3. Gaitasun-atal horri lotutako prestakuntza diseinatzea eta garatzea.

## 2.5. Helburu Estrategikoa

### GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ZUZENDARITZA HOBETZEA

#### Helburuak

1. Prozesuen arabera kudeatzea eta ekipoek beren buruak enpresa-aldaketako euskal ereduaren (konpainia txikien) arabera kudeatzea ahalbidetzea.
2. Giza baliabideen kudeaketaren esparruan ezagunak diren nazioarteko estandarrak ezartzea. Horiek bi eremutan oinarritutakoak izango dira: erakundeen baitako komunikazioa eta erakundea osatzen duten pertsonen prestakuntza.
3. Pertsonak eta ekipoek Lanbide Heziketako Euskal Sistema garatzeko egindako ekarpena aitortzea.
4. Lanbide-heziketako ikastetxeak langilez hornitzeko sistemak hobetzea.

#### Neurriak

1. Kudeaketa-eredu berriekin saioak egitea Lanbide-Heziketako ikastetxeetan, horien funtzionamendua hobeto egoki dadin gaur egun dituzten premietara.
2. Nazioarteko liP estandarra (*Investors in People*) lortzeko esperientzia garatzea.
3. Pertsonak eta ekipoek Lanbide-Heziketa hobetzeko egindako ekarpena aitortzeko sistema diseinatzea eta garatzea.
4. Lanbide-heziketan hutsik dauden plaza betetzeko gaur egun dagoen sistema berrikustea eta hobetzea.

## 2.6. Helburu Estrategikoa

### PROIEKTU EKIPOAK SUSTATZEA ETA KUDEATZEA

#### Helburua

Proiektu-ekipoak garatzea, kudeaketako jardunbide egokiak hedatzeko eta Lanbide-Heziketako programa eta proiektu berriak ezartzeko.

#### Neurria

Euskal Plan honetan ezarritako ekimenak eta programak garatzeko proiektu-ekipoak antolatzea.

## 2.7. Helburu Estrategikoa

### JARDUN ARDURATSUAK AREAGOTZEA LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEETAN, EFQM-KO 8. ESTANDAR EUOPARRA GARATZEKO

#### Helburua

Ekintza arduratsua garatzea eta Erantzukizun Sozial Korporatiboa sustatzea, portaera etikoak ahalbidetzeko, laneko harremanak hobetzeko, ingurumena zaintzeko eta ingurune hurbilarekin konprometitutako kudeaketa-ereduak sustatzeko.

#### Neurriak

1. Lanbide-heziketaren esparruan Erantzukizun Sozial Korporatiboan eragin dezaketen alderdi guztiak ikertzeko programa sortzea.
2. Batzordeak sortzea Erantzukizun Sozial Korporatiboaren inguruko ereduak garatzeaz arduratzen diren enpresekin eta bestelako erakundeekin batera lan egiteko. Honako faktoreak hartuko dira bereziki kontuan: gizartearen gaineko ardura duen erakunde gisa gauzatutako jarduerak; ikastetxeari dagokion eremuko komunitateen inplikazioa; ikastetxearen jarduerak dituen eraginak eta izan ditzakeen eragozpenak murrizteko eta ekiditeko jarduerak; eta jardueren inguruko informazioa eskaintzea, ingurumen-baliabideak kontserbatzen eta zaintzen laguntzeko.

## 2.8. Helburu Estrategikoa

### KUDEAKETAREN KALITATEA HOBETZEA AHALBIDETUKO DUTEN BESTELAKO EGIAZTAPENAK EZARTZEA LANBIDE HEZIKETAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE ESPARRU BATZUETAN

#### Helburua

Lanbide-heziketako ikastetxeetan ingurumen-kudeaketaren kalitatea hobetzera bideratutako ekintzak egitea, bestelako erakunde batzuekin lankidetzan.

#### Neurria

Lanbide-heziketako ikastetxeetarako eredu egokia garatzeko beharrezkoak diren lan-batzordeak sortzea. Horrek ISO 14000 egiaztatpena lortzen lagunduko die, EKOSCANen bidez.

The background is a solid blue color. Overlaid on this are several thin white lines that form a complex, abstract geometric pattern of overlapping triangles and polygons. A single, short, horizontal red line is positioned to the left of the first character of the text.


# 3. ESPARRU



III.

ESTRATEGIKOA





# 3.

## ESPARRU ESTRATEGIKOA

### 1. BERRIKUNTZA SUSTATZEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE HEZIKETAN, ETENGABE HOBETZEKO PROZESU GISA

#### Berrikuntza teknologikoa prestakuntza-prozesuetan

Berrikuntza teknologikoa faktore erabakitzailerik izan da azkeneko bi hamarkadetan produkzioaren eta ekonomiaren inguruko eszenatokien aldaketari dagokionez, baita lanbidearen eta lanaren eszenatokiei eta gizartearen eta kulturaren ingurukoei dagokienez ere. Prestakuntzaren munduak ere ezin izan du hori alde batera utzi, nahiz eta tradizioz errezelo gehiago izan dituen eragin hori onartzeko garaian.

Hori dela eta, berrikuntza teknologikoaren ondorio ezezagunen aurrean babes-jarrera hartu beharrean, egokia litzateke beste muturreko jarrera hartzea: irakatsi eta ikasteko prozesuen mesedetan erabiltzea berrikuntza teknologikoak eskainitako abantailak, baita teknologia didaktiko berriak garatzea eta aplikatzea ere, prozesu horiek askoz hobeto gauzatu ahal izateko.

Bere izaera dela eta, Lanbide-Heziketak bereziki eta zuzenean du zerikusia eta konpromisoa prestakuntzaren edukien berrikuntza teknologikoak eta horiek lanbide-kualifikazioetan izango dituzten ondorioak ezagutzearekin. Berrikuntza teknologikoaren kultura prestakuntza-zereginetan bertan –hots, irakatsi eta ikasteko prozesuetan– barne hartzea baino hoberik ez da, bere zereginak behar bezala betetzeko eta helburuak lortzeko.

Oraindik ez dira nahikoa arakatu Lanbide-Heziketaren didaktikaren esparruan berrikuntza teknologikoak eskaintzen dituen aukerak, eta are gutxiago ikastetxei aplikatuta izan ditzakeenak. Hori dela eta, ezinbestekoa da teknologia didaktikoak berritzeko ahaleginera bideratutako neurriak sustatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenetik eta horiek Euskal





## DAGOENENKO OINARRI ETA TRADIZIO ASKI SENDOAK DITU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXEEN ETA ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZAK

Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketako ikastetxeetan oro har aplikatzenetik abiatuta.

### Ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak

Jakin badakigunez, dagoeneko oinarri eta tradizio aski sendoak ditu Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide-Heziketako ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak. Lankidetzak hori batez ere ikasleek produkzioko guneetan jaso duten prestakuntzaren bidez gauzatu da, baita zenbait zerbitzu-trukeren bidez ere. Truke horiek ikastetxeen eta batez ere ETEen artekoak izan dira, baina enpresek ere gauzatu dituzte zerbitzu horiek, nagusiki ekipamenduak utziz.



Gaur egun nahitaezkoa da lankidetzak hori areagotzea, gisa horretan lor daitezkeen sinergia guztiak aprobetxatu ahal izateko, ikastetxeen nahiz enpresen mesederako, hain zuzen ere. Ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzari dagokionez, xede handizaleagoak eta eraginkorrakoak lortzeko bidean aurrera egin ahal izango dugu, Lanbide-Heziketako ikastetxeetako giza baliabideak gero eta prestatuagoak daudelako, ikastetxe guztietan kudeaketa nabarmen hobetu delako eta kalitate-maila handiagoak lortzen ari direlako eta ezagutzaren kudeaketa gero eta gehiago hartzen delako kontuan enpresa-lehiarako faktore gisa. Bide horretatik benetako lankidetzara iritsi beharko dugu, ikastetxeen eta enpresen artean trukatu den ezagutza aprobetxatzeko, transmititzeko eta kudeatzeko.

### Ezagutzaren sarea Lanbide-Heziketako ikastetxeetan

Azkeneko urteetan Lanbide-Heziketako ikastetxeek nabarmen landu dute bertako giza baliabideen ezagutzaren potentziala, eta kudeaketaren kalitatea hobetzeko prozesuak ezarri dituzte. Haatik, ikastetxe bakoitzeko giza baliabideek lortutako ezagutza horrek, zabalduko ezagutza horrek, ikastetxe kide guztien eta Lanbide-Heziketako ikastetxeen sareko gainerako ikastetxeen esku egon behar luke.

Horrez gain, etengabe prestatzearen eta kalitatea etengabe hobetzearen premian oinarritutako testuinguru honetan, erakunde guztiek aintzat izan behar duten egungo testuinguru honetan, nahitaezkoa da ezagutza kudeatzeko prozesu bati ekitea Lanbide-Heziketako ikastetxeen sarearen baitan.

Zehatzago esateko, ondokoetarako prozesu bat behar dugu:

- Erakundearen kapital intelektuala areagotu ahal izateko ezagutza berriaz jabetzea bultzatzeko.
- Maila guztietan etengabe ikasteko portararak eta mekanismoak sustatzeko.
- Ezagutza, esperientzia eta metodo didaktiko berriak formalki biltzeko, irakasleen arteko harremanen bidez, erakundeko banakako edo taldeko ikasteko prozesuen bidez nahiz informazioaren eta komunikazioaren inguruko sistema berrien bidez.
- Banakako ezagutza guztiek eskura izango duten informazioa bilakatzeko eta hori formalizatzeko eta sistematizatzeko, ezagutza hori ikastetxe guztien ondare izan dadin, erakundearen memoria bailitzan eta, amaitzeko.
- Ezagutza berria sareko gainerakoengana hedatzeko.

Horrek guztiak Lanbide-Heziketako ikastetxeek eskaintzen dituzten zerbitzuen balioa eta kalitatea areagotzea izango du xede.

Helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa da:

- Lanbide-Heziketako ikastetxeetako giza baliabideak, hots, erakundea bere osotasunean, etengabe ikasteko gai izatea, esperientzia positiboetatik zein negatiboetatik, aldaketei aurre hartuz eta aldakete-tara egokituz.
- Pertsona eta ikastetxe bakoitzak lortutako material intelektual berriak identifikatzea, kodetzea eta biltzea.
- Lanbide-Heziketako sare osoak izatea taldeko informazio eta ezagutzarako sarbidea.
- Ezagutza eta esperientzia berriak interpretatzea eta aprobetxatzea erakunde osoak eskainitako zerbitzuen balioa eta kalitatea areagotzeko.

Horrek guztiak euskarri teknologikoa izango du lagun, baita alderdi horiek guztiak barne



hartzea eta transmititzea ahalbidetuko duen erakundea ere, berritzeko taldeak edo komunitateak ahaztu gabe.

### Irakaslearen kontzeptua ezagutzaren gizarte berrian

Aditu guztiek baieztatu dute milurteko berrian aldaketa sakona gertatuko dela gure gizartean, hau da, industriaren arotik ezagutzaren arora igaroko gara. Teknologia berrien laguntzarekin, informazio asko dugu eskura eta hori, gainera, erraz eta ia berehala lor dezakegu. Alabaina, informazioa interpretatu egin behar da, erabilgarri izango bada, eta horretarako ezagutza ezinbestekoa da. Milurteko berrian paradigma-aldaketa gertatuko da irakaslearen kontzeptuan, orain arte ezagutzan oinarritu den kontzeptuan. Paradigma-aldaketaren prozesuaren baitan gaude, ezagutza duen irakasletik ezagutzaren irakaslerako bidean.

Hortaz, etorkizunak bestelako prestatzailea du eskakizun, informazioaren gizartearen ondorioz. Hori dela eta, dagoeneko ez da nahikoa alde aurretik aurreikusita dagoen zerbait irakatsiko duen eta ezarritako, aurrez

## EZAGUTZAREN GIZARTEAK OSO IRAKASLE SORTZAILEA ESKATZEN DU, BERE JAKINTZA APLIKATZEKO EZ EZIK, BATEZ ERE SORTZEKO ERABILIKO DUENA



definitutako eta estandarizatutako prozeduren arabera jardungo duen irakaslea, hots, bere ezagutza aplikatuko duen irakaslea.

Izan ere, etorkizunean, ezagutzaren gizartean murgilduta egongo garenez, oso prestatzaile edo irakasle sortzailea beharko dugu, bere jakintza aplikatzeko ez ezik sortzeko erabiliko duena, eta batez ere sortzeko erabiliko duena. Honetan datza milurteko berriak berekin dakarren funtsezko aldaketa: gure ezagutza gehiago erabili behar dugu erronka berriei erantzuteko aldeztetik aurreikusita dagoena egiteko baino.

Orain arte ezagutza aplikatzen zen teknologian, eta teknologia zen garrantzitsuena. Orain, aldiz, ezagutza bera da teknologia giltzarria. Beraz, hauxe izango da paradigma-aldaketa: prestatzailea bere ezagutza eta esperientzia modu sortzailean erabiltzeko gai den norbait izango da, bere lanaren eta lankideekiko lankidetzaren bidez ikasteko gauza izango dena eta ikasteko eta kudeatzeko prozesuak berritzeko gai izango dena, betiere emaitzak hobetzeko xedearekin.

Mendeko jarrerarekin jardun beharrean ekimenez jardutean datza sakoneko aldaketa, eta horretarako, ezinbestekoa da autoesti-

mua sustatzea ekipoak kudeatzen direnean (besteren esku utziz, erabakitzeke ahalmena emanez), lanaren kudeaketa protagonisten esku uzteko eta uste ona izateko ezagutzaren prestatzailearen gaitasunean, sormenean eta gogoan.

Horrez gain, garrantzitsua da saioak egiten hastea gaitasunen araberako kudeaketa-eredu berriarekin, irakasleen kualifikazioa hobetzeko xedearekin. Horretarako, prestakuntza-planak diseinatzeke eta garatzeko unean, lehenik eta behin, ikastetxeak bere proiektu estrategikoaren arabera behar dituen gaitasunak identifikatuko dira eta, bigarrenik, langileak autoebaluatuko dira, dagoen aldea zehazteko helburuarekin. Amaitzeko, dagoen tarteaz zertutuko da eta prestakuntza-planak diseinatuko dira.

Bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren baitan hasi nahi dugun etapari begira, garatzeko lehenasunezko ardatz izango da prestatzaileak kudeatzea. Ikastetxetan langileak banatzeko sistemak, etengabe-ko ikaskuntza, ardurak hartzea, elkarrizketa eta lankidetzaren eta pertsonen lorpenak eta ahaleginak aitortzea giltzarri izango dira langileen kudeaketa hobetzeko Lanbide-Heziketako Sistema osoan.



Hori lortzeko xedearekin, euskal plan honek nazioarteko IIP (*Investors in People*) estandarra aplikatzea proposatzen du, esperientzia gisa. Hori hartuko da erreferente gisa kudeaketa ebaluatzeko eta hobetzeko, pertsonen esparruan, baita erakundeak berak kudeatzeko ere, izan ere, estandar hori asko garatu eta egiaztatuta dute Erresuma Batuan, eta oso emaitza onak izan ditu.

### Gaitasunen araberako kudeaketa-sistema irakasleentzat

Gaur egun hauxe da garrantzi handia hartzen ari den xedeetako bat: produkzio-jardueraren lan-esparruetan lortu beharreko lanbide-gaitasunaren mailak, hedadura eta ezaugarriak identifikatzea eta ezartzea. Berariazko Lanbide-Heziketa osatzen duten heziketa-zikloak eskakizun horiek oinarri hartuta diseinatu ziren eta horietan lanbide-kualifikazioa eta -gaitasuna dira zuzeneko helburuak, prestakuntza horretako tituluetan barne hartutako lanbide-profilak garatzeko erreferente gisa.

Baina, bistan denez, irakasleen lanbide-profila ere aldatu da. Hori dela eta, gaur egun ezinbestekoa da horien lanbide-profilen arabera beharrezkoak diren gaitasunak identifikatu ahal izateko modu eta metodo berriak proposatzen hastea. Gainera, metodo berri horiek aukera eskaini behar dute erraz eta eraginkortasunez diseinatzeko eta kudeatzeko hainbat prestakuntza-plan, profil horiek gaitasunean oinarritutako prestakuntzara egokitu ahal izateko hain zuzen ere, egun Lanbide-Heziketan islatzen denaren bidetik.

### Prestakuntza-ibilbideak berritzea

Jakin badakigunez, oro har, profesional baten kalifikazio-mailetan aurrera egiteko, ezinbes-

tekoa da aurrez oinarritzko prestakuntzaren maila handiagoak lortzea, ondoren horien gainean diseinatu ahal izateko izaera espezializatuagoa duten lanbide-gaitasun berriak, lortu nahi den maila berriari dagozkionak, hain justu. Arrazoi horrexegatik, kualifikazioaren 3. mailatik (goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunei dagokienetik) kualifikazioaren 4. maila (ingeniaritza teknikoei eta diplomaturei dagokienera) igarotzeko, nahitaezkoa izango da aurretiko oinarritzko prestakuntza handia izatea. Gauza bera esan genezake kualifikazioaren 4. mailatik 5. mailarako (goi-mailako ingeniartzei eta lizentziaturei dagokienerako) urratsari buruz.

Bestalde, badakigu kualifikazio-maila batzuen eta besteen lanbide-gaitasunak eta laneko jarduerak, nolabait esateko, elkarrekin gurtzatzen direla maiz. Esate baterako, edozein produkzio-erakundetan, 4. mailako lan-esparruak asko samarretan hartzen ditu barne 3. mailari dagozkion gaitasunak eta laneko jarduerak. Hori dela eta (eta hori edozein produkzio-enpresa edo -erakundetan egiazta daiteke), lanbide-egiaztapenak lortzera bideratutako ikasketa-planek berariazko jakintza-gai komunak izaten dituzte oro har.

Printzipio orokor horiek kualifikazioaren 3. eta 4. mailen arteko aurrerapausoari aplikatuz, egia da goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunek oinarritzko prestakuntza osagarria

IRAKASLEEN  
LANBIDE-PROFILA ALDATU  
EGIN DA

BERRITZEAZ, IKERTZEAZ,  
KOORDINATZEAZ ETA SUSTATZEAZ  
ARDURATUKO DEN ETA PROIEKTU

# BERRIAK

GARATZEKO LANBIDE-HEZIKETAKO  
IKASTETXEEN ERREFERENTE GISA  
JARDUNGO DUEN ZENTRO BAT  
SORTZEA BEHARRÉZKOA DA



izan behar dutela ingeniari-tza teknikoei eta diplomaturei dagokien lanbide-gaitasunaz jabetu ahal izateko, baina egia da, halaber, karrera horietan ikasten den prestakuntza jakin bat aurrez ikasitakoa izaten dela eta, ziu-renik, lantokiko prestakuntzaren bidez apli-katu dela berori. Hori dela eta, gaur egun, Lanbide-Heziketako tituludun horiek berriz egin behar izaten dute badakitena eta, are gehiago, aplikatzen ere badakitena.

Hortaz, egun beste ibilbide bat bilatu behar dugu, ikasketa-planak egokitu ahal izateko, goi-mailako Lanbide-Heziketaren eta diplo-matura eta ingeniari-tza teknikoen arteko lotura ahalbidetzeko xedearekin.

## Ikasteko sistemak berritzea

Dagoeneko bete-betean gaude ezagutzaren gizarte berrian murgilduta. Gizarte horren aurrerapenak, gainera, kasu askotan oso garrantzitsu bilakatu diren hainbat aldaketa ekarri ditu berekin. Egiteko eta izateko moduak aldatzen ari dira, baita kontzeptuak eta pertzepzioak ere, baina, haatik, oso geldo, geldoegi, ari dira aldatzen irakasteko eta ikasteko moduak.

Teknologia berriak tresna bikain dira helburu berriak lortzeko bidean hobetzeko eta aurrera egiteko. Alabaina, ez dugu urrutiko presta-kuntza, zenbait kasutan zuzeneko presta-kuntza ordezka dezakeena, abian jartzera mugatu behar, gisa horretan pertsonak ikas-teko aukera gehiago izan ditzaten ahalbide-tzeko. Aitzitik, irakatsi eta ikasteko prozesua bera argi eta zehatz hobetzeko aukera eskai-niko diguten esparru berriak garatu behar ditugu.

Horretarako, ezinbestekoa da sistema dinami-koak sortzea, alegia, ingurune aldakorretan

aurrera egingo duten sistemak eta irakatsi eta ikasteko prozesu horrek ikasteko sistema berrietarako sortu behar ditugun inguruneei erantzun osoa eta koherentea eman ahal izateko moduan bilakatuko dela ziurtatuko diguten sistemak.

### Aldaketei aurrea hartzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioak prestatzeko gaur egun erabiltzen den metodoak produkzio-prozesuek eskatzen dituzten gaitasun-estandarrek prestatzeko unean bertan identifikatzea ahalbidetzen du. Baina ez du aukerarik eskaintzen Kualifikazioek ekoizteko eta enplegatzeko moduetan izandako aldaketa estrategikoenen ondorioz izango duten bilakaerari aurrea hartzeko. Bestela esan, ezinbestekoa litzateke enpresetan kualifikazio-premiekin duten bilakaera eta lanmerkatuan eskatzen den profesionaltasunaren edukian izandako aldaketak ezagutzea, kualifikazioetan barne hartu behar diren profesionaltasun-konbinazioen gaineko informazio prospektiboa lortzeko helburuarekin.

### Ikertzeko, Garatzeko eta Berritzeko zentroa sortzea Lanbide-Heziketaren esparruan

Gure gizartea etengabe ari denez aurrera egingen IKTBen esparruan, hainbat esparrutan sormena eta berrikuntza sustatzea berehalako premia denez, Lanbide-Heziketak garrantzi estrategikoa beretu duenez Euskal Autonomia Erkidegoan eta gai hauen inguruan ikastetxeak koordinatzea ezinbestekoa denez, berritzeaz, ikertzeaz, koordinatzeaz eta sustatzeaz arduratuko den eta proiektu berriak garatzeko Lanbide-Heziketako ikastetxeen erreferente gisa jardungo duen zentro bat sortu behar da, Lanbide-Heziketa garapen aurreratuko esparru berrietan sustatzeko xedearekin.





## 2. HELBURU ESTRATEGIKOAK

### 3.1. Helburu Estrategikoa

#### LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN KUDEAKETA BERRITZEA

##### Helburuak

1. Ikastetxeek baliabideak eraginkortasun handiagoarekin erabiltzea eta zerbitzuak eskaintzerakoan aldaketei erantzuteko (berehala erantzuteko) duten gaitasuna hobetzea.
2. Lanbide-Heziketako ikastetxeen kudeaketaren eraginkortasuna hobetzea eta, horrenbestez, Lanbide-Heziketako sistemaren eraginkortasuna hobetzea.
3. Kultura *ekintzailea* sustatzea eta bultzatzea Lanbide-Heziketako ikastetxeetan.
4. Kudeaketaren inguruko autonomia eta erantzukizuna areagotzea Lanbide-Heziketako ikastetxeetan.
5. Lanbide-Heziketako ikastetxeetan kalitateko kudeaketa egin ahal izateko baliabide kualifikatuz hornitzea sistema.

##### Neurriak

1. Sareko ikastetxeen multzo batean gauzatzea kudeaketa-unitateak eratzea ezaugarri izango duen eta *programen arabera* funtzionamendua izango duen antolaketa-eredua, eta bertan ezartzea Lanbide-Heziketako ikastetxeen autonomia eta erabakitzeko ahalmena areagotzeko kudeaketa-sistema.
2. Zuzendaritza-funtzioetarako behar den gaitasuna osatzen duten gaitasun-atalak zehaztea, Lanbide-Heziketako ikastetxeen kudeaketa eraginkorra eta kalitatekoa izateko.
3. Lanbide-Heziketako ikastetxeetako zuzendariak edo/eta kudeatzaileak kualifikatzera bideratutako prestakuntza-programak gauzatzea.
4. Ikastetxeko estrategia garatzeko, ikastetxeko langileen profilak finkatzeko, langileek profil horien arabera autoebaluatzeke eta finkatutako profilak lortu ahal izateko prestakuntza-plana diseinatzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren gaitasunak definitzea ahalbidetuko duen kudeaketa-sistema ezartzea.
5. Planaren aplikazioak izandako emaitzak ebaluatzea eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketako ikastetxe integralen sareko gainerako ikastetxeetara orokortzea.

## 3.2. Helburu Estrategikoa

### PRESTAKUNTZARI APLIKATUTAKO TEKNOLOGIAK BERRITZEA

#### Helburuak

1. Lanbide-Heziketako irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetzea, ikasteko metodoak berritzearen bidez, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei esker.
2. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien berrikuntzak Lanbide-Heziketako ikaskuntzan barne hartzea.
3. Lanbide-Heziketako irakasteko/ikasteko prozesuekin zerikusia duten ikasleak eta irakasleak IKTbak erabiltzera eta horiek aprobetxatzera ohitzea.
4. Lanbide-Heziketako sistemaren kohesioa eta integrazioa gauzatzen laguntzea, ikastetxeen arteko harremanen eta komunikazioaren bidez.
5. Lanbide-Heziketako ikastetxe batzuetan esperientzia gisa ezartzea irakasleen gaitasunak kudeatzeko sistema, beren lanbide-profilak eta prestakuntza hobetzeko xedearekin.
6. Lanbide-Heziketako irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetzeko sistema berri baten kontzeptuak, prozedurak eta printzipioak definitzea.
7. Ikasteko sistemak berritzeko eta modernizatzeko edukiak, eszenatoki pedagogikoak, eredu mediatikoak eta irakasteko egiturak deskribatzea.

## Neurriak

1. Informatika barne hartzea Lanbide-Heziketako ikasgela guztietan:
  - a) Ordenagailua erabiltzea irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio eta harremanetarako bitarteko arrunt gisa.
  - b) Lanbide-Heziketako tailer-ikasgeletako ordenagailuen ekipamendua areagotzea eta, hala badagokio, berritzea, lanbide-gaitasuna lortzeko, ikasleek ordenagailu bana izatea lortu arte.
  - c) Lanbide-Heziketa berritzeko eta bertako jardunbideak hobetzeko komunitateek programak eta bestelako software-tresnak prestatzea, irakatsi/ikasteko prozesuan laguntzeko tresna gisa.
2. Lanbide-Heziketako ikasgeletan telematika barne hartzeari dagokionez nabarmen egitea aurrera:
  - a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketako ikastetxe guztiak elkarrekin konektatzea errendimendu handiko sarea baten bidez.
  - b) Bideokonferentziak gehiago erabiltzea helburu didaktikoekin.
  - c) Ikasgelaren barruan ikasleek egindako proiektu telematikoak prestatzea eta garatzea.
  - d) Ikasgela digital eta elkarreragile berriak sortzea Lanbide-Heziketako ikastetxeen sarean.
3. Irakasleei berariazko prestakuntza-programa bat eskaintzea ICTBak Lanbide-Heziketaren didaktikaren esparruan aplikatzen ikasteko.
4. Esperientzia gisa –ondoren, egoki bada, orokortzeko–, irakasleak gaitasunen arabera kudeatzeko sistema aplikatzea, horien lanbide-profila hobetu ahal izateko eta, gisa horretan, kasuan kasu planifikatu beharrek prestakuntza-planak diseinatu ahal izateko.
5. Ikasteko sistemak berritzea, metodologia malguaren bidez, ikasleei ikaskuntza horren erdigune izatea ahalbidetzeko. Horretarako, helburu hori lortzen lagunduko duten beharrezko tresna pedagogikoak erabiliko dira.
6. Ezinduek esparru honetan izan ditzaketen premiei arreta eskaintzea.

### 3.3. Helburu Estrategikoa

## IKASTETXEEN ETA ENPRESEN ARTEAN TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZA TRUKATZEKO MODUA BERRITZEA

### Helburuak

1. Ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak areagotzea, benetako lankidetzaren mailara iristeraino. Horrela, bien artean teknologia eta ezagutza trukatzeko berekin dakartzan aukera guztiak aprobetxatu ahal izango dira.
2. Enpresetako eta ikastetxeetako giza baliabideen prestakuntza hobetzea.
3. Ikastetxeetako irakatsi/ikasteko prozesuak eta langileak enpresetan prestatzeko prozesuak hobetzea.
4. Ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak areagotzea produkzio-prozesuak hobetu ahal izateko.
5. Enpresen eta ikastetxeen arteko lankidetzak zerbitzuak trukatzeko eskaintzen dituen aukera guztiak aprobetxatzea.
6. Lanbide-Heziketako prestakuntza-programek eskaintzen duten lanbide-kualifikazioa ahalik eta gehien egokitzea produkzio-lanean sortzen diren rol eta egoeren berriazko premietara.

## Neurriak

1. Enpresetako adituek araututako Lanbide-Heziketako heziketa-zikloi dagozkien modulu enrepertorioa identifikatzea eta irakaslea.  
Enpresetako adituen egokitasunari dagozkion irizpideak zehaztea eta irakasteko zein baldintza (antolaketa ingurukoak eta ekonomikoak) bete beharko diren finkatzea.
2. Lanbide-Heziketako ikastetxeetako irakasleek enpresetan egingo dituzten egonaldietarako plana gauzatzea (ikus irakasleen prestakuntza-plana).
3. Enpresetako zuzendariak eta giza baliabideen kudeatzaileak prestatzeko plana gauzatzea Lanbide-Heziketako ikastetxeetako irakasleek osatutako eta bereziki kualifikatutako talde batek. Plan hori lanbide-gaitasunean oinarritutako ikasteko/irakasteko prozesuen diseinua inguruko izango da.
4. Ikastetxeek *gradu-ondoko* berriazko ikastaroak gauzatzea 2. eta 3. kualifikazio-mailetak enpresetako teknikarientzat (teknikari kualifikatuentzat eta erdi-mailako kargudunentzat).
5. Lanbide-Heziketaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren esparruan berritzeko zentroa jartzea abian.
6. Teknologia eta ezagutzan oinarritutako zerbitzuak trukatzeko plana gauzatzea. Honakoak hartuko dira barne bertan:
  - a) Ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak, produkzio-prozesuak hobetzeari begira. Lankidetzak hori ikastetxe batzuetan produkzio-prozesuak prestatzeko zenbait fase edo/eta lan egitean oinarrituko da. Ikastetxe horiek berriaz egongo dira horretarako prestatuta eta zeregin horretan enpresetako teknikariek hartuko dute parte.
  - b) Ikastetxeei dagokienez: maila teknologiko handiko zerbitzuak eskaintzea, besteak beste, metrologia tridimentsionalarekin, abiadura handiko mekanizazioarekin eta CAD aurreratuarekin zerikusia dutenak.
  - c) Enpresei dagokienez: aholkularitza eskaintzea sortzen ari diren profesionaltasun-osagai berriak identifikatzeko eta irakatsi/ikasteko prozesuetako bitartekoetan eta ekipoetan egin beharreko aldaketen berri ematea.
  - d) Ikasleek beren prestakuntza-aldi osoan enpresetan egindako egonaldiak aintzat hartzea.
7. Irakasle eta enpresetako teknikarien lantalde egonkorak sortzea, lankidetzaren dimentsio berriak identifikatzeko eta sustatzeko.

### 3.4. Helburu Estrategikoa

## EZAGUTZA KUDEATZEKO SISTEMA EZARTZEA LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN SAREAN

### Helburuak

1. Lanbide-Heziketako ikastetxeek eskaintzen dituzten zerbitzuen balioa eta kalitatea areagotzea.
2. Etengabe ikasteko gai izango den erakundea lortzea.
  - a) Etengabeko prozesu baten bidez lortutako banakako ezagutza biltzea eta sistematizatzea, hori Lanbide-Heziketako ikastetxeen sare osorako informazio baliagarri bilakatzeko.
  - b) Lanbide-Heziketako ikastetxe guztietara ezagutza berria etengabe iritsiko dela ziurtatzea eta behar dutenei eta behar dutenean helaraztea beharrezko dituzten ezagutza eta trebetasunak.
3. Lanbide-Heziketako ikastetxeen sareko kapital intelektuala etengabe hobetzeko prozesua sustatzea, ezagutzaz jabetzeko banakako nahiz taldeko prozesuak bultzatuz.
4. Lanbide-Heziketako ikastetxeen sarearen ezagutza biltzea, transmititzea eta sustatzea ahalbidetzen duten tresnak hobetzea.



## Neurriak

1. Lanbide-Heziketako ikastetxeen sarean aplikatuko diren ezagutza kudeatzeko eredua eta estrategiak zehaztea.
2. Sareko ezagutza kudeatzea. Honakoak hartuko ditu barne:
  - a) Lanbide-Heziketa berritzeko eta bertako jardunbideak hobetzeko komunitateak sortzea sustatzea eta beren lana egiteko prestakuntza eta motibazioa ziurtatzea.
  - b) Lanbide-Heziketa berritzeko eta bertako jardunbideak hobetzeko komunitateen lanaren norabideak eta helburuak zehaztea eta, bereziki, Lanbide-Heziketako ikastetxeen sareko antolaketa-memorian barne hartu behar diren ezagutza eta jardunbide hobeak zehaztea.
  - c) Lanbide-Heziketa berritzeko eta bertako jardunbideak hobetzeko komunitateen lanerako planak sustatzea eta onartzea, baita horiekiko harreman onak izatea ere.
  - d) Lanbide-Heziketa berritzeko eta bertako jardunbideak hobetzeko komunitateek sortutako ezagutza hedatzeko metodologia zehaztea eta gauzatzea.
  - e) Ezagutzaren kudeaketa aplikatzeko eta hobetzeko beharrezko euskarri teknologikoa definitzea eta gauzatzea.
  - f) Lanbide-Heziketako ikastetxeen sare osoak esanguratsu diren ezagutza berria eta jardunbide hobeak erabiltzen dituela ziurtatzeko datu-basea eta informazio-sistema sortzea eta kudeatzea.
  - g) Ezagutza berria eta jardunbide hobeak Lanbide-Heziketako ikastetxe guztietara hedatu daitezela sustatzea.
3. Lanbide-Heziketa berritzeko eta bertako jardunbideak hobetzeko komunitate bana sortzea Lanbide-Heziketako ikastetxeetan, baita komunitate horien guztien arteko sarea ere. Sare horrek bere lana bete ahal izateko pizgarri eta baliabide egokiak izan behar ditu. Honakoak izango dira komunitateen funtzioak:
  - a) Sarrerako eta Lanbide-Heziketako ikastetxeen ingurunerako erabilgarria izango den ezagutza berria sortzea.
  - b) Ikastetxeko giza baliabideek lortutako ezagutza berria biltzea. Ezagutza hori banakako nahiz taldeko ikasteko prozesuen bidez lortutakoa izan liteke, baita irakas-jardunaren, esperientzia komunaren nahiz enpresekiko harremanen bidezkoa ere.
  - c) Ezagutza berria argitaratzea, egoki irizten den formatuan, eta hori datu-base zentral batera helaraztea.
4. Lanbide-Heziketa berritzeko eta bertako jardunbideak hobetzeko komunitateen lanerako planak prestatzea eta gauzatzea.
5. Ezagutza kudeatzeko sistema ezartzeko eta, bereziki, ikastetxeen sare guztirako konexioa eta ikastetxeen eta zentro teknologikoen arteko konexioa orokortzeko beharrezkoa den euskarri teknologikoa gauzatzea edo/eta hobetzea.

### 3.5. Helburu Estrategikoa

## UNIBERTSITATEAREN ETA LANBIDE HEZIKETAREN ARTEKO LANKIDETZA EZARTZEA, KUALIFIKAZIOAREN 3. MAILATIK 4. MAILARA IGOTZEKO IBILBIDEAK ZEHAZTEKO

#### Helburuak

1. Goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunek beren lanbide-mailan gora egitea sustatzea, kualifikazioaren 4. maila lor dezaten (ingeniari-tza teknikoak eta diplomaturak).
2. Lanbide-kualifikazioen 3. mailatik 4. mailara igotzeko ibilbide koherenteak definitzea, goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunek ez dezaten izan jada badituzten lanbide-gaitasunei lotutako irakasgaiak berriz egiteko betebeharririk, betiere oinarritzko prestakuntza eta lanbide-prestakuntza kaltetu gabe.
3. Goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunek beren ibilbide akademikoan aurrera egitea eragozten duten alferrikako trabak kentzea.
4. Unibertsitateko hezkuntzako eta Lanbide-Heziketako sistemen arteko koherentzia areagotzea, profesionaltasun osoagoa bilatzeko helburuarekin.

#### Neurriak

1. Goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunek beren lanbide-ibilbidean aurrera egiteko bereziki egokiak diren erdi-mailako hainbat karrera identifikatzea.
2. Aritu-talde bat osatzea. Talde horretan Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institututuko kideak, unibertsitateko departamentuetako kideak eta Lanbide-Heziketako ikastetxeetako kideak izango dira, betiere goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunen Lanbide-ibilbidean aurrera egiteko identifikatu diren lanerako esparruetakoak eta unibertsitate-karrerretakoak izango direnak.
3. Goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunek aurrera egiteko ibilbideak definituko dituzten, unibertsitate-karrerrek ahalbidetzen duten lanbide-gaitasunaz jabetzea bermatuko duten eta goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunak jada baduen lanbide-gaitasunarekin lotura duten irakasgaiak eta prestakuntza-edukiak errepikatzea saihestuko duten baliozkotzeak zehaztea.
4. Esperientzia gisako aldi-diseinatutako ibilbideak egin dituzten goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunen errendimendu akademikoaren jarraipena egitea.
5. Goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunak unibertsitate-karrerretara sartzeko ibilbide akademikoak zehaztuko dituzten lege- eta administrazio-xedapenak prestatzea.
6. Goi-mailako Lanbide-Heziketako tituludunek lanbide-mailan gora egiteko ibilbideak antzeko heziketa-zikloekin bat etor daitezkeen erdi-mailako unibertsitate-karrera guztietara hedatzea.

### 3.6. Helburu Estrategikoa

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN GAINEKO I+G+B

### Helburuak

1. Aldaketei aurrea hartzea eta kualifikazioei produkzio-moduetan eta lan-merkatuan izandako aldaketetara egokituta eustea ahalbidetuko duten Lanbide-Kualifikazioen inguruko bilakaera- eta aldaketa-ildoak zehaztea, Behatokiarekin lankidetzan.
2. Behatokiak emandako datu eta informazioetik abiatuta, gazteak lanbideratzeko eta lanbide-ibilbidean aurrera egiteko Lanbide-Kualifikazioen ezaugarriak zehaztea, hasierako prestakuntza-eskaintza hobeto egokitu ahal izateko lan-merkatura.

### Neurriak

1. Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak I+G+Bko jardueren plana prestatzea, ereduzko enpresen multzo baten produkzio-metodoen bilakaera aztertzearen bidez. Azterketa horrek enpresetan sortzen diren profesionaltasunaren konbinazio giltzarriak (funtzio berriak, teknika berriak...) ezagutzea izango du xede, lanbide-kualifikazioen bilakaeraren eta aldaketaren bideak aurreratzea ahalbidetzeko asmoz.
2. Behatokiak I+G+Bko jardueren plana prestatzea, lan-merkatuak eskakizun duen profesionaltasunaren edukian izandako aldaketak ezagutzeko xedearekin, betiere Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuarekin lankidetzan.

Deskribatu berri ditugun ikerketa horien guztien emaitzek egoki irizten diren alderdi guztiak hartuko dituzte barne eta behar bezala adieraziko dira, horietatik abiatuta egin ahal izateko beharrezko aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Kualifikazioetan.

### 3.7. Helburu Estrategikoa

## IKERTZEKO, LANKIDETZAN ARITZEKO ETA ESPERIENTZIAK TRUKATZEKO FOROAK SUSTATZEA

### Helburuak

1. Lanbide-Heziketaren inguruko hainbat jarduera eta esperientzia sustatzeko eta ezagutarazteko moduak bilatzea, batez ere berrikuntzaren esparruan.
2. Berrikuntzaren eta hobekuntzaren kultura sustatzea Lanbide-Heziketako ikasleen artean.

### Neurriak

1. Lanbide-Heziketaren udako astea sortzea, berrikuntzaren esparruko jarduerak, nazioarteko trukerako esperientziak eta oinarrizko prestakuntza eta prestakuntza aurreratua sustatzeko xedearekin.
2. Lanbide-Heziketako *Lanbide* saria sortzea. Saria bi urtean behin emango da eta horren bidez goi-mailako heziketa-zikloetako ikasleek egindako berrikuntza-proiektuak, Lanbide-Heziketako ikastetxeetako prestakuntza-prozesuetan aplikagarri direnak, sarituko dira.

### 3.8. Helburu Estrategikoa

## LANBIDE HEZIKETAREN ESPARRUAN APLIKA DAITEZKEEN IKERKETA PROIEKTUAK GARATZEA

### Helburuak

1. Ikerketa aplikatzea Lanbide-Heziketaren esparruan, lehentasuna duten eremuetan hain zuzen ere.
2. Irakasleak inplikatzeko proposatutako ikerketa-prozesuetan.

### Neurriak

1. Ikerketa-proiektuak sustatzea Lanbide-Heziketaren inguruko esparru hauetan: irakaskuntzaren inguruko berrikuntzan, kudeatzeko prozesuak hobetzean, erakundeen arteko lankidetzan, eta irakasteko eta ikasteko azpiegituren diseinuaren inguruko berrikuntzan.
2. Ikertzeko urteko baimenak ematea. Aurreko programan barne hartutako ikerketa-esparruko baimen bana emango da eta baimen horiek erreferentziako hainbat espezialitate eta lanbide-arlotako Lanbide-Heziketako irakasleek lortu ahal izango dituzte.

### 3.9. Helburu Estrategikoa

## LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEAK PIXKANAKA KREDITATZEA IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO ERAKUNDE GISA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO EUSKAL SAREAREN BAITAN

#### Helburuak

1. Lanbide-Heziketako ikastetxeen garapen teknologikoa sustatzea.
2. Lanbide-Heziketako ikastetxeak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean barne hartzea.

#### Neurriak

1. Lanbide-Heziketako ikastetxeak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean barne hartzea sustatzea.
2. Lanbide-Heziketako 15 ikastetxe kreditatzea Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Teknologikoko erakunde gisa.

### 3.10. Helburu Estrategikoa

## IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZAKO ZENTRO BAT SORTZEA LANBIDE HEZIKETAREN ESPARRUAN

### Helburuak

1. IKTbak Lanbide-Heziketaren esparruan aplikatzeko zereginen aurrera egitea eta horiek hobeto aplikatzea.
2. Irakatsi eta ikasteko prozesuak berritzeko ikertzea, eta horretan lan egitea.
3. Fabrikazio aurreratua lantzea hainbat familia-arlotan Lanbide-Heziketako ikastetxeekin eta enprekin koordinatuta, ekipamendu berriak ezartzeari aurrea hartu ahal izateko gure giza baliabideak prestatzeko garaian.
4. IKTbein batera ikaskuntza malgutzeko eta sustatzeko balioko duten e-Learning material berriak garatzea.
5. Lanbide-Heziketako ikastetxeen sareko lana dinamizatzea.

### Neurria

Lanbide-Heziketa berritzeko zentroa sortzea, Lanbide-Heziketako ikastetxeak eta enpresak laguntzeko IKTben, prestakuntzaren, kudeaketaren eta berrikuntza teknologikoaren esparruetan.



### 3.11. Helburu Estrategikoa

#### IKASTEKO MODU BERRIAK SUSTATZEA ESPARRU BERRITZAILEETAN

##### Helburuak

1. Ikasteko modu berriak aplikatzea industria-sektoreetan, ICTBak euskarri gisa hartuta.
2. Laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko aukera lantzea, Lanbide-Heziketan erabiltzen diren makinei dagokienez.
3. Ezinduek izan ditzaketen premiei arreta eskaintzea.

##### Neurriak

1. Hiru dimentsioko Lanbide-Heziketa birtuala ezartzea.
2. Horretarako behar diren programa eta softwarea garatzea.
3. Helburu hori lehenestea makina konplexuagoak erabiltzen dituzten lanbide-arloetan.

### 3.12. Helburu Estrategikoa

#### GIZARTEAK ETA ENPRESEK ESKATZEN DUTEN PERTSONAREN PROFILAREKIN BAT DATOZEN ALDERDIAK GARATZERA BIDERATUTAKO EKINTZAK SUSTATZEA

##### Helburuak

1. Gaitasun giltzarrien inguruan, eskatzen den profilarekin zerikusia duten alderdiak identifikatzea eta definitzea.
2. Gutxienez hiru hizkuntzatan garatzea hizkuntz gaitasuna eta komunikatzeko gaitasuna.
3. Gizartearen eta produkzio-ingurunearen eskakizunekin bat datozen gaitasun eta trebetasunak garatzea ikasleek.

##### Neurriak

1. Hainbat eragileren artean eztabaidatzeko foroa sortzea, prestatu nahi den pertsonaren profilarik dagozkion hainbat alderdi sakontzeko.
2. Hiru hizkuntzako ereduak ezartzea heziketa-zikloetan.
3. Eskatutako gaitasunak eta trebetasunak garatu ahal izatea ahalbidetuko duten metodologiak barne hartzea.

The background is a solid blue color. Overlaid on this are several thin white lines that form a complex, abstract geometric pattern of overlapping triangles and polygons. A single, short, horizontal red line is positioned to the left of the first character of the text.

# 4. ESPARRU



IV.

ESTRATEGIKOA



Find...

Ctrl+F

Find Next

# 4.

## ESPARRU ESTRATEGIKOA

### 1. TEKNOLOGIA BERRIAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE HEZIKETAN

#### E-Learning prestakuntza

Haxe da gure garaiko ezaugarri nabarmenetako bat: prestatzeko prozesuak ez dira bertatik bertarakoak bakarrik izaten, horietako asko bertaratzea eskatzen ez duten jardueren bidez gauza daitezkeelako. Prestatzeko jardueren motak dibertsifikatzeko aukera ugari ditugun arren, prestakuntza-prozesu askok ohiko bideak jarraitzen dituzte, eta horiek nekez egoki daitezke Informatzioaren Gizartearen erritmorara.

Hori dela eta, oso kontuan izan behar dugu ez garela bat-batean ohituko bertaratzea eskatzen ez duten prestakuntza-zerbitzuak erabiltzera. Aitzitik, hori nolabait ere uste osoa izateko eskatu digun aldaketa kulturalaren ondorio izango da. Baina, nagusiki, aldaketa horrek berak erakutsi beharko dizkigu prestakuntza-sistema dinamikoago baten alde egingo dutenentzat dakartzan abantailak eta onurak.

Bistan denez, gaur egungo eszenatokiaren argitara, egokiagoa da zerbitzu anitzak uztartzea, prestakuntza-modalitate bat edo bestea bakarrik erabiltzearen aldeko hautua egitea baino. Hori dela eta, oro har, bertaratzea eskatzen ez duten zerbitzuen eskaintza eta zuzeneko parte-hartzea eskatzen duten jarduerak konbinatzea izango da logikoena. Aukera ugari izango ditugu: e-Learning sistema hutsa (bertaratzea ia eskatzen ez duena), laguntza didaktikoa eskaintzeko atari bat erabiltzean oinarritutako sistema (hori izango da bestelako prestakuntza-jardueren euskarri) edo bertaratzea eskatzen duten jarduera tradizionalak. Aplikatu daitezkeen baliabideen konbinazio egokia kasu zehatz bakoitza aztertzearen bidez bakarrik zehaztu ahal izango dugu.

E-Learning sistemari dagokionez, ondoren adierazitako ezaugarriak dira bere potentzialtasunaren oinarri:



# e-Learning

SISTEMAK OSO ARINA  
IZAN BEHAR DU, EZINDUENTZAT  
ERAGOZPENIK IZAN  
EZ DEZAN



— Lehenik eta behin, bere edukia. Edukia da garrantzitsuena eta edukien kalitatea horiek aurkezteko, modulatzeko eta motibatzeke moduaren arabera neurtzen da. Hori dela eta, ez da egokia pentsatzea edukiak dituen tradiziozko prestakuntza-erakundea dela eta, horri e-Learning programa informatiko ona gehituta, egokitzea behar bezala egingo dugula. Izan ere, interneteko hizkuntza idatziak berari egokitutako teknikak behar ditu, interneten etengabe baitago elkar elikatzeke aukera, testu-liburuetan ez bezala, horietan komunikazioa noranzko bakarrekoa delako.

— Bigarrenik, bere usagarritasuna. E-Learning sistemak oso arina izan behar du, ez du eragozpenik izan behar ezinduentzat, beti eman behar du erabiltzaileak web-orrian duen kokalekuaren gaineko informazioa eta, laburbilduz, eroso izan behar du erabiltzailearentzat. Ezaugarri honen eta aurrekoaren (eduki onen) arteko konbinazio egokiari *ikasgarritasuna* deitu izan dio zenbaitek.

— Hirugarrenik, ezin dugu pentsatu makinak irakasle batek eragin dezakeen motibazioa sortzeko gai direnik, hori oinarri engainagarria litzatekeelako. Hori dela eta, prestakuntza-harremanetako batzuk makinak bidezkoak izateagatik, ez dugu alde batera utzi behar ikasleen jardueren erregistroa argia izateko eta horrek irakaslearen jardun indartzaile egokia ahalbidetzeko premia.

Entziklopedia gisa funtzionatu duen atari elkarreragilea erabilgarri izateari dagokionez, atarian eskuragarri dagoen materiala beste modu batera aurkeztu behar da (hori izango da abiapuntua), kontuan izan behar baitugu berriz erabiltzeko modukoa izan behar duela e-Learning materialak. Hori dela eta, interne-



tera bideratutako liburutegi bat ez da mugatuko edukiak eskaintzera, eta beste informazio-iturri batzuetara bideratzeko bitartekoak izango ditu. Bide horretatik, hemen ataria aipatzen dugunean prestakuntza-prozesuetan duen laguntzeko funtzioari bakarrik erreferatzen diogun arren, aplikazio anitzak ditu eta prestakuntzarekin zerikusia duten beste zeregin batzuetara zabal daitezke. Hona horietako batzuk, adibide modura: prestakuntza-eskaintzarako sarbidea, sektoreko berriak, ikastetxeen deskribapena, eztabaidagunea eta abar, prestakuntza-materialei dagokienez adierazitakoaz gain.

Berataratzea eskatzen ez duen prestakuntza-sistema indartzen duen hirugarren tresna arreta pertsonalizatua da, telefono bidezkoa nahiz *on-line* eskaintzen dena. Zerbitzu honi esker, zalantzei erantzungo dien tutore bati deitu ahal izango diote edo horrekin komunikatu ahal izango dira *on-line* ikastaro batean, ikastaro misto batean (*on-line* prestakuntza eta zuzeneko uztartzen dituenean) edo zuzeneko ikastaro tradizional batean, izena eman duten pertsonak. Tutoreak e-Learning edo atariko orriak erabiliko ditu bere azalpenetarako. Funtsezkoa da tutorearen jarrera ez mugatzea deitu duenaren galderei erantzutera. Aitzitik, tutoreak gai izan behar du ikaslea norabide egokian orientatzeko, berari buruz duen informazioan oinarrituta (informazio hori e-Learning sistema bati konektatutako bere jardueraren erregistro batean egon daiteke, esate baterako).

### Prestakuntza eta IKTbak aplikatzea

Ezinbestekoa da Lanbide-Heziketako irakasleek teknologia berriak ikastea eta horietan prestatzea, hori gabe ez baita bideragarria izango teknologia horiek erabiltzea eta apli-



katzea. Lanbide-Heziketako irakasleak informazioaren eta komunikazioaren teknologien inguruan prestatzea, eguneratzea eta kreditatzea da plan honen helburuetako bat. Baina ez hori bakarrik, teknologia horien inguruko ikaskuntza kognitiboa garatzea ere xede baitu plan honek. Beraz, hori izango da teknologia horiek Lanbide-Heziketako ikastetxeetan saritzeko eta hedatzeko ezinbesteko euskarri.

Halaber, bideokonferentziak aukera asko eskaintzen ditu, kanpokoak barneratzean eta barnekoak kanpoan hedatzean oinarritzen delako batez ere. Hortaz, kanpoko harremanak hobetzea ahalbidetzen du eta barnean ere hainbat aplikazio ditu, kudeaketaren eta ikaskuntzaren esparruetan, baita ezagutza transferitzeko ezinbesteko zereginetan bertan ere.

Aipatu berri dugun azken alderdi horri dagokionez, bideokonferentziak ikasgelaren tamaina handitzeko aukera eskaintzen du. Ikasleak ikasgelatik kanpora ateratzea eta beste irakasle batzuek esku hartzea ahalbidetzen du. Horrezaz gain, erreferentziako ikastetxetik kanpokoak diren ikasleekiko eta beste ikastetxe batzuetako irakasleekiko harremanak sustatzen ditu, baita enpresekiko harremanak ere.

## SEGURTASUNA, MALGUTASUNA, ERAGINKORTASUNA, ESTANDAR IREKIAK ETA MANTENTZE-LAN TXIKIA EZAUGARRI IZANGO DITUEN SOFTWAREA EZARTZEA DA HELBURU

Irakaskuntzaren ikuspegitik begirata, irakasleak berekin zuzeneko harremanik ez duten ikasleei eman diezazkieke eskolak. Gainera, noizean behingo irakasleek parte hartzeko aukera eskaintzen du. Horiek zuzeneko profesional adituak izan daitezke (azalduko diren zereginetan diharduten pertsonak).

Kudeaketari erreparatuta, ikastetxeen eta horien eta enpresen arteko harremanak errazten ditu, eta hori onuragarria da ekimeneen inguruko erabakiak hartzeko eta horiek gauzatzeko epeei begira.

### Gaur egungo errealitatera egokitutako softwarea

Softwarearen inguruko politikak hainbat eskakizuni erantzun behar die, eta horiek desberdinak izango dira Lanbide-Heziketaren esparruan erabiltzen irakasten den softwarea edo erabiltzen den softwarea hartu erreferentzia gisa.

Erabiltzen irakasten den softwareari buruz ari garela, software horrek merkatuan erabiltzen dena hartu behar du kontuan, Lanbide-Heziketako sistematik ateratzen diren profesionalen benetan erabiltzen dena ezagutzea nahi dugulako, erabiltzen den hori izan egokiena edo ez. Gainera, horri epe luzera begira heldu

behar zaio, aurreikusi egin behar baitira merkatuan agertzen ari diren joera berriak, Lanbide-Heziketako sistema aldatetara egokitu ahal izateko.

Lanbide-Heziketaren sistemaren baitan erabiltzen den softwareari buruz ari bagara, eskakizunak bestelakoak izango dira. Kasu honetan helburua ez da izango enpresetan egun erabiltzen dutenetik hurbil egotea. Gure helburua segurtasuna, malgutasuna, eraginkortasuna, estandar irekiak eta mantentze-lan txikia ezaugarri izango dituen softwarea ezartzea da. Hori dela eta, egokia litzateke Open Source teknologia erabiltzeko joera izatea, Europako Batzordea egiten ari den gomendioei jarraiki. Bestalde, Open Source teknologia aukera eskainiko digu bertan arduratzeko softwarea mantentzeko lanez edo hori softwarearen euskal industriaren gain uzteko, horrek oso trakzio-efektua handia izango baitu.

### Informazio azkarra eta eraginkorra

Gaur egun informazioa eransteko prozesuak oro har geldoak dira maila guztietan eta horrek datuetan oinarritutako erabakiak azkar hartzea eragozten du. Gaur egun erabaki bat hartzeko (horietako batzuk oso errazak dira, datuak batzea esate baterako) beharrezkoa den informazio guztia hainbat iragazkitatik igarotzen da, eta horrela atzeratu egiten da informazio hori behar dutenengan iristeko unea.

Eskaintzaren ikuspegitik, irakasleak eman ditzakeen irakasgaien inguruko informazio egoki, zehatz eta eguneratua eskaintzeaz gain, ikastetxeek berek ere matrikularen ingurukoak berehala ezagutzeko aukera eskain dezakete, esate baterako. Hortaz, interesgarria litzateke matrikulak *on-line* egiteko siste-



ma ezartzea. Horrek, gainera, ikastetxeen eta Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren arteko lotura handiagoa ahalbidetuko du. Horrezaz gain, aukera eskainiko du bitartekoak ikastetxe eta lurralde historiko batzuetatik besteetara aldatzeko, baita kupo jakin bat beste autonomia-erkidego batzuetara eta Europako Batasuneko beste estatu batzuetara bidaltzeko ere.

Gaia eskariaren ikuspegitik aztertuz gero, ikasleek argi eta garbi ezagutu ahal izango dute zein aukera dituzten matrikulak egiteko. Gainera, ikastetxe bakoitzean eskaintzen den irakasgai bakoitzaren inguruko ahalik eta deskribapenik zehatzena lortzeko aukera izango dute. Honako informazioa emango zaie eskatzaileei, erabakia hartzeko unean ahalik eta informazio gehien izan dezaten: edukia- ren deskribapen zehatza eta eguneratua (*online*), metodologia, eskatutako maila, aurretiko baldintzak eta matrikulari dagokion ikastaroaren edo ikastaren sektorean enplegatzeko etorkizuneko aukerak, eta abar.

### IKTBak aplikatzearen bidez lortutako mugikortasuna eta malgutasuna

Sare korporatibo baten baitako eta, zehatzago esateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketaren sareko mugikortasunaz, malgutasunaz eta informaziorako sarbideaz hitz egiten dugunean, ezinbestekoa da lehen-tasun gisa finkatzea irakasleek kontzeptu horiek berme guztiekin eta eraginkortasunez landu ahal izateko dituzten aukerak.

PDA (*Personal Digital Assistant*) deiturikoak oso datu-kantitate handiak gordetzeko nahiz lantzeko gai diren ordenagailu txikiak dira. Izapideak eta burokrazia gutxitzeko aukera eskaintzen dute eta bertan barne hartutako

informazioa modu sistematiko eta bateratuan arakatzeko ahalbidetzen dute. PDAk oso erraz konekta daitezke ordenagailuetara eta, hori dela eta, intranet bat datuz hornitzeko erabil daitezke.

Horrezaz gain, simulatzaile eta irakasteko laguntzaile gisa erabil daitezke. Irakasleek sartutako informazioarekin erabil daitezke eta, hortaz, bertan jolas hezigarriak, prozesuen simulatzaileak, e-liburuak, etxeko lanak, azterketak eta abar har daitezke barne. Hortaz, bistakoa da PDAk irakasleen agenda gisa erabil daitezkeela. Bertan sar daitezke ordutegiak, notak jasotzen dituzten ikasleen fitxak, ikasleen ordutegia, guraso edo tutoreekiko harremanetarako datuak (telefonoa, helbidea), bere aurrerapenaren balorazioa, argazkia, noten zerrenda eta huts-egiteen zerrenda, baita segurtasun-kodeak, liburutegiko liburuen maileguaren egoera edo katalogorako sarbidea ere. Horiez gain, gelarako gidoiak edo *powerpoint* motako gardenkiak, zuzenean proiektagailuan emateko. Mota guztietako informazioa (PDA batek 500.000 testu-orri gorde ditzake) edo kalkuluak. Agerrikoa denez, irakasleen informazioaren zati handi bat sistemara deskarga daiteke eta elkarrekin lan daiteke.

Lanbide-Heziketako ikastetxeetan erabilgarritasun handia duen aplikazioetako bat *kalitate*-ko prozesuekin zerkusia duena da, burokrazia eta izapideak nabarmen murrizteko aukera eskaintzen dutelako.

## 2. HELBURU ESTRATEGIKOAK

### 4.1. Helburu Estrategikoa

#### **PRESTATZEKO, EGUNERATZEKO ETA KREDITATZEKO MEKANISMO ARAUTUA EZARTZEA, TEKNOLOGIA BERRIAK EZAGUTU ETA ERABILTZEARI DAGOKIONEZ**

##### Helburuak

1. Irakasleek IKTBen inguruan behar duten prestakuntza ezartzea eta bermatzea, horiek aukera eta gogoia izan ditzaten esparru berri-tzailean lan egiteko.
2. Irakasleek IKTBen inguruan duten gaitasuna egiaztatzea.

##### Neurriak

1. IKTBen inguruko 1., 2. eta 3. mailako egiaztagiria ezartzea.
2. Egiaztagiri horietako bakoitza lortzeko eskatuko diren edukiak zehaztea. Moduluak eta horietako bakoitzaren ordu-kopurua zehaztu-ko dira.
3. Eskaintza konbinatua gauzatzea, hainbat eragile eta entitate homologaturen parte-hartzearekin, programa garatzea ahalbidetzeko.
4. Programaren edukiak bi urtean behin eguneratzea.

## 4.2. Helburu Estrategikoa

### IKASTETXEAK EKIPATZERA ETA BIDEOKONFERENTZIAK EGITEKO EUSKARRIAK ETA UNITATEAK ERATZERA BIDERATUTAKO PROGRAMA SORTZEA

#### Helburua

Lanbide-Heziketako ikastetxeek beharrezko dituzten barneko nahiz kanpoko komunikazioak egiaztatutako kalitatearekin ezarri ahal izateko nahitaezko diren konektatzeko ahalmena eta ekipamendua lortzea.

#### Neurriak

1. Jada badituzten azpiegituretatik abiatuta, Lanbide-Heziketako 50 ikastetxetan beharrezko duten ekipamendua ezartzea, dirulaguntzak emateko hainbat urtetako programaren bidez.
2. Ikasgela digital elkarreragileen kopurua handitzea.
3. Bideokonferentziak egiteko hiru unitate mugikor sortzea (lurralde historikoko bana).
4. Bideokonferentziaren erabilera optimizatzea, prestakuntzan onura didaktikoa aterez.

### 4.3. Helburu Estrategikoa

## BEHARREZKO BALIABIDEAK ERABILTZEA, HORIEK BEHAR BEZALA PLANIFIKATUZ, SISTEMAN AHALEGINAK EZ BIKOIZTEKO

### Helburua

Lanbide-arlo bereko material espezializatuak aprobetxatzea. Bideokonferentzia erabiltzea kanpoko adituek (unibertsitate eta enpresetakoek nahiz aholkulariek) sakabanatuta dauden ikasle-taldeekin elkarrean ahal izateko sistema gisa.

### Neurriak

1. Lanbide-arloko arduradun bana zehaztea, adituen (unibertsitate eta enpresetakoek nahiz aholkularien) lankidetzaren antolatzea eta zaintzeko, hainbat jardueratan: tresnak eta teknologiak aurkezteko eta erakusteko saioetan, fabrikazio-prozesuan aditu direnen erakustaldietan eta abarretan.
2. Deskribatu berri ditugun jarduerak egitea ahalbidetuko duten protokoloak gauzatzeko.
3. Lanbide-arlo bakoitzaren inguruko mediateka (edo multimedia materiala) sortzea. Horrek aukera eskainiko du dauden materialak sailkatzeko, berriz erabiltzeko eta ikastetxeen esku jartzeko.

## 4.4. Helburu Estrategikoa

### LANKIDETZA ETA ELKARLANA SUSTATZEA IKASTETXE ETA IKASGELEN ARTEAN

#### Helburua

Jarduerak eta lanak elkarrekin egitea, ahalik eta familia-arlorik gehienak barne hartuz, ahal dela.

#### Neurriak

1. Ikastetxeen arteko lankidetzak ahalbidetuko duen programa sortzea, bateragarritasun teknologikoaren inguruan izan daitezkeen arazoei elkarrekin aurre egiteko eta horiek elkarrekin konpontzeko sistema ezarri, eta lan-metodologiaren esparruan ere elkarrekin lan eginez.
2. Irakasleak bideokonferentziaren bidez elkarrekin prestatzeko planak ezartzea, irakasleei medio horren bidez komunikatzeko trebetasunak irakasteko: material grafikoak erabiltzea, arbel elektronikoak, auditorioaren eta kameraren aurrean kokatzeko modua eta abar.



## 4.5. Helburu Estrategikoa

### IRAKASTEKO MATERIAL GISA ERABILITAKO SOFTWAREA ENPRESETAN EGUN ERABILTZEN DUTENERA EGOKITUTA EGOTEA, BAITA SORTZEN ARI DIREN SISTEMAK IDENTIFIKATZEA ERE

#### Helburua

Enpresetan IKTBen inguruan dituzten premiak eta horien erabilera hautematea, bereziki ekipamenduei eta programei dagokienez, Lanbide-Heziketako ikasleek ezagutza eta gaitasun egokiak izan ditzaten ikasketak amaitzerakoan.

#### Neurriak

1. Enpresetako softwarearen eta ekipamenduaren erabileraren gaineko behatokia sortzea, baita sortzen ari diren erabilerak definitzea ere.
2. LHko ikastetxeen eta enpresen arteko harremanei buruzko diagnostikoa egitea, softwarea eta ekipamendua erabiltzeari dagokionez.
3. Ikasitakoaren curriculum-egokitzapena.

## 4.6. Helburu Estrategikoa

### AHAL DELA JABETZA SOFTWAREA OPEN SOURCE SOFTWAREAREKIN ORDEZKATZEA, KOSTUAK OPTIMIZATZEKO ETA SISTEMA OSOAREN HAZKUNDEA ZIURTATZEKO HELBURUAREKIN

#### Helburua

Baimenen gastua murriztea, printzipio honetatik abiatuta: baimenetako gastua software propioa pertsonalizatzean eta prestatzean inbertitzeak errendimendu handiagoa izatea ahalbidetuko digu.

#### Neurriak

1. Gaur egun erabiltzen ari den jabetza-softwarearen ordezkotza izan daitezkeenak aztertzea, ahal den neurrian hori pixkanaka Open Source softwarearekin ordezkatzeko politika diseinatu ahal izateko.
2. Software propioa pertsonalizatzera bideratutako programa sortzea.

## 4.7. Helburu Estrategikoa

### SOFTWAREA MANTENTZEAZ ARDURATZEKO GAITASUNA LORTZEA

#### Helburuak

1. Jabetza-softwareak berori prestatzeko erabili den iturri-kodea eskaintzen ez duenez, fabrikatzaileari bakarrik ematen dio berori mantentzeko eta aldatzeko aukera.
2. Ahal den neurrian Open Source softwarea ezartzea, software horrek iturri-kodea ematen duenez, fabrikatzailea ez den beste enpresa edo erakunderen bat ardura daitekeelako berori mantentzeaz. Gisa horretan, aldatetako asko –horiek saihestezinak dira edozein softwaretan– erakundeak berak egin ditzake edo kontrolatutako *outsourcing*-aren bidez egin daitezke.

#### Neurria

Kontrolatutako *outsourcing*-a bertako lanarekin konbinatuko duen software-taldea sortzea.

## 4.8. Helburu Estrategikoa

### ESTANDAR IREKIAK EZARTZEA

#### Helburua

Estandar-tipo irekiak ezartzea. Programaren barnealdea ezkatatuta egon arren, horiek aukera eskainiko digute erabilitako fitxategiek eta komunikazioko protokoloek estandar ezagunei edo fabrikatzaileak ezagutzera emandakoari erantzutea. E-learning programa baten edukiek formatu estandarrean egon behar dute, programa aldatuz gero erraza izan dadin edukiak beste plataforma batera aldatzea.

#### Neurria

Erabiliko diren programa guztiek bete beharreko estandarrak aztertzea, zehaztea eta finkatzea.

## 4.9. Helburu Estrategikoa

### EGIAZTATUTAKO 'OUTSOURCING' EKIPOA FINKATZEA

#### Helburua

Estandar irekiak eta Open Source konbinatzea, enpresen mendekotasunik sor ez dadin jabetza duen sistema jakin bat erabiltzen dutela eta. Open Source enpresak egiaztatzeak aukera eskainiko du lanak bermeko enpresek egitea eta, aldi berean, traba teknologikorik gabeko lehiakortasuna sustatzea.

#### Neurria

Open Source enpresak egiaztatzeko sistema sortzea eta abian jartzea.

## 4.10. Helburu Estrategikoa

### NABARMEN HOBETZEA INFORMAZIOA EMATEKO ETA ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUAK ETA, ORO HAR, ADMINISTRAZIO JARDUERA, LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEETAN

#### Helburua

Lanbide-Heziketako ikastetxeen eta Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren arteko komunikazioaren abiadura handitzea. Horren osagarri, ikastetxeei aukera eskaintzea beren informazioa eguneratzeko eta hori berehala gehitzeko.

#### Neurria

Intraneta erabiltzea eta egokitzea Lanbide-Heziketako ikastetxe guztien eta Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzako zerbitzuen arteko harremanetarako, horretarako beharrezkoak diren programak garatuz.

## 4.11. Helburu Estrategikoa

### PDAREN ERABILERA SUSTATZEA IRAKASLEEN ARTEAN. ARRETA BEREZIA ESKAINZEA IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUETAN ETA KALITATE PROZESUEK BEREZKO DITUZTEN ESKAKIZUNETAN DITUEN APLIKAZIOEI

#### Helburua

Irakasleei aukera eskaintzea beharrezko datuak eta informazioa malgutasun, mugikortasun eta azkartasunez lortzeko eta kudeatzeko, bai irakatsi eta ikasteko prozesuari dagokionez, bai ikastetxeetan ezarritako kalitate-prozesuei dagokienez.

#### Neurriak

1. Pixkanaka PDaz hornitzea irakasleak eta ikastetxeetako administrazio-zerbitzuak.
2. Erabiltzaileentzako prestakuntza eskaintzeko plana ezartzea.
3. Irakasleek erabiltzeko PDAetarako programak prestatzea.
4. Ordenagailuen sarea prestatzea, gai izan dadin informazio hori guztia biltzeko, asimilatze eta aprobetxatzeko.
5. Informazioa intranetarekin lotzea.



## 4.12. Helburu Estrategikoa

### PRESTAKUNTZA PROZESUEK PERTSONALIZATUTAKO 'ON LINE' LAGUNTZA IZAN DEZATEN LORTZEA

#### Helburua

Laguntza honen bidez, arreta pertsonalizatua eskaintzea e-Learning sisteman oinarritutako prozesuei, eta nork bere kasa ikasteko aldian laguntza osagarria eskaintzea zuzeneko irakaskuntzan oinarritutako prestakuntzan. Horri dagokionez, ezin dugu ahaztu jaiegunetan ikasten dutela maiz etengabeko prestakuntzako prozesuetan murgilduta dauden erabiltzaileek. Kasu horietan oso beharrezkoa izan liteke helburu honen funtzionamendua.

#### Neurriak

1. Komunikazioetarako eta arreta pertsonalizaturako banaketa-zentroa sortzea, horietaz arduratuko diren irakasleek aukera izan dezaten hainbat lekutan banatuta egoteko, ikastetxeetan bertan nahiz bereziki horretarako prestatutako aretoetan, baita beren etxeetan ere.
2. Sistema gauzatea. Hardware, software eta abarretan inbertitzea.
3. Programa pilotu batekin hastea, ondoren orokortzeko xedearekin.
4. Eduki egokiak sortzea. Proiektuan inplikaturako irakasleek eskura izan behar dituzte eskainiko duten aholkularitzari dagozkion edukiak. Horretan aurrez formatu tradizionalen prestatutako materialak eta e-Learning sistema garatzetik eratorritakoak hartuko dira barne, bistan denez.
5. Jasotako galderak sistematikoki erregistratuko dituen datu-basea sortzea. Jada erantzun eta errepikatu diren galderak datu-basean erregistratuta geldituko dira eta, hortaz, erreferentzia gisako eredu bezala erabili ahal izango dira. Zikloa amaitzeko, maizen egin diren galderak eta horien erantzun eguneratuak aurkeztuko dira web-orrian.
6. Zerbitzu hau ebaluatzeko sistema. Zerbitzu berria denez, oso zaila da zehaztea aztertu beharreko parametro guztiak zein diren. Eskae-ren kopurua, horietako bakoitzari eskainitako denbora, erabilera handieneko orduak, eskari handiena izan duten espezialitateak eta abar ebaluatuko dituzten sistemak sortzea beharrezkoa dela bistakoa den arren, objektiboki ebaluatu beharko litzateke, halaber, irakaskuntzaren eta prestakuntzaren mailan izandako eragina edo bertara sartzen diren pertsonen asetasun-maila.
7. Zerbitzua beste erakunde batzuetara eta agian beste autonomia-erkidego batzuetara zabaltzeko aukera. Zerbitzu honek ez duenez koka-leku fisiko zehatzik, hainbat tokitara heda daiteke kostu handiagorik gabe.





V.

5. ESPARRUA

---



# 5.

## ESPARRUA

### FINANTZIAZIOA

Balorazio ekonomikoa egiterakoan aurreikusitako helburu horiek izan ditugu kontuan, eta esparru estrategiko bakoitzean barne hartutako helburu guztiak bere osotasunean baloratu ditugu. Garrantzitsua da azpimarratzea helburu batzuen aurrekonturik ezin dela egin, ezta zentzuzko hurbilpenik ere, horietako batzuek zehaztu gabe dauden pertsona-kopuruetan izan dezaketelako eragina edo kostuaren balorazio doitua egin ahal izateko aurrera egiteko eskatzen duten hainbat ekintza hartzen dituztelako barne, aurrez garatu ez diren esparru berrietan aplikatuko diren ekintzen kasuan edo berrikuntza-maila handia duten proiektuen kasuan esate baterako. Hortaz, Planean aurreikusitakoa gauzatu ahala ezagutuko dugu helburu estrategikoetako batzuk aplikatzeak izango duen kostua.

Bestalde, enpleguaren inguruko politika aktiboak eta, zehatz esateko, lanerako lanbide-prestakuntza, ez dira orain artean eskualdatu Estatuko Gobernutik Eusko Jaurlaritzara.

Bide beretik, etengabeko lanbide-prestakuntza kezka beteriko aldia ari da igarotzen Estatu-ko Gobernuak proposatutako eredu berriari dagokionez. Hori dela eta, une honetan ezin dugu eredu horrek planean izan ditzakeen ondorioen gaineko balorazio ekonomikorik egin, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak eman eraginkorra eta kalitatekoa izango den etengabeko lanbide-prestakuntzaren eredu baten funtzionamendua egokia izateko beharrezkoak diren zenbatekoak.

Finantziaioari eskainitako kapitulu honetan beren osotasunean balioetsi dira esparru estrategikoak. Esparru horien zenbaketa ekonomikoa urteka egin da.

Planean ezarritako aldirako –hots, 2004, 2005, 2006 eta 2007 urteetarako– beharrezkoa izango den aurrekontua islatu ahal izateko xedearekin, balorazio orekatua egiteko egindako kalkuluetan, faktore ugari izan ditugu kontuan. Ondoko taldeetara bil ditzakegu horiek:





- Erakundeak.
- Hainbat entitatearen funtzionamendu gastuak.
- Ekipamendu inbertsioak.
- Amortizazioak.
- Pertsonaleko kostuak.
- Prestakuntza-ekintzak.
- Laguntza-ekintzak.
- Berritzeko egitasmoak.

- Kalitate-egitasmoak.
- IKTB egitasmoak.
- Ezarriko diren sistemak.

Helburu estrategiko batzuei buruz ezin izan da aurrekontu-kopuru zehatzik finkatu. Nolanahi ere, helburu horien kostuak ez du %2,5 baino gehiago gaitutuko 2004-2007ko Lanbide Heziketako Euskal Planaren urteko aurrekontua.

## BEREN OSOTASUNEAN BALIOETSI DIRA ESPARRU ESTRATEGIKO EZBERDINAK

5. TAULA.  
LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL PLANA. 2004-2007KO AURREKONTUA

	2004	2005	2006	2007	GUZTIRA
<b>1. esparru estrategikoa</b> Kualifikazioen eta Lanbide-Heziketaren Sistema Integratua osatzea, eguneratzea eta hobetzea	88.686.416	101.112.695	106.138.330	111.445.247	407.382.688
<b>2. esparru estrategikoa</b> Kalitatea Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan	27.182.758	31.892.588	33.487.218	35.161.579	127.724.143
<b>3. esparru estrategikoa</b> Berrikuntza sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan, etengabe hobetzeko prozesu gisa	27.182.758	32.742.588	34.379.718	36.098.704	130.403.768
<b>4. esparru estrategikoa</b> Teknologia berriak Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan	28.579.180	35.742.588	37.529.718	39.406.204	141.257.690
<b>GUZTIRA</b>	<b>171.631.112</b>	<b>201.490.459</b>	<b>211.534.984</b>	<b>222.111.734</b>	<b>806.768.289</b>








ERANSKINA

---



# ERANSKINA

## LANBIDE HEZIKETARI BURUZKO ARAUDIA

### Estatukoa

- 5/2002 LEGE ORGANIKOA, ekainaren 19koa, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa (2002ko ekainaren 20ko BOE).
- 942/2003 ERREGE DEKRETUA, uztailaren 18koa, Berriazko Lanbide Heziketako teknikari eta goi-mailako teknikari tituluak lortzeko probek bete behar dituzten oinarritzko baldintzak zehazten dituena (2003ko uztailaren 31ko BOE).
- 1128/2003 ERREGE DEKRETUA, irailaren 5koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala arautzen duena (2003ko irailaren 17ko BOE).
- 295/2004 ERREGE DEKRETUA, otsailaren 20koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan barne hartutako zenbait lanbide-kualifikazio eta horiei dagozkien prestakuntza-moduluak, Lanbide-Heziketako moduluen katalogoan barne hartuko direnak, ezartzen dituena (2004ko martxoaren 9ko BOE).
- 362/2004 ERREGE DEKRETUA, martxoaren 5koa, Berriazko Lanbide Heziketaren antolaketa orokorra ezartzen duena (2004ko martxoaren 26ko BOE).



## Euskal Autonomia Erkidegokoa

- 34/1998 DEKRETUA, martxoaren 3koa, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokia sortzeko dena (1998ko martxoaren 18ko EHAA).
- 74/1998 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Goi-mailako Lanbide Heziketako Berriazko Institutuak sortzeko dena (1998ko apirilaren 30eko EHAA).
- 119/1998 DEKRETUA, ekainaren 23koa, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua sortzen duena (1998ko uztailaren 13ko EHAA).
- 1998ko urriaren 19ko AGINDUA, Lanbide Heziketako Euskal Planak ezarritako ikastetxe integralen sarea osatzen duten ikastetxeen zerrenda argitaratzen duena (1998ko azaroaren 18ko EHAA).
- 1998ko abenduaren 9ko AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Lanbide Heziketako Euskal Planak aurreikusten duen Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sarean parte hartzen duten ikastetxeek izango dituzten eginkizunak arautzen dituena (1999ko otsailaren 3ko EHAA).
- 62/2001 DEKRETUA, apirilaren 3koa, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia sortzen duena (2001eko apirilaren 26ko EHAA).
- 2001eko uztailaren 5eko AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Lanbide Heziketa arautua eta ez arautua eskaintzen duten ikastetxeen antolamendu eta funtzionamendu berria aztertzeko proiektua garatuko duten zenbait ikastetxe ikertze eta saiatzeko bidezko ikastetxe izendatzekoa (2001eko uztailaren 23ko EHAA).
- 2002ko abenduaren 5eko AGINDUA, Lanbide Heziketako heziketa zikloak eskaintza partzial eran ematea arautzen duena (2002ko abenduaren 27ko EHAA).
- 2002ko abenduaren 10eko AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxeei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak, modu partzialean irakasteko baimena ematea eta berari dagokion finantzaketa arautzen duena (2002ko abenduaren 27ko EHAA).
- 156/2003 DEKRETUA, uztailaren 8koa, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloen baitan Lantokiko Prestakuntza Modulua (LP)



egiteko modua arautzen duena (2003ko uztailaren 24ko EHAA).

- 2003ko uztailaren 15eko AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, erregimen libreko ikasleentzat Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako azterketen antolamendua arautzen duena (2003ko irailaren 19ko EHAA).
- 70/2004 DEKRETUA, apirilaren 27koa, Lanbide Heziketa Berezituko Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak ateratzeko probak arautzen dituen (2004ko maiatzaren 5eko EHAA).

**Argitaratzeko bidean:**

- Lanbide-Heziketako ikastetxe integratuen figura sortzen eta arautzen duen dekretua.
- Lanbide-Heziketako ikastetxe integratu izateko bete beharreko baldintzak eta prozedura ezartzen duen agindua.















**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

